

txanela

Irakaslearen gidaliburua
(zirriborroa)

5

Lehen gizakiak
(Txanela - Material globalizatua,
Lehen Hezkuntza - 1. maila)

TXANELA 1

5. unitate didaktikoa

GORPUTZA ZAIN DEZAGUN!

LABURPENA

Maddalenek, Ferminek, Urdintxok eta Poxek birraitonaren ametsa betetzea dute helburu, museo bat eraikitzea, alegia. Birraitonaren denboraren makina konpondu dute, eta denboran eta espazioan barrena hainbat bidaia eginez, informazioa bilduz eta jarduera asko burutuz, museorako piezak eskuratuko dituzte. Unitate honetan berriz, ez dute bidaiarik egingo, Fermin gaixorik dagoelako. Hala ere, egoera horrek norberaren gorputza eta ohitura osasuntsuak ezagutzeko aukera emango digu. Hori bai, ikasitako guztiarekin askari edo hamaiketako osasuntsua prestatuko dugu.

Unitateari hasiera eman eta gai berriari kokatzeko, liburuxkaren azalari behatu eta komikia irakurriko dugu. Ikasi nahi dugunaren ildo nagusiak finkatu aurretik, ikasleek gaiari buruz dakitena azaleratzen saiatuko gara. Hurrengo jarduera-blokeari ekin baino lehen, gorputza eta elikaduraren txokoa eraikiko dugu.

Proiektuari ekin aurretik, gorputz-atalekin eta gorputzaren ezagutzarekin eta onarpenarekin zerikusia duten hainbat jarduera egingo ditugu.

Elikatzea gizakion ezinbesteko funtzioetako bat da. Egunero elikatu beharra daukagu, gorputzak bere funtzioak behar bezala bete ditzan. Hori dela eta, unitate honetako proiektuak, elikagaiak eta horien funtzioak ezagutu eta dieta orekatuaren garrantziak jabetzeaz gain, elikagaien prestatze-lanetan trebatzea izango du helburu. Proiektua aurkeztu ondoren (hamaiketako edo askari osasuntsu bat antolatzea), gaiaren abestia ikasiko dugu.

Bapo-bapo jan eta gero, jan ondorengoak aztertuko ditugu. Atal horretan proposatzen diren jardueren bitartez, gure gorputza barrutik (gure makina perfektua) hobeto ezagutu eta zaintzeko ohitura osasuntsuaz jardungo dugu.

Liburuak etxera eramane baino lehen, unitatean zehar egindakoa gogoratu eta balioetsiko dugu. Bukatzeko, ikasleek liburuxka etxera eramango dute familiari erakusteko. Etxekoan lana haurraren azalpenak entzutea, egindakoa positiboki balioestea eta beren iritzia idatziz adieraztea izango da.

MATERIALA

- Unitate honen gida:
 - *Jarduera-zerrenda sekuentzien arabera sailkatuta*
 - *Unitateari dagozkion ziklo-amaierako helburuak*
 - *Unitateko ebaluazio-irizpideen taula*
 - *Unitatea bost astetan egiteko planaren proposamena*
 - *Jardueren azalpena eta helburuen eta ebaluazio-irizpideen arteko lotura*
 - *Eranskinak*
- Ikaslearen liburua, irakurgaiak, abestien CDa, jardueren CDa, lan-koadernoak, material osagarria, *Birraitonaren museoa 1* CD-ROMa eta *Birraitonaren museoa* bideoa.
- Liburu digitala (zoom-liburua)
- Enbalatzeko papera, hiztegi-txartelak egiteko kartoi mehe zatiak, pisua, metroa, ispiluak, buztina, argazki-makina, sukaldeko hainbat tresna, askaria egiteko mahai-oihala, platerak, edalontziak...
- Hainbat jarduera egiteko honako web-orri hauek lagungarri izan daitezke:
 - Gorputz-atalen inguruko jokoak: <http://gelapdi.blogspot.com/2010/02/gorputza-eta-adierazpena.html>
 - Artista famatuak egindako bodegoiak: http://www.harcourtschool.com/activity/art/still_life/fruit_f.html
 - Ikasleekin egiteko errezeta errazak: <http://www.consumer.es/alimentacion/aprender-a-comer-bien/>

Oharrak

- Baliteke *neguko jaiak* gertu izatea unitate hau lantzen ari zaretenean. Hautazko jarduera moduan, jai horiek lantzeko hainbat jarduera proposatzen dira eranskinean, sekuentziak kanpo.
- *Gaztelaniari* dagokionean, unitatean proposatutako jarduerak sekuentzian txertatuta daude. Jarduera horien izenburuak jardueren zerrendan azpimarratuta aurkituko dituzue.

JARDUERA ZERRENDA SEKUENTZIAREN ARABERA SAILKATUTA

SEKUENTZIA	PROIEKTUA	JARDUERAK	IZAERA
<ul style="list-style-type: none"> - Aurre-ezagutzak aktibatu - Gaiarekiko motibazioa sortu - Aurreikuspen-estrategiak landu 		<ol style="list-style-type: none"> 1. Azalari behatzea eta elkarrizketa 2. Komikia 3. Katarro txar batekin 4. Komikia asmatu 5. Abestia. Putzutun 6. Zer dakizu gorputzari eta elikadurari buruz? 7. Gorputzaren eta elikaduraren txokoa 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Garrantzizkoa 2. Garrantzizkoa 3. Garrantzizkoa 4. Osagarria 5. Hautazkoa 6. Garrantzizkoa 7. Garrantzizkoa
<p>Gure gorputza kanpotik:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputz-atalak - Zentzumenak - Norbere eta besteen gorputzaren ezaugarrien, ahalmenen eta mugen errespetua 		<ol style="list-style-type: none"> 8. Artelana: gorputzaren irudikapena 9. Gorputz-atalak identifikatu eta izendatu 10. Artikulazioak 11. Gorputz-atalak 12. Letra-zopa 13. Bertsoa: lepo gaineko lapiko honetan 14. Igarkizunak 15. Elkartasun jolasa: profilen jokoa 16. <u>Cuento tradicional. Garbancito.</u> 17. <u>Garbancito. Dramatización del cuento</u> 18. <u>Garbancito. Juegos de vocabulario</u> 19. <u>Garbancito. Hacemos un collage</u> 20. <u>Garbancito. Variaciones del cuento.</u> 21. Olerki misteriosua 22. Olerkia. Ni bezalakoak 23. Nor da nor? 24. <u>Our senses (zentzumenak)</u> 25. Hezurdura 26. Marra batzuk eginez irudimena pizten 	<ol style="list-style-type: none"> 8. Garrantzizkoa 9. Garrantzizkoa 10. Garrantzizkoa 11. Garrantzizkoa 12. Osagarria 13. Osagarria 14. Osagarria 15. Garrantzizkoa 16. Hautazkoa 17. Hautazkoa 18. Hautazkoa 19. Hautazkoa 20. Hautazkoa 21. Garrantzizkoa 22. Osagarria 23. Osagarria 24. Garrantzizkoa 25. Hautazkoa 26. Hautazkoa
<ul style="list-style-type: none"> - Elikadura osasuntsua - Elikagaien jatorria - Errezeta - Hausnarketa: pobrezia eta heriotza 	<p>Askari osasuntsua: proiektua planifikatu, gauzatu, komunikatu eta baloratu.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 27. Proiektua: hamaiketako edo askari osasuntsua 28. Zer jakin behar dugu hamaiketako/askari osasuntsua egiteko? 29. Abestia. Goxokiak jan eta. 30. Elikagaien piramidea 31. Denetik jan behar dugu 32. Bertsoa osatu 33. Igarkizunak. gaztea, angurria, gaztainak 34. Bodegoia 35. Otorduak: menua idatzi 36. Elkartasun-jolasa: jatetxe batean gaudela jolas gaitzen 37. Zer jango dugu. Erosketa-zerrenda. 38. Bideoa. Non erosiko ditugu elikagaiak? 39. Arduren banaketa 40. Nondik datoz elikagaiak? 41. San Blaseko opilaren errezeta 42. Errezeta edo errezeta bilduma 43. Proiektua gauzatu: hamaiketako edo askari osasuntsua 44. Proiektuaren komunikazioa eta balorazioa 45. Berria: heriotza 46. Heriotzaren inguruko hausnarketa 47. Entzunaldia. Olatu ezjakina 	<ol style="list-style-type: none"> 27. Garrantzizkoa 28. Garrantzizkoa 29. Garrantzizkoa 30. Garrantzizkoa 31. Osagarria 32. Osagarria 33. Osagarria 34. Garrantzizkoa 35. Osagarria 36. Garrantzizkoa 37. Garrantzizkoa 38. Hautazkoa 39. Garrantzizkoa 40. Hautazkoa 41. Hautazkoa 42. Garrantzizkoa 43. Garrantzizkoa 44. Garrantzizkoa 45. Osagarria 46. Osagarria 47. Osagarria
<p>Gure gorputza barrutik:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Digestioa - Gorputza zaintzeko ohitura osasuntsuak 		<ol style="list-style-type: none"> 48. Olerkia. Gorputzaren barnealdea ezagutzen 49. Digestioa 50. Prozesua berridatzi 51. Abestia. Gorputza barrutik 52. Hitz gurutzatuak 53. Gure gorputza makina perfektua 54. Olerkia: Gure gorputza ez dago hutsa 55. Puzkerrak 56. Ipuina: Maripuzker eta Mirenpinpirin 57. Hortzak zaintzeko hainbat aholku 58. Zorriak 	<ol style="list-style-type: none"> 48. Osagarria 49. Osagarria 50. Hautazkoa 51. Osagarria 52. Osagarria 53. Osagarria 54. Osagarria 55. Garrantzizkoa 56. Garrantzizkoa 57. Garrantzizkoa 58. Garrantzizkoa
<p>Landutakoa berrikusi</p>	<p>Ikasitakoa balioetsi</p>	<ol style="list-style-type: none"> 59. Komikia 60. Zer dakizu orain gorputzari elikadurari buruz? 61. Egindakoa berrikusten 	<ol style="list-style-type: none"> 59. Garrantzizkoa 60. Garrantzizkoa 61. Garrantzizkoa

*Azpimarratuta dauden zenbakiak gaztelaniazko eta ingeleseko jardueri dagozkie.

**5. UNITATE DIDAKTIKOA:
ZIKLO AMAIERAKO HELBURUEN ETA JARDUERREN ARTEKO HARREMANA**

HIZKUNTZA ARLOA (1)	
HELBURUAK	JARDUERAK
1.1 Ahozko azalpen simple eta kontestualizatuaren esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaien buruzkoak).	56, 16, 14, 31, 33, 38, 45, 56
1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren ahozko mezu sinpleetan, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion informazio zehatzak identifikatzea.	26, 41, 41, 47, 53, 49
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	1, 2, 16, 20, 22, 38, 44, 45, 48, 49, 54, 53, 56, 59, 61
1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) ahozko aurkezpen sinpleak egitea eskainitako jarraibideen laguntzaz.	7, 19, 33
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.	2, 3, 9, 12, 14, 21, 23, 26, 29, 32, 33, 53, 49, 55, 56, 59, 60, 51
1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.	2, 4, 41, 45, 59
1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko informazio aurkitzea eta aukeratzea, eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.	35, 38
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarriko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	4, 6, 9, 11, 35, 37, 39, 44, 50, 57, 60, 61
1.11 Euskara ohiko komunikazio-eremu eta egoera gehienetan erabiltzea, euskararen normalizazio eta euskal kulturaren transmisio-prozesuetan aktiboki parte hartuz.	17, 19, 20
1.12 Ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzea nork bere kultura-nortasuna eraikitzeke eta, testu horietako adierazpen baliabide batzuk aztertuz, ulermen eta adierazpen gaitasunak aberasteko.	17
1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentzibilitate estetikoak garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.	3, 5, 13, 14, 16, 22, 29, 32, 54, 55, 56, 51
INGURUNEAREN EZAGUERA ARLOA (2)	
2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoa, nortasuna eta abar) onartzeko eta errespetatzeko, bereizkeriarik gabe.	9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 19, 20, 21, 22, 25, 29, 30, 31, 32, 35, 36, 37, 39, 44, 46, 48, 50, 51, 52, 53, 55, 57, 58, 61
2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.	15, 43
2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.	7, 8, 25
ARTE HEZKUNTZA ARLOA (3)	
3.1 Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea.	3
3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.	3, 5, 15, 18, 49
3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea.	8
3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.	4, 19, 25, 47, 48, 54
HELBURU METADISIPLINARRAK (4)	
4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.	1, 6, 8, 15, 17, 30, 36, 37, 39, 40, 42, 43, 44, 49, 50
4.3 Bizikidetzeta demokratikoaren funtsezko zenbait balio ezagutzea; batik bat, eskolan bete beharrekoak; eta, halaber, herritarrek bete beharreko oinarriko arauak bete behar diren premiaz ohartzea.	39
4.4 Hainbat testuingurutan, proposamen jakin baten arabera, prozesuan egindako ikasbideaz jabetzen da.	44, 60

5 U.D EBALUAZIO IRIZPIDEAK	1.1.1 Azalpena arretaz entzuten du.	1.1.2 Elementuen esanahia interpretatzen du.	1.1.4 Testu baten oinarritzko ideiak gogoratzen ditu.	1.2.2. Datuak zeregina burutzeko erabiltzen ditu.	1.3.1 Berez parte hartzen du ekarpenak egiteko.	1.3.2 Esandakoari buruzko galbetei erantzuten die.	1.3.4 Elkarriketa arauak aplikatzen saiatzen da.	1.3.6 Zuzentasunez hitz egiten du.	1.4.3 Era ulergarrian adierazten ditu bere ideiak.	1.4.4 Aurkezpenetan zuzentasunez hitz egiten du.	1.5.1 Idazkiaren behaketan aktiboki parte hartzen du.	1.6.2 Testu genero sarrienak bereizten ditu.	1.6.3 Hitzekoak ez diren elementuak interpretatzen ditu.	1.7.1 Galderari erantzuteko informazioa aurkitzen du.	1.8.1 Erakitzeko prozesuan aktiboki parte hartzen du.	1.8.3 Testua egoki aurkezten du.	1.8.8 Ikaskideekin testua sortzean parte hartzen du.	1.11.1 Euskara/gaztelania erabiltzen du.	1.12.1 Testu motzak ulertzeko moduan errezitatzen ditu.	1.13.1 Literaturaz gozatzen du.	
JARDUERAK	56	16	14 31 33 38 45 56	26 41 47 53 49	1, 2 16, 20, 22, 38, 44, 45, 48, 54, 53, 49, 59, 61	44 56	1, 2 20, 22, 38, 44 45, 48 54, 53 49, 59 61	18	7, 33	19	2, 3 9, 12 14, 21, 23, 26, 29, 32, 33, 53, 49, 55, 56, 59, 60, 51	4 41 45	2 59	35 58	4, 6 9, 11 35 37 39 44 57 60 61 50	42 48 54	20 35 42	17 19 20	17	3, 5 13, 14 16, 22, 29, 32, 54, 55, 56, 51	
IKASLEAK																					
1.																					
2.																					
3.																					
4.																					
5.																					
6.																					
7.																					
8.																					
9.																					
10.																					
11.																					
12.																					
13.																					
14.																					
15.																					
16.																					
17.																					
18.																					
19.																					
20.																					
21.																					
22.																					
23.																					
24.																					
25.																					

5. U.D EBALUAZIO IRIZPIDEAK		2.3.1 Gorputzaren ezaugarriekiko errespetua adierazten du.	2.3.2 Gorputzaren funtzionamenduarikeko interesa adierazten du eta atal nagusiak identifikatzen ditu.	2.3.3 Ohitura osasuntsuen garrantziaz jabetzen da.	2.3.4 Emozioak identifikatzen ditu.	2.5.1 Kideen arteko harremanetan parte hartzen du	2.9.3 Informazioa bilatzeko iturriak erabiltzen ditu.	3.1.6 Musika lanak entzuten gozatzen du.	3.1.9 Entzunaldietan egoki jokatu du.	3.2.2 Abestiak aho batez interpretatzen ditu.	3.2.8 Adierazpenarekin gozatzen du.	3.3.1 Artelanek komunikatzen dituzten ideiak antzematen ditu.	3.3.4 Arte objektuak aztertzekeo jakin-mina du.	3.4.1 Marrazkiak egiten ditu.	3.4.2 Trazoaren aukerak probatzen ditu.	3.4.5 Egituren, koloreen eta formen funtzioen behaketa bideratua egiten du.	3.4.8 Materialak manipulatu gozatzen du.	4.1.1 Talde lanean aktiboki parte hartzen du.	4.1.3 Berdintasunez eta errespetuz aritzen da.	4.1.5 Adostasuna lortzeko elkarrizketa erabiltzen du.	4.1.7 Lan eritmo egokia izaten laguntzen du.	4.1.8 Materialak arretaz erabili eta jasotzen ditu.	4.1.10 Laguntzen die gainerakoei	4.3.2 Elkarrizketaz baliatzen da adostasuna lortzeko.	4.4.1 Ideiak tresnen bidez jasotzeko gai da.	4.4.2 Prozesuan egindako aurrerapena balioesteko gai da.
JARDUERAK	16 19 20 21 22	9, 10, 11, 12, 13, 14 25, 39 48, 51 52, 53	29 30 31 32 35 36 37 50 55 58 57	15 36 44 46 61	15 43	7, 8 25	47	47	3 18 49	5 15		8	4 19 25 47 48 54	34	8	8 36	1, 6 30 36 37 39 40 42 43 44 49 50	15	43	8 43	8 42 43	17 43	39	60	44 60	
IKASLEAK																										
1.																										
2.																										
3.																										
4.																										
5.																										
6.																										
7.																										
8.																										
9.																										
10.																										
11.																										
12.																										
13.																										
14.																										
15.																										
16.																										
17.																										
18.																										
25.																										

TXANELA 1.5 : GORPUTZA ZAIN DEZAGUN!

(Proposamena: unitatea bost astetan garatzeko plangintza)

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
<p>Azalaren behatzea</p> <p>Komikia</p> <p>Abestia: Putzutun</p>	<p>Komikia asmatu</p> <p>Bertsoa: katarro txar batekin</p>	<p>Zer dakizu gorputzari eta elikadurari buruz?</p> <p>Gorputzaren eta janariaren txokoa</p> <p>Letra-zopa</p>	<p>Gorputzaren irudikapena</p> <p>Elkartasun jolasa</p>	<p>Gorputz-atalak identifikatu eta izendatu.</p> <p>Bertsoa. Buru gaineko lapiko honetan.</p> <p>Artikulazioak</p>
<p>Igarkizunak</p> <p>Gorputz atalak</p> <p><u>Cuento tradicional:</u> <u>Garbancito</u></p>	<p>Ni bezalakoak</p> <p>Nor da nor?</p> <p>Olerki misterioitsua</p>	<p><u>Our senses</u></p>	<p>Hezurdura</p> <p>Marra batzuk eginez</p>	<p>Proiektua: askari edo hamaiketako osasuntsua</p> <p>Bertsoa osatu</p> <p>Igarkizunak</p>
<p>Zer jakin behar dugu proiektua egiteko?</p> <p>Abestia. Goxokiak jan eta</p> <p>Nondik datoz elikagaiak?</p>	<p>Elikagaien piramidea.</p> <p>Otorduak: menua idatzi.</p> <p>Denetik jan behar dugu</p>	<p><u>Garbancito: Juegos de vocabulario.</u></p> <p>Zer jango dugu?</p> <p>Erosketa-zerrenda</p> <p>Non erosiko ditugu elikagaiak?</p>	<p>Arduren banaketa</p> <p>San Blas eguneko opilaren errezeta</p> <p>Elkartasun-jolasa: jatetxe batean gaudela jolas gaitezen</p>	<p>Errezeta edo errezeta bilduma: irabiakia prestatu eta errezeta idatzi</p> <p>Bodegoia</p>
<p>Proiektua gauzatu</p>	<p>Proiektuaren komunikazioa eta balorazioa</p> <p>Otorduak: menuak aztertu eta oharra idatzi</p>	<p>Berria: heriotza</p> <p>Heriotzaren inguruko hausnarketa</p> <p>Olatu ezjakina</p>	<p>Gorputzaren barnealdea ezagutzen</p> <p>Digestioa</p> <p><u>Garbancito: Hacemos un collage</u></p>	<p>Prozesua berridatzi</p> <p>Abestia: gorputza barrutik</p> <p>Hitz gurutzatuak</p>
<p>Gure gorputza makina perfektua</p> <p>Olerkia: Gure gorputza ez dago hutsa</p> <p><u>Garbancito:</u> <u>variaciones del cuento</u></p>	<p>Puzkerrak eta ohitura osasuntsuak</p> <p>Ipuina: Maripuzker eta Mirenpinpirin</p>	<p>Hortzak zaintzeko hainbat aholku</p> <p>Zorriak</p>	<p>Puzkerrak eta ohitura osasuntsuak: galdetegiaren erantzuna eta elkarriketa</p> <p>Komikia</p>	<p>Zer dakizu orain gorputzari eta elikadurari buruz?</p> <p>Iksitakoa baloratzen</p>

IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkartea hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardatzutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkartek garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduera sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** (www.txanela.net). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoan, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara-Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** (www.ostadar.net). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduera zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Irakasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoan, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

* * * * *

Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkartek eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduera ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzailerak, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitaletan edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

TXANELA 1

IKASLEAREN LIBURUA - 5. UNITATE DIDAKTIKOA

BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA	OHARRAK
0		Baliabideen taula	3	71	
1		Azalari behatzea eta elkarrizketa	3	71	
1		Aurrean duzun janari hori	3	71	
2		Komikia	4-5	72-73	
3		<i>Katarro txar batekin bertsoa</i>	5	73	Irakurgaiak 1, 48. or.
3		<i>Triste bizi naiz eta doinua</i>	5	73	
5		Putzulan letra	5	73	
5		<i>Putzulan</i>	5	73	
6		Zer dakigu gorputza eta elikadurari buruz?	6	74	
7		Gurasoentzako gutuna	6	74	
8		Gorputzaren irudikapena	7	75	
9		Dantzara txalo joka	7	75	
13		Bertsoak	7	75	Irakurgaiak 1, 49. or
13		<i>Andre madalen doinua</i>	7	75	Irakurgaiak 1, 49. or.

14		Igarkizunak	7	75	Irakurgaiak 1, 50. or.
18		Como chirimbolo	7	75	
22		Ni bezalakoa	7	75	Irakurgaiak 1, 51. or.
23		Nor da nor?	7	75	Lan-koadernoa 1, 32. or
24		Our senses	8	76	
25		Hezurdura	9	77	
25		Gurasoentzako gutuna	9	77	
27		Proiektua: askari edo hamaiketako osasuntsua	10	78	
29		Gozokiak jan eta	11	79	
29		Gozokiak jan eta	11	79	
30		Elikagaien piramidea	12	80	
30		Elikagaien piramidea	12	80	
32		<i>Ama begira zazu doinua</i>	12	80	
34		Bodegoiak	12	80	
35		Gurasoei gutuna	12	80	
37		Zer jango dugu? Erosketa zerrenda	13	81	
37		Taula	13	81	
38		Non erosiko ditugu elikagaiak?	13	81	

39		Arduren banaketa	14	81	
39		Taula	14	81	
42		Gurasoentzako gutuna	14	81	
44		Proiektuaren komunikazioa eta balorazioa	15	82	
47		Olatu ezjakina	15	82	
47		Olatu ezjakina	15	82	
48		Gorputzaren barnealdea ezagutzen olerkia	16	83	
49		Digestioa	16	83	
49		Digestioa	16-17	83-84	
51		Gorputza barrutik	21	88	
51		Gorputza barrutik	21	88	
53		Gure gorputza makina perfektua	18-19	85-86	
54		Gure gorputza ez dago hutsa	19	86	
55		Puzkerrak	20	87	
55		Puzkerrak	20	87	
55		Ebeko ohiturak aztertzeke galdetegia	20	87	
59		Buellako komikia	22	89	
61		Egindakoa berrikusten	24	91	

JARDUERAK

1. JARDUERA SEKUENTZIA. Gaiaren aurre-ezagutzak aktibatu, motibazioa sustatu eta aurreikuspen-estrategiak landu.

1. jarduera	AZALARI BEHATZEA ETA ELKARRIZKETA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
<p>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i>, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzaren eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
<p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>1.3.4 Elkarrizketaren oinarriko arau sozio-komunikatiboak behar bezala aplikatzen saiatzen da (txanda gorde, hitza eskatu, solaskideak errespetatu...).</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian eta talde handian
MATERIALA	Txanela 1.5 unitateko azala eta taldeko lanean rola banatzeko txartelak
AZALPENA	

- Gelako arduradunek liburuak banatuko dituzte eta ikasleei denbora-tarte bat eskainiko die liburua ikusteko eta beren izena idazteko.
- Ondoren, unitate osoaren eta batez ere azalaren behaketa eta elkarrizketa bultzatuko ditugu. Haurren interesari jarraituz eta erronka kognitiboa bultzatuz, aurreikuspen-estrategiak lantzea eta gaiarekiko motibazioa sortzea izango dugu helburu. Oraingoan elkarrizketa talde txikian bideratuko dugu.
- Ikasleak talde txikian jarriko ditugu (3 edo 4 ikasle). Behaketa bideratzeko, talde bakoitzari galdera bat luzatuko diogu. Galderak honako hauek izan daitezke:
 - Zer jartzen du liburuen azalean? Oraingoan nora bidaiatuko dute Maddalenek eta Ferminek?
 - Zer ikasiko dute gorputzari buruz?
 - Zer egingo dugu ikasitakoarekin? Aurreko gaietan bezala, proiektu bat egingo dugu. Zer izango da?
 - Azala. Zer ikusten duzue liburuen azalean? Azken galdera horri erantzuten saiatzen den taldearekin bideratuko dugu, nagusiki, azalaren inguruko elkarrizketa, nahiz eta besteei ekarpenak egiteko aukera eskaini.
- Talde txikiko elkarrizketa antolatzeke kide bakoitzari honako funtzio hauetako bat emango diogu:
 - Moderatzailea.* Talde txikian dauden bitartean, hitz egiteko txandak emango ditu.
 - Denbora-kontrolatzailea.* Irakasleak denbora muga bat jarriko du talde txikiko elkarrizketa egiteko, eta ikasle horrek taldeari zenbat denbora pasa den edo geratzen den adierazi beharko dio; adibidez: denbora erdia pasa denean eta bi minutu geratzen direnean. Horretarako, kronometroak beharko dira.
 - Esataria(k).* Taldean pentsatutakoa adierazi egingo diote talde handiari.
 - Idazkaria.* Taldean esandakoak idatzi egingo ditu. Zuen ikasle taldea rol hori betetzeko prest ez badago, bi esatari izendatuko ditugu eta idazkariaren rola aurrerago beteko dute. Izan ere, ikasle horrek idatziko duena, esatariak irakurtzeko eta ulertzeko modukoa izan behar du.
- Komeni da ikasle bakoitzari bere funtzioa gogoraziko dion irudia ematea. Irudiak plastifikatu, goiko aldea zulatu eta soka jartzen badiegu, lepotik zintzilikatu ahal izango dituzte ikasleak.
- Denborari dagokionez, 8-10 minutu nahikoa izango dela uste dugu. Irakasleak, bitartean, talde guztietatik pasa, eta ikasleei beren funtzioa betetzen lagunduko die.
- Talde txikiko elkarrizketa bukatzean, ikasle guztiak bilduko ditugu biribilean. Talde bakoitzeko esatariak taldean pentsatutakoa adieraziko dio talde handiari. Ondoren, talde handiari ekarpenak egiteko txanda emango diogu.
- Irakasleak ikasleen interesari jarraituz, eta curriculumaren beharrak aurreikusiz, azalari buruzko elkarrizketa bideratuko du. (ikus *Elkarrizketa bideratzeko irizpideak* dokumentua). Azala aztertu duen taldearentzako galderak:
 - Zer azaltzen da azaleko txartel zurietan? (janaria) Nola dute izena elikagai horiek? Dastatu al dituzue inoiz? Gustuko al dituzue? Dastatu ez dituzuenok, gustura dastatuko zenituzkete?
 - Gorputza baldin bada landuko dugun gaia, zergatik jarri dizkigute elikagaien irudiak azalean? Zuen ustez, zertarako jaten dugu? Zuen ustez zer gertatzen da elikagai horiekin, jaten ditugunean, gorputzaren barruan daudenean?
 - Ezagutzen al duzue azaleko haurra? Izena ba al dakizue? Zer pentsatzen ari da Maddalen? Zuek nola sentitzen zarete? Ba al duzue gogorik janariari buruz eta gorputzari buruz gauza berriak ikasteko?
- Bukatzeko, talde handian keinu-adierazpena lantzeko jolasa egingo dugu. Azalean Maddalen janariz inguratua, oso pozik ikusten dugu. Baina guri, jaki guztiak atsegin al zaizkigu?

- Gelako neska-mutil batzuk, (bost edo) zutik jarriko dira. Irakasleak, edo ikasle batek, janari bat aipatuko du, adibidez: babarrunak; patata-tortilla, sagar-tarta, e.a. Keinuak baliatuta, neska-mutil horiek, beste guztiei adierazi behar diete asko, gutxi edo batere ez zaiela atsegin. Ariketa hori, denek egin behar dute, beti bezala, eta saiatu behar dugu hainbat keinu erabiltzen.
- Jarduera honekin, haur hezkuntzan ikasi zuten *Aurrean duzun janari hori* abestia errepara dezakegu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

2. jarduera	KOMIKIA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea</i> eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i> .	
1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren <i>testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea</i> .	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikus puntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziarik erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)	
1.6.3 Hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia egoki interpretatzen du.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka eta talde handian
MATERIALA	Liburuko 4-5 orrialdeak
AZALPENA	

- Aurreko unitateko komikian zer gertatu den gogoratuz hasiko gara.
 - *Gogoratzen al zarete zer gertatu zen aurreko unitateko komikietan? Nora joan ziren? Funtzionatu al zuen makinak? Zer ekarri zuten lehen gizakiaren garaitik? Zer uste duzue gertatuko dela orain? Beste bidaia bat egingo ote dute? Zergatik?*
- Irakurtzen hasi aurretik, izenburuari so egingo diogu eta elkarrekin irakurriko dugu. Gertatuko denaren inguruko hipotesiak egin eta esateko eskatuko diegu. *Porru* hitzari erreparatuko diogu:
 - *Zer gertatuko zaie gure pertsonaiei oraingo honetan Zer da porru bat? Zer esan nahi du, orduan, porru eginda egoteak? Zuek egon al zarete inoiz porru eginda? Nola sentitu zineten? Joan al zarete inoiz sendagilearengana? Zergatik?*
- Haurrei banaka komikia ikusteko/irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu, eta beren ideiak jasoko ditugu:
 - *Zer daukagu orrialde hauetan? (Komikia). Zer adierazi nahi du puntadun globoak?*
 - *Laukietan agertzen diren mezuak zertarako ote dira?*
- Ondoren, binetaz bineta, xehetasunetara joz, talde handian egingo dugu irakurketa. Hizkuntzaren eta komikiaren baliabideetan (harridurak, zurrunbiloak...) arreta jartzeaz gain, esanguratsuak iruditzen zaizkigun gertakizunei buruz mintzatuko gara:
 - *Joan al zarete inoiz sendagilearengana? Zergatik? Zer uste duzue egingo duela Maddalenek Fermin bisitatzea joaten denean?*
- Haurren irakurketa-mailan aldeak izango dira; beraz, hasiera batean, taldean behatu eta irakaslearen laguntzarekin (edo irakasleak) irakurri egingo du(gu).

- Gelakideen mailaren arabera, bosteko taldeak antolatu eta haur bakoitzari rol bat emanaz (Fermin, Maddalen eta sendagilea) irakurriko dute talde txikian. Irakurketa hori pertsonaia bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin saioak egin edo etxean saioa egin edo irakurri ondoren egin daiteke; bestela, talde berean rolak txandatu, bost irakurketa eginez.
- Komikia antzezterakoan, hizkuntza-maila ona duten ikasleak aukeratuko ditugu lehenengo, edo beren burua boluntario aurkezten dutenak. Antzezpena aberasteko telefonoak, sendagilez mozorrotzeko zerbait eta liburua erabil daitezke. Istorioaren hariari jarraitzen dioten bitartean ez da beharrezkoa izango ikasleek liburuan azaltzen den testu bera errepikatzea. Testuaz gogoratzen ez badira, edo beste aukerarik bururatzen ez bazaie, taldeari laguntza eskatuko diogu. Jarraitu komikia antzeztan ikasleen interesak irauten duen bitartean.
- Bukaeran, sintesi txiki bat egingo dugu eta aurreko komikiekin lotuko dugu gaiaren jarraipena eginaz.
 - *Aurreko komikian Maddalen eta Fermin Lehen Gizakiaren garaira joan ziren, orain berriz, bidaiatuko al dute? Zergatik?*
 - *Ba al du zerikusirik komikian gertatu denak unitatearen azalarekin?*
- Maddaleni eta Fermini gertatuko zaiena aurreikustea eskatuko diegu eta hipotesiak idatziz jasoko ditugu. Hurrengo komikia irakurtzerakoan, gogora ekarriko ditugu.
 - *Maddalen Fermin bisitatzera joango al da? Zer uste duzue egingo duela Maddalenek Fermin bisitatzera joaten denean?*
- Hitz ezagunak (gakoak) bilatzera jolastuko gara: haur bakoitzari hitz bat (TRIPAKO MINEZ, BOTAGURA, PUZKERRA, MIHIA, TXANTXARRA, GORPUTZA...) eskatu, eta komikian barrena non dagoen bilatu eta aurkitu beharko luke. Ariketa hori, nahi baduzue, haurrak binaka jarrita ere egin dezakezue (saia zaitezte antzeko maila duten haurrak elkartzen). Galdetu haurrei nola konturatu diren eskatutako hitza zein zen. Beharra ikusiz gero, hitz horiek arbelean idatzi, txalokatu, silabetan zatitu eta guztion artean irakurri berriro.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

3. jarduera	KATARRO TXAR BATEKIN	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</p> <p>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>3.2.2 Abesti errazak aho batez interpretatzen ditu eta buruz ikasten ditu..</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Irakurgaiak 48. orrialdea	
AZALPENA		

Bertso horren bidez, komikian azaldu den eta unitatean zehar aztertuko dugun alderdia, gorputza eta bere zaintza, agerian jartzen zaigu. Horrez gain, errimaren behaketa egingo dugu eta -TIK bukaera duten hitzak gogora ekarri eta idatziko ditugu behaketa eta erreferentziak indartzeko. Bukatzeko, gako-hitzak izan daitezkeenak bilatzera jolastuko gara, eta bertsoa abestuko dugu.

- Irakurtzen hasi aurretik, izenburua irakurri, ilustrazioari behatu eta testuaren esanahiari buruzko hipotesiak egingo ditugu. *Irudiari begiratu eta pentsatu: zer esango digu bertsoak? Zergatik egingo ote du haurrak negar? Zuei inoiz jarri al dizuete injekzioak? Zertarako?*
- Txanela.net-en 4. unitatean 6. jardueran bertsoa word formatuan aurkituko duzu, eta liburu digitalean PDFan.
- Behar izanez gero, irakasleak bertsozale.com web-orrian (esteka, liburu digitalean), bertso doinutegian *Triste bizi naiz eta bilatuko du eta hurrei musika bi edo hiru aldiz entzuteko esango die*. Ondoren, musika horrekin abestu daitekeen bertsoa aurkeztuko die (arbelean edo proiektatuta, baina hurrek liburua eskuan dutela).
- Ikasleek bakarrik eta isilean bertsoa irakurriko dute. Ondoren, irakasleak bertsoa abestuko du. Berriz abestuko du, oraingoan, ahoskatzen ari den zatia eskuekin seinalatuz. Hurrekin batera, bitan edo hirutan abestuko du (nahi bada, zatikatuz).
- Esanahiari erreparatuko diogu: *Zer dio bertsoak? Asmatu al dugu irakurtzen hasi aurretik egin ditugun hipotesiekin?*
- Errimen behaketa bultzatuko dugu: -TIK bukaera duten hitzak esatera animatu eta arbelean idatzi eta behatu. Asmatzen ez badituzte, definizio errazen bidez lagundu; adibidez: *Nondik sartzen da haria jostorratzean?* (ZULOTIK)
- Bertsoa zertxobait ikasi dutela, hitz ezagunak (gakoak) bilatzera jolas gaitzke (KATARRO, ATXIS, MAILKOAK, SENDAGILEA, TXISTA...) eta bertsoan barrena non dagoen bilatu eta aurkitu beharko lituzkete. Ariketa hori, nahi baduzue, haurrak binaka jarrita ere egin dezakezue.
- Hizkuntza idatziaren deskodetzea gehiago landu nahi izanez gero, buruz ikasitako bertsoa binaka berreraikitzea eska diezaiekegu hurrei. Horretarako, irakasleak bertsoa fotokopiatu, lau edo zortzi zatitan moztu, eta ikasleen lana izango da zati horiek ordenan paperean itsastea. Bukatzean, ikasleek beraiek zuzenketa egin dezakete, testu originalari behatuz.
- Azkenik, bertsoa abestu guztion artean.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

4. jarduera	KOMIKIA ASMATU	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.</p> <p>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia- fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarrizko ezaugarriak hautemanaz.</p> <p>3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian	
MATERIALA	Lan-koadernoko 29. orrialdea eta lan-koadernoko orriaren kopiak, A3 neurrian	
AZALPENA		

Fermin gaixorik dago eta irakurri dugun bertsoan katarro kontuak ere aipatzen dira. Gai horren inguruan komiki bat marraztu eta beren modura idazteko eskatuko diegu haurrak hiruak jarrita.

- Lehenbizi, ikasleei lan-koadernoko orria erakutsi eta beren ustez zer testu mota idatziko dugun galdetuko diegu. Erantzun zuzena emanez gero (KOMIKIA), nola edo zertan oinarrituta asmatu duten galdetuko diegu. Testu motaren inguruko elkarrizketa horretan, bineta eta globoa zer diren argituko dugu.
- Irakasleak, ikasleek liburua aurrean dutela, lan-koadernoko jardueraren argibideak irakurriko dizkie haurrei. Ondoren, berak asmatutako komikia erakutsi eta irakurriko die haurrei.
- Ikasleak hiruak eseriko dira eta Ferminen nori eta zer esateko deitzen dion pentsatuko dute; adibidez:
 - *Kaixo Manex, Fermin naiz. Eztarriko mina dut.*
 - *Orduan, ez zara parkera etorriko?*
 - *Ez sendagilearengana joango naiz nire aitarekin.*
 - *Bale, bale. Agur eta azkar sendatu!*
- Hiruren artean, idazkari eta marrazkilaria-lanak banatuz, hiru binetak marraztu eta globoak idatziko dituzte. Adibidez, ikasle batek marrazki bat egiten duen bitartean, beste bi ikasleen artean testua idatzi dezakete arbel zurian. Ondoren, adostutako testua kopiatu eta bukatzeko biribil batez inguratuko dute.
- Bukatzeko, talde bakoitzak bere komikia irakurriko du talde handian. Komiki guztiak grapatu, eta gelako liburutegian utz dezakegu guztion artean egindako liburuxka. Nahi izanez gero, komiki bakoitzaren lau kopia egin daitezke, A4 neurrian, ikasle bakoitzak taldean egindako lanaren kopia izan dezan.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

5. jarduera	ABESTIA: PUTZUTAN	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere. 3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du. 3.2.1 Ahotsaren, gorputzaren eta objektuen soinu-aukerak eta naturako soinuak aztertzen ditu. 3.2.8 Ahozko adierazpenarekin, musika-tresnen adierazpenarekin eta gorputz-adierazpenarekin gozaten du eta dagokionean sentimenduak adierazten ditu.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Abestien CDa, 20. pista	
AZALPENA		

Abesti hori oso egokia da gorputz adierazpena lantzeko.

- Lehenik eta behin CDa jarriko dugu, ikasleek abestia entzun dezaten.
- Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikarik gabe ikasleek hitzak esaldika errepikatuko dituzte. Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin. Esaldiak keinu jakin batekin lotuz, hitzak hobeto gogoratuko dituzte.
- Abestia ikasi ondoren, ikasleak launaka biribil batean jarriko dira. Erdian putzu bat dagoela irudikatuko dute eta abestearekin batera egoera keinu bidez adieraziko dute.
- Ikasleei kodean arreta jartzen laguntzeko, abestia proiektatu edo arbelean idatz dezakezu. Kodearen inguruko behaketa bultzatzeko, ahoskatzen ari den zatia eskuarekin seinalatzeaz gain, hainbat aldiz errepikatzen diren hitzak ("atxis" eta "Jesus") koloreekin inguratu eta zenbat aldiz errepikatzen diren zenbatuko dugu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

6. jarduera	ZER DAKIZU GORPUTZARI ETA ELIKADURARI BURUZ?	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatur. 4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzaren eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarritzko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez. 4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian	
MATERIALA	Liburuko 6. orrialdea	
AZALPENA		

- Beste sekuentzietara jo aurretik, ikasleek gaiari buruz dakitena plazaratuko dugu. Oso garrantzitsua da kontuan hartzea ikasleen arteko eztabaidarako unea dela, eta ez erantzun guztiak ematekoa.
- Ezertan hasi aurretik, liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: goian eta ezkerrean azaltzen den galderaren esanahia eta galdera-ikurra, orrialdearen erdialdean azaltzen den txartela, lauki horietan dauden testuak eta marraz dituzten lauki grisak. Inguruan dauden lerroetan gorputza eta janariari buruz dakitena idatziko dugula esango diegu.
- Kontzeptuak eta horien arteko loturak nola adierazten diren, ez diegu, oraingoan, azalduko. Unitatearen bukaeran denon artean kontzeptu-mapa osatuko dugu eta orduan izango dugu aukera kontzeptu-mapa zertan datzan era xume-xumean lantzeko. Beraz, une honetan, ezta bukaeran ere, ez gara arituko, kontzeptu-mapen eraikuntza sistematikoki irakasten.

- Ikasleak launaka jarriko ditugu eta ikasleei gorputzari buruz zer dakiten jakiteko galdeketa bat antolatuko dutela esango diogu. Irakasleak lehenengo galdera idatziko du arbelean, hitz gakoa azpimarratuz. Ondoren, irakasleak talde guztiei galdera luzatuko die. Ikasleek, orduan, denbora-tartea izango dute beren artean erantzuna adosteko. Erantzuna ez badakite, egiazat har daitekeen hipotesia asmatu dezakete. Talde guztiek, txandaka, talde txikian adostutakoa talde handian plazaratuko dute. Bukatzeko, hurrek banaka edo binaka beren liburuetan taldean entzundakoa edo beraiek pentsatzen dutena idatziko dute. Beraz, ikasleek hitzak edo hitz pareak idatziko dituzte. Bikoteak egiterakoan, idazketa-maila antzekoa duten ikasleak elkarrekin jartzea komeni da. Bestela, ikasle batek bestea *tutorizatze*ko arriskua dago. Idazketa alfabetikora iritsi ez diren ikasleen produkzioak tarteka, ahal den neurrian, transkribatzen jarraituko dugu.
- Galdera guztiekin jarraituko dugun prozesua honako hau izango da: galdera irakurri, hitz gakoa birbildu, galdera luzatu talde txikiei, talde txikietan erantzunak adostu, talde bakoitzeko erantzuna entzun eta banaka edo binaka erantzunak idatzi. Talde txikietan dauden bitartean, irakaslea inguruan ibiliko da zer dakiten eta zer interesatzen zaien identifikatzeko.
- Bukatzeko, idatzi ez dugun zerbait ote dakiten galdetuko diegu. Ikasleen ekarpenak arretaz entzun eta positiboki balioetsiko ditugu.
- Liburua itxi aurretik txoko zuriaren ikurrari erreparatuko diogu. Zertarako? Gehiago ikasteko eta gehiago jakiteko. (Ikusi hurrengo jarduera)

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

7. jarduera	GORPUTZAREN ETA ELIKADURAREN TXOKOA (Ikusi Txoko zuria dokumentua)	
ZIKLOKO HELBURUA(K)	<p>1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) ahozko aurkezpen sinpleak egitea eskainitako jarraibideen laguntzaz.</p> <p>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	<p>1.4.3 Era ulergarrian eta erraztasun nahikoarekin adierazten ditu ideiak.</p> <p>2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 6. orrialdea, eranskinetan aurkituko duzun familientzako gutuna eta gaiaren inguruko materiala (liburuak, posterrak, puzzleak, bideoak, mozzorroak, errezeta bildumak, jostailuzko janaria...)	
AZALPENA		

- Oraingo honetan txoko zuria, gorputza eta janariaren txokoa bihurtuko dugu. Beraz, txokoa antolatzen hasiko gara.
- Ikasleekin batera izenburua idatzi, apaindu eta zintzilikatuko dugu. Bestalde, irakasleak ekarritako zerbait txokoa kokatuko du, ikasleek txokoaren izaera irudikatzen has daitezen.
- Gurasoei gutun bat idatziko diegu Maddalen eta Ferminen izenean, landu behar dugun gaia agertzeko eta materiala eskatzeko. Gogoratu, etxera bidali aurretik guztion artean gutuna irakurri behar duzuela. Gutuna gidaren bukaeran aurkituko duzue.
- Hainbat material jar dezakegu txokoa osatzeko: gaiaren inguruko liburu espezifikokoak, ipuinak, argazkiak, erradiografiak, puzzleak, errezetak, sukaldari-, erizain- edo sendagile-mozorroak, jostailuzko janaria, pisua... e.a.
- Txoko honetara hainbat hizkuntzetan argitaratutako materiala etorriko zaigu, dudarik gabe. Gaztelania lantzeko premia dagoen tokietan, ekartzen dituzten ipuinez, bideoez, etab. baliu zaitzekete, baita ere, proposamena indartzeko. Ingeleseko kasuan beste hainbeste egin daiteke.
- Irakasleak ziurtatu beharko du txokoa ondo hornituta dagoela, batez ere, taldeko lana egiteko talde bakoitzeko informazio-liburu bat dagoela ziurtatuko du. Beraz, ikasleek ekartzen ez duten materiala ikastolak eskuratuko du, edo beste geletara ekarritakoa bilduko dugu hainbat jarduera egiteko orduan. Irakasleok ikasleak materiala ekartzera eta aurkeztera animatuko ditugu. Horrela, ekarritako materiala besteen eskura jarri eta azalduz, txokoa eratzen parte hartuko dute. Irakaslearen lana, kudeaketa erraztuko duten tresnak eskaintzea eta lanen jarraipena egitea izango da.
- Ikasleek, materiala ekarri, proposatzen den jardueraren arabera baliatu eta aurkezpenak egingo dituzte. Ikasle guztiek ezingo dute aurkeztu txokora ekarritako materiala. Hala ere, aurkezpenak egin dituzten ikasleen izenak idatziz jasoko ditugu. Ikasleek, irakasleak aurrez prestatutako tresnak erabiliz, ekarritako materialaren eta aurkezpenen kontrola idatzia jasoko dute. Bestalde, arratsaldero, etxera joan aurretik, arduradunak txokoa txukuntzeaz arduratuko dira.
- Informazio ikurra liburuan ikusten dugun bakoitzean, edo gehiago jakin nahi dugunean, gorputza eta janariaren txokora joko dugu, informazio bila eta halaxe jakinaraziko diegu ikasleei.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

2. JARDUERA SEKUENTZIA. Gorputza kanpotik: gorputz-atalak, zentzumenak eta norbere eta besteen gorputzaren ezaugarrien, ahalmenen eta mugen errespetua.

8. jarduera	ARTELANA: GORPUTZAREN IRUDIKAPENA (Arte hezkuntzarako jarduerak)	
ZIKLOKO HELBURUA(K)	<p>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</p> <p>3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea.</p> <p>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	<p>2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.</p> <p>3.3.4 Hainbat garai eta kulturatako irudiak eta arte-objektuak era bideratuan aztertzen ditu eta irudi eta objektu horiek sortu ziren testuinguruen ezaugarriei buruzko jakin-mina adierazten du.</p> <p>3.4.5 Lan plastikoetan egiturek, koloreek eta formek dituzten funtzioen eta aukeren behaketa bideratua egiten du.</p> <p>3.4.8 Materialak manipulatu eta aztertuz gozaten du.</p> <p>4.1.7 Lan-erritmo egokia izaten laguntzen du, eta saiatzeko da iraunkortasunez erritmoari eusten.</p> <p>4.1.8 Laneko materialak arretaz erabiltzen ditu eta jasotzen ditu.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Liburuko 7. orrialdea, kalkatzeko papera, ikasleen aurpegiko argazkien kopia DIN-A4an, aldizkari zaharrak eta buztina	
AZALPENA		

Orrialde horretan agertzen diren bi artelan, gorputzaren irudia ardatz duten bi irudi dira, biak oso ezagunak.

- Utzi hurrei denbora tartea orrialdeko elementu guztiei (irudien argazkiak, izenburuak, Maddalen, globoa, info ikurra...) ondo behatzeko. Ondoren, bideratutako behaketa egingo dugu.
- Artista bakoitzaren biografiak irakurri eta bi obrei ondo behatu ondoren, alderatzeko eskatuko diegu hurrei.
 - *Zer antzeko bereiztasun dituzte bi artelan horiek? (gorputza dute biek gaia eta bietan biluzik azaltzen dira, biak aspaldi eginikoak dira, figuratiboak eta oso errealistak dira eta nahi badugu egile biak ere oso ospetsuak direla aipa dezakegu, eurak, ziur aski, ez baitute jakingo). Zertan dira desberdinak? (bata pintura da eta bestea eskultura, bata gizonetzkoa da eta bestea emakumezkoa, kolorea...)*
- Informazio-iturrietara joko dugu: gorputza eta elikaduraren txokora. Bilaketa horren helburua garbi adieraziko diegu hurrei: giza gorputzaren irudikapenak ikusi nahi ditugu. Jasotako informazioarekin edo aurkitutako irudiekin taldeko elkarrizketa egitea komeni da.
- Liburuan aurkeztu ditugunez gain, oso interesgarria litzateke gelara giza gorputza edo zatien irudikapenak eskuratzea, behatzea, konparatzea.... Haurren bistan edo eskura jar itzazue.
- Txanela.net-eko 4. unitateko 23. jardueran eta liburu digitalean Michelangelo Buonarroti eta Francisco de Goya y Lucientes margolarien buruzko zertzeladak ikasleei ezagutarazteko PDFak eta estekak aurkituko dituzue. Bi artista horien informazio idatziaz gainera, informazio grafikoa ere badago.
- Guk ere, gorputzak biluzik irudika ditzakegu. Artelanei behatuz, interpretazio librea egin eta bakoitzak bere/edozeinen marrazkia egin margolan eta eskultura horietan oinarrituta.
- Honako jarduera hauek aurpegiaren/buruaren irudikapenarekin zerikusia dute. Aurpegia/burua (bertan ditugun zentzumen organoei behatuz) abiapuntutzat hartuta, behaketa fina bideratzen saia zaitezte, xehetasunak (ilearen testura, atalen proportzioak, begien, sudurraren eta belarrien kokapena, koloreak...) aztertu, eta horiek nola molda daitezkeen eztabaidatu, frogak egin...
 - **Aurpegiak kalkatu.** Jarduera hau binaka, eta ateko edo leihoko kristalean egin daiteke, baina zenbaitetan zaila da haurren altuerara egokitzen den arriskurik gabeko kristala topatzea. Paper begetala eta errotulagailu egokiak ere behar dira. Kristalean paper gardena itsatsi zinta eransgarriarekin, eta kristalaren alde batean modelo papera egingo duen haurra kokatuko da, kristaletik oso gertu eta erabakitako posizioan (aurretik, albotik, atzera begira...). Kristalaren beste aldean margolaria jarriko da eta paperaren gainean beste haurren aurpegia edo burua kalkatuko du. Kristalaren baldintzak egokiak ez badira, emaitza dotoreagoa (zuzeneko kalkoaren grazia falta badezake ere) lortuko dugu era honetan: haur bakoitzaren aurpegiaren argazkia A4 neurriari handituz fotokopiatu. Haur bakoitzari eman kalkatzeko orria, jar dezala argazkiaren gainean eta bere irudiaren profila kalka dezala. Erabili dugun argazkiaren fotokopiarekin, beste lan bat egin dezakegu: atzetik (parte zuritik) zerranda paralelo horizontalak (2-3 cm) marraztu arkatzarekin eta erregelearekin. Haurrek zerrendak moztuko dituzte (edo geuk kuter batekin) eta koloredun kartoi mehe batean itsatsiz, bakoitzak bere aurpegia berreraikiko du. Sistema horrekin, haur desberdinen zatiak elkartuta, gauza dibertigarriak ateratzen dira.

Beste aukera, aurpegia erditik moztu (bertikalki, horizontalki, diagonalean...), kartoi mehe edo paper batean itsatsi eta hainbat erataro osa dezakegu (beste erdia marratuaz, beste lagun baten aurpegi erdia itsatsiaz...). Haurren aurpegiarekin egin beharrean gauza bera egin dezakegu aldizkarietako aurpegi (ile-apaindegietako aldizkariak dira egokienetakoak honetarako) nahiz gorputz osoko irudiekin.

Kalkatzeko paperean markatu dugun profila hartuko dugu orain, eta atzetik paper zuria jarrita fotokopiatu egingo dugu. Fotokopian haurren profila aterako zaigu (bat baino gehiago egin dezakegu haur bakoitzarentzat) eta nahi dugun teknikaz margotu dezakegu (argizaria, pastela/klera, errotulagailua, arkatza...). Egin dezakegun beste lan bat eraldaketa da. Eta beste kolore batekoa banintz? Guztiok desberdinak garela lantzen dugunean, desberdintzen gaituen gauza bat azalaren kolorea izan daitekeenez, jolas gaitzke geure burua beste kolorekoa balitz bezala margotzen. Nire azala horia balitz, beltza balitz... Azalaren kolorearekin bezala beste elementu batzuk aldatu ditzakegu: sudurra, begiak, ezpainak...

- **Aurpegia collagearen bidez osatu.** Gelara aldizkari zaharrak eramango ditugu eta hor agertzen diren argazki handietatik, begiak, belarriak, ahoak, sudurrak... moztuko ditugu. Ondoren, elementu horiek eta beste paper zatiak eta margoak erabiliz, bakoitzak aurpegi bat osatuko du.
- **Lagunen burua aurretik, atzetik eta albotik margotuz.** Hurrei hiru orri emango dizkiegu eta argizarizko margoak erabiliz, batean aurretik, bestean atzetik eta hirugarrenean albotik margotu beharko dute lagunaren burua. Atzeko eta alboko aldeak nolakoak diren jabetzeko ispiluen bidez, ukimenaren bidez... deskubritzeko aukera ematea proposatzen dizuegu. Bultzatu hurrei ilearen testura eta koloreak ongi behatu eta adieraztera.
- **Aurpegiaren marrazkia tenperaz.** A3 neurriko orri bat emango diegu hurrei, beren aurpegiaren marrazkia tenperaz margotzeko. Aurpegiaren koloreak lortzeko, hurrek margoak nahastuko dituzte eta aurpegia koloreztatzeko aukeratutako koloreak orriaren azpialdean margotuko dituzte. Koloreen froga horiek egiteko orrian espazio bat markatuko diegu. Hori egiteko, makilajeko produktu merkeak ere erabil daitezke.
- **Buztinezko nire irudia.** Lehen aipatutako horretatik abiatuta, bakoitzak bere/edo lagun baten aurpegia buztinez eraikitzeko esango diegu. Busto bat egitea zail samarra da, eta gainera, labearekin arazoak izango genituzkeenez, orain arte landu dugun xaflatik abiatzea izango da egokiena. Xaflari aurpegi forma eman, edota sobera dauden zatiak kendu hainbat gauza egiteko: *txorizo* fin-finak eginez ilea, bolatxoei forma emanez sudurra, beste *txorizo* lodiagoekin ahoa, ebakidurak... (bakoitzak nahi duen bezala). Gogoratu hurrei, ondo geratzeko eta labean hautsi ez dadin, buztina aurretik ondo landu behar dutela. Norberaren aurpegia egiteko, ispiluak edukitzea komeni da.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

9. jarduera	GORPUTZAREN ZATIAK IDENTIFIKATU ETA IZENDATU	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</i></p> <p>1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i>, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari buruzkoak; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziarik gabeko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)</p> <p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>2.3.2 Jakin-mina adierazten du giza gorputzaren funtzionamenduaren inguruan, halaber gai da atal nagusiak identifikatu eta izendatzeko.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Jokoaren arabera, talde handian edo binaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 30. orrialdea, gorputza biluzik agertzen diren horma-irudiak, abestien CDa (21 pista) eta hiztegi txartelak egiteko post-itak edo kartoi mehe zatiak	
AZALPENA		

Jarduera honetan gorputz-atalak identifikatu eta izenak buruz ikasteko hainbat joko proposatzen dizkizuegu:

- Emakumezkoen eta gizonezkoen gorputza biluzik agertzen diren **horma-irudiak** gelara eramango ditugu, eta, lehenbizi, hiru zati nagusien banaketa aurkeztuko dugu, hau da, burua, enborra eta soin-adarrak. Ondoren gorputz-atalen izenak erreparatuko ditugu.
- Gorputzaren zatiak deskubritzeko, **txikitan ikasitako leloa** erabiliz, gorputz-atalak izendatuko ditugu. Leloa haurrek txandatuaz esango dute:

*Seinala, seinala ezazu
zure hatz bizkorrekin
zure...*
- **Gorputz-atalen hiztegi txartelak** egiteko, haur bakoitzari kartoi mehezko txarteltxo edo post-it bat emango diogu eta gorputzaren atal baten izena idazteko eskatuko diogu. Ondoren, belkroarekin, txartelak horma-irudian itsatsiko ditugu. Hainbat egunetan txartelak kendu eta bere tokian kokatuko ditugu, gorputzaren goitik beherako ordenari jarraituz edo behetik gorakoa edo letra gutxien/gehien dituen hitzarekin hasiz... (OINA, ESKUA, ZAKILA, IZTERRA...)
- **Memoria-jolasa.** Ikasleak biribilean jarriko dira. Ikasle batek gorputzaren atal baten izena esango du, atal hori seinalatuz. Hurrengo ikasleak aurretik esandako gorputz-atala eta beste atal bat gehiago esango ditu. Hurrengoak, aurretik esandako bi atalak esango ditu, eta beste atal bat gehiago. Gorputzaren atal baten izena gehitzen jarraituko dugu hamar izen jarraian esan arte. Orduan, berriro hasiko gara.
- **Burua buruarekin.** Ikasleak binaka jarriko dira. Irakasleak gorputz-atalen izenak esango ditu. Ondoren, ikasleek irakasleak esandako hitzak errepikatuko dituzte, gorputz-atal horiek elkar ukitzen duten bitartean. Adibidez, irakasleak esango du "orkatila, orkatilarekin" eta ikasleek hitz horiek errepikatzen dituzten bitartean beren orkatilak elkartuko dituzte. Gorputz-atal ezberdinen izenak erabili daitezke. Adibidez: "Sudurra bekainarekin" "oina belaunarekin"...
- **Abestia.** *Burua lepoa joka.* Lehenik eta behin CDa jarriko dugu, ikasleek abestia entzun dezaten. Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikaririk gabe ikasleek hitzak esaldika errepikatuko dituzte. Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin. Esaldiak keinu jakin batekin lotuz, hitzak hobeto gogoratuko dituzte.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

10. jarduera	ARTIKULAZIOAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>2.3.2 Jakin-mina adierazten du giza gorputzaren funtzionamenduaren inguruan, halaber gai da atal nagusiak identifikatu eta izendatzeko.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Enbalatzeko papera, artikulazioak lantzeko panpina egiteko txantiloia (lehen unitatearen eranskina)	
AZALPENA		

Artikulazioei dagokienean, ez dira oraingoz liburuan aurkeztu baina, egokia litzateke gelan lantzea.

- **Mugimenduaren aipamenetik** abiatuko gara: *Nola mugitzen da gure gorputza? Zer gertatuko litzateke besoa (adibidez) zurruna balitz? Nola idatziko genuke eskumuturrik gabe? Eta gure hatzak egurrezkoak balira? Nola jasoko genuke lurrera eroritako zerbait gerria makurtu ezinik?...*
- Bilatu artikulazio-puntuak eta **mugitu gelan** barrena horiek erabiliz, eta baita erabili gabe ere (erroboten moduan).
- Artikulazio nagusiak erabili ondoren (aldaka, sorbalda, ukondoa, belauna, eskumuturra eta orkatila), izendatu, eta nahi izanez gero, haur baten gorputzaren profila enbalatzeko paperean markatu, moztu eta **artikulazioen izenak geziz markatuz** aldamenean dagokion izena idatzi.
- Artikulazioak lantzeko **panpina bat** egin dezakegu. Panpina egiteko txantiloia lehenengo mailako lehenengo unitatearen eranskinetan aurkituko duzue.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

11. jarduera	GORPUTZ ATALAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarritzko unitateak (grafiafonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>2.3.2 Jakin-mina adierazten du giza gorputzaren funtzionamenduaren inguruan, halaber gai da atal nagusiak identifikatu eta izendatzeko.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 30. orrialdea	
AZALPENA		

Gorputzaren zatiak eta artikulazioak identifikatu eta izendatzeko hainbat jarduera egin ditugunez, oraingoan ikasleei dakizkiten izen horiek idatzeko eskatuko diegu. Ariketa honen bitartez, idazketaren biltze edo gogoratze funtzioa azpimarratuko dugu.

- Guztiek lan-koadernoan zabalik dutela, irakasleak galdetuko du:
 - *Zer egin beharko dugu hemen? Zeren izenak idatzi beharko ditugu? Begiratu ondo-ondo eta gogoratu dakizkizuen izenak.*
- Irakasleak eta ikasleek orrialdearen goiko aldean dagoen agindua irakurriko du(te).
- Ondoren, gorputzaren zati izenak idatziko dituzte banaka. Bukatzeko, beren lana ondoko lagunaren lanarekin aldera dezakete, bai idatzi dituzten izenen aldetik zein idazketaren aldetik.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

12. jarduera	LETRA ZOPA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea.</i></i></p> <p>2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisiko, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzea; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzuz, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)</p> <p>2.3.2 Jakin-mina adierazten du giza gorputzaren funtzionamenduaren inguruan, halaber gai da atal nagusiak identifikatu eta izendatzeko.</p>	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	
MATERIALA	Lan-koadernoko 31. orrialdea
AZALPENA	

Letra-zopa horretan hainbat gorputz-atalen izenak aurkitu beharko dituzte.

- Ezertan hasi aurretik, haurrei binaka jartzeko eta orrialdeari behatzeko eskatuko diegu.
- Ondoren, talde handian, elkarrizketatxo bultzatuko dugu:
 - Zer egin beharko dugu hemen? Zeren izenak bilatu beharko ditugu letra-zopan? Begiratu ondo-ondo geizetan dauden izenak? Ezagutzen al ditugu?
- Irakasleak goiko agindua irakurriko du zeregina argitzeko eta, ondoren, banan-banan guztion artean gorputz-atalen izenak irakurriko ditugu.
- Aurreko unitatean bezala, zutabeak eta lerroak zer diren argituko dugu eta hitzak bilatzeko estrategiak partekatuko ditugu.
- Ikasleak binaka jarriko ditugu, baina norberak bere fitxa izango du. Horrela, elkarri lagunduz izenak aurkitu beharko dituzte.
- Letra-zopa gehiago nahi badituzue, CD-ROMeko satora joan, baina jolasa aktibatze gogoratu lehenago hainbat jarduera egin beharko dituzuela.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

13. jarduera	BERTSOA: LEPO GAINEKO LAPIKO HONETAN
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</p> <p>2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.</p>
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziarik erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.3.2 Jakin-mina adierazten du giza gorputzaren funtzionamenduaren inguruan, halaber gai da atal nagusiak identifikatu eta izendatzeko.</p>
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	
MATERIALA	Irakurgaiak 49. orrialdea
AZALPENA	

Bertso honen bidez hainbat gorputz-atal izendatuko ditugu. Horrez gain errimaren behaketa egingo dugu eta -RRI bukaera duten hitzak gogora ekarri eta idatziko ditugu behaketa eta erreferentziarik indartzeko. Bukatzeko, gako-hitzak izan daitezkeenak bilatzera jolastuko gara eta bertsoa abestuko dugu.

- Behar izanez gero, irakasleak bertsozale.com web-orrian, bertso doinutegian edo liburu digitalean *Andre Madalen* bilatuko du eta hurrei musika bi edo hiru aldiz entzuteko esango die. Ondoren, musika horrekin abestu daitezkeen bertsoa aurkeztuko die (arbelean edo proiektatuta baina hurrek liburua eskuan dutela).
- Irakasleak bertsoa abestuko du. Berriz abestuko du, oraingoan, ahoskatzen ari den zatia eskuekin seinalatuz. Hurrekin batera, bitan edo hirutan abestuko du (nahi bada, zatikatuz).
- Esanahiari erreparatuko diogu: *Zer dio bertsoak?* Metafora bat azaltzen zaigula baliatuta (burua=lapikoa), gehiago asmatzera ere jolas gaitzke:
 - *Burua lapikoa bada, zer izan daiteke ahoa? Eta hankak? Eta sudurra?*
- Errimen behaketa bultzatuko dugu: -RRI bukaera duten hitzak esatera animatu eta arbelean idatzi eta behatu. Asmatzen ez badituzte, definizio errazen bidez lagundu. Adibidez: *Bazkaldu aurretik zer egin behar da?* MAHAIA JARRI, harri, jarri, etorri, ekarri, gorri...).
- Bertsoa zertxobait ikasi dutela, hitz ezagunak (gakoak) bilatzera jolas dezakegu: haur bakoitzari hitz bat (SUDUR, BELARRI, KOKOTS, EZTARRI...) eskatu eta bertsoan barrena non dagoen bilatu eta aurkitu beharko luke. Ariketa hori, nahi baduzue, haurrak binaka jarrita ere egin dezakezue (saia zaitezte antzeko maila duten haurrak elkartzeko). Galdetu hurrei nola konturatu diren eskatutako hitza zein den.
- Bukatzeko, bertsoa abestu guztion artean.
- Bertsoa, zati bat nahiz biak, haurren mailaren arabera, etxera eramanez dezanete etxekoei abesteko.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

14. jarduera	IGARKIZUNAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.1	Ahozko azalpen simple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzeekin, bizipenekin eta intereseekin zuzenean lotutako gaietarako buruzkoak).	
1.5	Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea .	
1.13	Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea , baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.	
2.3	Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzea; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoa, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.1.4	Entzundako testu baten oinarriko ideia batzuk gogoratzen ditu eta ahoz adierazten ditu haiei buruzko galdera zuzenean erantzunez.	
1.5.1	Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketa, analisis eta erreferentziarik erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)	
1.13.1	Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.	
2.3.2	Jakin-mina adierazten du giza gorputzaren funtzionamenduaren inguruan, halaber gai da atal nagusiak identifikatu eta izendatzeko.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Irakurgaiak 50. orrialdea	
AZALPENA		

Gorputz-atalen izenak eta ezaugarriak gogoratuz asmakizunetara jolastuko gara.

- Ikasleei orrialde horietan dauden marrazkiei arretaz begiratzeko eskatuko diegu. Denon artean ikusten dituzten gorputz-atalen izenak esango ditugu.
- Txanela.net-en 4. unitateko 33. jardueran edo liburu digitalean asmakizunak word formatuan aurkituko dituzu.
- Lehenik, bakarka edo binaka irakurtzen saia daitezela ikasleak.
- Irakasleak deskribapen bat irakurri eta testuan azaltzen diren hitz gako batzuk ikusaraziko dizkie ikasleei, (adibidez: garaje, baloia...) irakurtzen ez dakitenei pistak emateko.
- Igarkizun horiek galdera moduan idatzita daudenez, galdera-ikurraren behaketa egiteko baliatuko dugu.
- Deskribapen bakoitzari beren ustez dagokion atala aukeratzeko esango diegu. Ondoren, irakasleak deskribapena berriz irakurriko du aurreneko aukeraketa mantentzen duten edo ez erabakitzeko.
- Ikasle bati galdetuko diogu beren aukeraketaz. Ados ez dagoen beste bati zein aukeratu duen galdetuko diogu. Bi ikasle horien artean eztabaida sortzen saiatuko gara. Ikasle bakoitzak bere aukeraketarako arrazoiak eman beharko ditu. Erantzun egokia zein den erabaki ondoren, prozedura bera jarraituko dugu gainontzeko testuekin.
- Horiek asmatu ondoren, haurrek proposa ditzatela, ahoz edo idatziz, beste atalen inguruko igarkizunak. Horretarako irakasleak adibide bat edo beste jartzea komeni da.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

15. jarduera	ELKARTASUN JOLASA: PROFILEN JOKOA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.</p> <p>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzaren eta errespetu jarrikerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>2.5.1 Gelako kideen arteko harremanetan parte hartzen du.</p> <p>3.2.8 Ahozko adierazpenarekin, musika-tresnen adierazpenarekin eta gorputz-adierazpenarekin gozaten du eta dagokionean sentimenduak adierazten ditu.</p> <p>4.1.3 Taldekideekin berdintasunez eta errespetuz aritzen da lankidetzan.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Binaka	
MATERIALA	Egurrezko panpina artikulatuak, profilak horman marrazteko paper zuria, haurren begiak estaltzeko zapiak, musika eta alanbrea	
AZALPENA		

- Psikomotrizitate gelan, edota espazio handia dagoen gela bateko horman, haur guztien irudiak marrazteko adinako enbalatzeko papera itsatsiko dugu. Haur kopuruaren arabera, jokia txanda bakar batean edo bitan antola daiteke.
- Era errazean gorputzaren mugimenduak eta posturak nola adieraz ditzakegun galde diezaiekegu haurrei. Eredu gisa plastikako hainbat geletan egoten dira egurrezko panpina artikulatuak erabil ditzakegu.
- Gelakide erdien begiak estali aurretik, jokoaren nondik norakoa azalduko diegu haurrei. Ikasleak binaka jarriko dira eta batak besteari begiak estaliko dizkio. Irakasleak musika jarriko du eta ikasleak dantzan hasiko dira. Musika gelditzean, begiak estalita ez dituzten haurrek lagunaren profila marraztuko dute horman dagoen paperean. Jokoaren bukaeran begietako estalkia kendu eta beren profila zein den asmatu beharko dute. Beraz, musika gelditzean denean jartzen duten postura gogoratu behar dutela esan beharko zaie, jokoaren bukaeran beren profila zein den asmatu ahal izateko.
- Gela bi taldetan banatuko dugu. Gela erdiak, beste erdiari begietan estalkia jarriko die. Begiak estali gabe dituzten ikasleek, begiak estalita dituzten umeak hormaren ondoan kokatuko dituzte.
- Irakasleak musika jarriko du eta haur guztiak dantzan hasiko dira.
- Musika gelditzean denean, begiak estalita ez dituzten ikasleak bere bikotearen profila edo posturaren lerro garrantzitsuenak, paperean marraztuko ditu, errotulagailu lodia erabiliz.
- Begiak estalita dituzten ikasleak tokiz aldatu eta estalkia kenduko diegu. Orduan, agertzen diren posturari behatu ondoren, haur bakoitzak bere profila zein den asmatu beharko du.
- Nahi izanez gero, lagunaren aurrean postura berreraikiko du, besteek postura imitatzen dutela.
- Bukatzeko, oso adierazkorra eta emaitza politekoa izan daiteke alanbre malgu bat erabiliz forma horiek lantzea. Dena den, haurrei adierazi alanbrea behar bezala erabili behar dela, bestela, arriskutsua izan daitekeelako.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

16. jarduera	CUENTO TRADICIONAL: GARBANCITO	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.1 <i>Ahozko azalpen</i> simple eta kontestualizatuen <i>esanahi orokorra identifikatzea</i> (ezagutzeekin, bizipenekin eta intereseekin zuzenean lotutako gaiet buruzkoak).		
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.		
1.13 <i>Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea</i> , baita sentsibilitate estetikoaren garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.		
2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atsedena eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.1.2 Testuaren ulermen orokorrerako oinarritzko hizkuntza-elementuen esanahia interpretatzen du (lexikoa, lokuzioak...).		
1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntukoak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.		
1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.		
2.3.1 Norbere zein besteen gorputzaren eta nortasunaren ezaugarri komunak eta bereizgarriak, ahalmenak eta mugak ezagutzen ditu eta errespetua adierazten du bereizkeria saihestuz.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA		
AZALPENA		

- Aprovechando que estamos trabajando el tema del cuerpo y con el objetivo de promover el respeto y la aceptación de las características físicas de uno mismo y de los demás, os proponemos contar en francés o castellano el cuento de tradición oral titulado *Garbancito*. Si os interesa profundizar en este tema, encontraréis más cuentos en la colección ETA ZER? De la editorial Elkar.
- El cuento lo leerá el profesor despacio, en voz alta y haciendo varias pausas, para comprobar que los alumnos comprenden el texto. Después les pedirá que hagan hipótesis acerca de lo que sucederá a continuación.
- Las palabras subrayadas en amarillo corresponden a palabras claves, que el alumno deberá comprender para la correcta interpretación del texto.

GARBANCITO

Hace algún tiempo, existió un niño tan pequeño como un garbanzo. Por eso todo el mundo le llamaba Garbancito. Siempre estaba dispuesto a ayudar a sus padres en las tareas diarias.

–¡Garbancito!

–Sí mamá.

–Toma hijo, esta moneda y ve a comprar un paquetito de azafrán, pero ten mucho cuidado no vaya a pisarte alguien.

–No te preocupes mamá, como no me pueden ver iré cantando y así todo el mundo podrá oírme.

¡Pachín, pachán, pachín!

Mucho cuidado con lo que hacéis

¡Pachín, pachán, pachín!

A Garbancito no piséis.

En la tienda ocurría siempre lo mismo:

–Mirad, una moneda moviéndose en el suelo! Seguro que debajo está Garbancito. Garbancito, ¿que quieres?

–Quiero un paquetito de azafrán.

–Aquí tienes. Adiós.

De vuelta a casa repetía una y otra vez su canción, y todo aquel que se cruzaba con Garbancito ponía cuidado en no aplastar al pequeño.

¡Pachín, pachán, pachín!

Mucho cuidado con lo que hacéis

¡Pachín, pachán, pachín!

A Garbancito no piséis.

También en el campo, Garbancito ayudaba a su padre.

–Garbancito, te ayudaré a subir al caballo. –le decía su padre.

–Sí, yo treparé por el pelo hasta llegar a la oreja y me sentaré.

Garbancito daba órdenes tan contundentes al caballo que éste **obedecía** al instante y sin chistar, y mientras el pequeño hacía una de tantas **tareas**, su padre podía aprovechar el tiempo ocupándose de otra distinta.

Un buen día, el caballo estornudó y Garbancito se **cayó** del caballo encima de una **lechuga**.

–¡Aaaaaachis!

–¡Noooooo! ¡Ah, mi espalda, mi cabeza, mi culo! ¡Noooooo, Pestiña nooooooooooooo!

Pestiña, una **vaca** glotona se lo **comió** de un bocado. Los padres cuando se dieron cuenta que había desaparecido lo **buscaron** con desesperación durante tres días:

–¡Garbancito! ¿Dónde estás?

–¡Estoy aquí, mamá! En el **estómago** de la vaca Pestiña.

–¡Garbancito! ¿Dónde estás?

–¡Estoy aquí, papá! en el la tripita de la vaca Pestiña.

Por fin, oyeron la voz del pequeño que no dejaba de repetir desde el vientre de la vaca:

–¡Estoy aquí! En la tripita de la vaca Pestiña.

Los padres se apresuraron a dar mucha **comida** al animal, para que expulsara a Garbancito antes de que se asfixiara y después de mucho ingerir, Garbancito salió entre la **caca** de la vaca. Los papás le abrazaron, locos de **alegría**, e inmediatamente se fueron todos a la ducha mientras cantaban alegres y al unísono:

¡Pachín, pachán, pachín!
Mucho cuidado con lo que hacéis
¡Pachín, pachán, pachín!
A Garbancito no piséis.

ANTES DE LEER EL CUENTO

- Antes de empezar a leer, prestaremos atención al título.
 - *¿Sabéis lo que es garbancito? ¿y un garbancito? ¿Por qué le han puesto ese nombre al protagonista del cuento? ¿Qué os parece que le ocurrirá a Garbancito?*

DURANTE LA LECTURA

- *Ahora ya sabemos quien es Garbancito, ¿por qué el pusieron ese nombre?*
- *¿Será capaz Garbancito de ir a la tienda y comprar azafrán? ¿Como lo hará?*
- *¿Conseguirá salir del estómago de la vaca? ¿Cómo? A pesar de ser bajito, ¿cómo era Garbancito? (Trabajador, alegre, valiente...) ¿No es verdad también que las personas más bajas se esconden más fácil? ¿Os ha pasado eso a alguno de vosotros al jugar al escondite?*
- *¿Alguien os ha burlado alguna vez por vuestro aspecto físico? ¿Cómo os sentisteis? ¿Vosotros os habéis burlado de alguien por su aspecto?*

DESPUÉS DE LEER EL CUENTO

- El profesor pedirá a sus alumnos que formen parejas y repartirá a cada pareja una cartulina blanca (15 cm x 15 cm). Cada pareja dibujará una de las palabras que los alumnos deberán conocer y utilizar correctamente en las actividades que se le proponen. Por ejemplo: niño, niña, pequeño, mediano, grande, pelo, oreja, ojo, boca, nariz, vaca, caballo, lechuga, estómago, comida, comprar, caca, comer, trepar, aplastar, ayudar.
- De esta manera tendremos el vocabulario básico dibujado en tarjetas con las que podremos hacer juegos de vocabulario.
- Ver las siguientes actividades.

17. jarduera	DRAMATIZACIÓN DEL CUENTO
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.11 <i>Euskara</i> ohiko komunikazio-eremu eta egoera gehienetan <i>erabiltzea</i> , euskararen normalizazio eta euskal kulturaren transmisio-prozesuetan aktiboki parte hartuz.	
1.12 <i>Ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzea</i> nork bere kultura-nortasuna eraikitzeko eta, testu horietako adierazpen baliabide batzuk aztertuz, ulermen eta adierazpen gaitasunak aberasteko.	
4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.11.1 Eskola-inguruko komunikazio-eremuetan gertatzen diren pertsonen arteko harremanetan euskara erabiltzen du.	
1.12.1 Literatura izaeradun testu edo testu zati motzak (olerkiak, abestiak, bertsoak, testu dramatikoak), tradiziozkoak nahiz gaur egungoak, buruz ikasi eta ulertzeko moduan errezipitatu dituzte.	
4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	
MATERIALA	
AZALPENA	

En esta actividad vamos a representar el cuento. Todos los alumnos representarán y aprenderán las frases de todos los personajes. Para ello podéis utilizar el procedimiento que os presentamos a continuación. Si vuestra ikastola participa en el proyecto *Eleanitz*, os podemos asegurar que vuestros alumnos conocen esta forma de trabajar, pues es la manera en que aprenden los cuentos en educación infantil, tanto en inglés como en euskera.

En esta actividad es muy importante el papel del profesor. Por un lado tiene que ser dinamizador del grupo, con el objetivo de implicar a todos sus alumnos y alumnas en la representación. Para ello deberá aprender de memoria el guión del cuento. Por otro lado deberá ser moderador, con el objetivo de que los alumnos participen de manera adecuada en la representación.

- **Ritual de entrada.** Conviene presentar el cuento, mencionando a los personajes, recordando el argumento... De esta manera ayudaremos a nuestros alumnos y alumnas a centrarse en la actividad. Por otro lado el profesor recordará las normas acordadas: cada uno permanecerá en su sitio, escucharemos con atención, repetiremos las frases y gestos...
- **Dramatización del cuento.** Para comenzar a trabajar, coloca a los alumnos en U. Antes de empezar con la representación los alumnos deben estar en silencio. A cada personaje le corresponde su lugar, por lo tanto el profesor se moverá de derecha a izquierda según el personaje que esté representando (*protagonista a su izquierda y todos los demás a su derecha*). El narrador habla desde el centro, su tono es más neutro. Los gestos, cambios de voz, la expresión facial... ayudan a comprender el cuento. Ve contando el cuento despacio, haciendo pausas y dando tiempo a tus alumnos a que repitan frase por frase.
- **Ritual final.** Conviene ritualizar el final a través del uso de ciertas fórmulas. Por ejemplo "Colorín colorado este cuento se ha acabado."

18. jarduera	VOCABULARIO: EL CORRO CHIRINBOLO Y VEO-VEO
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</i>	
3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.3.6 Zuzentasun onargarriarekin hitz egiten du, gelan landutako erabilera okerrak (hiztegia, morfosintaxia...) identifikatuz eta zuzenduz (haurraren egoera sozio-linguistikoaren arabera).	
3.2.2 Abesti errazak aho batez interpretatzen ditu eta buruz ikasten ditu.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	
MATERIALA	
AZALPENA	

Esta vez recurriremos a Curro, el guacamayo amarillo primo de Urdintxo y Reddy, para introducir la actividad:

Hola amiguitos y amiguitas. ¿Qué tal estás? ¿Habéis comido mucho como Fermín y os duele la barriguita? Bueno, pues si no os duele nada, vamos a jugar al con nuestro cuerpecito. ¿Vale?

CORRO CHIRINBOLO

- Pondremos a los alumnos/as en círculo y les enseñaremos la canción. Para ello primero escucharemos la canción entera que encontraréis en la siguiente dirección de internet: <http://www.youtube.com/watch?v=ZlslzYAZBmM>
- Preguntaremos a nuestros alumnos/as si quieren aprender la canción. Si la respuesta es positiva el profesor repetirá la canción por frases y sin música para que sus alumnos repitan las frases y por último repetirá las frases con música y sus alumnos repetirán las frases con música. Finalmente cantarán todos juntos la canción.
- Los jugadores forman un círculo e irán girando según canten la canción. Al cantar "un pie, otro pie...", se sueltan todos de las manos y se van enseñando las partes del cuerpo según se nombran en la canción. Una variante de este juego es aquella en la que después de cantar "una oreja, otra oreja" se añade: "el codo de la vieja" y después se hacen cosquillas entre todos los jugadores.

*Al corro chirimbolo,
¡qué bonito es!
Un pie, otro pie,
una mano, otra mano,
un ojo, otro ojo,
la nariz y el gorro.
Una oreja otra oreja,
y el codo de la vieja.*

- Después entre todos, veremos cuantas partes de cuerpo recordamos. Empezaremos de arriba abajo señalaremos con el dedo una parte del cuerpo y a ver si acertamos su nombre...
- Esta actividad la podéis repetir en varias sesiones.

VEO - VEO

- Repasaremos nuestro cuerpo nombrando y renombrando las partes más importantes (según el vocabulario de que dispongan)
- Para saber quién empieza con el juego lo echaremos a suertes: **En la casa de Pinocho**, sólo cuentan hasta ocho: uno, dos, tres, cuatro, *cinco, seis, siete y ocho*.
- Un alumno comienza por escoger una parte del cuerpo y dice "veo veo", iniciando la siguiente secuencia entre la persona que escogió la parte del cuerpo, y los otros jugadores que intentarán adivinarlo:

–veo veo
–¿qué ves?
–una cosita
–¿qué cosita es?
–empieza por "O"

- Los otros jugadores entonces miran a su alrededor para sugerir qué podría ser. El alumno que escogió la parte del cuerpo debe decirles si es o no. Quien adivina escoge otra parte del cuerpo y el juego vuelve a empezar.

19. jarduera	HACEMOS UN COLLAGE	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) <i>ahozko aurkezpen sinpleak egitea</i> eskainitako jarraibideen laguntzaz.		
1.11 <i>Euskara</i> ohiko komunikazio-eremu eta egoera gehienetan <i>erabiltzea</i> , euskararen normalizazio eta euskal kulturaren transmisio-prozesuetan aktiboki parte hartuz.		
2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisiko, atsedean eta segurtasun ohiturekin nor bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzuz, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.		
3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.4.4 Zuzentasun onargarriarekin hitz egiten du, gelan landutako erabilera okerrak (hiztegia, morfosintaxia...) identifikatuz eta zuzenduz.		
1.11.1 Eskola-inguruko komunikazio-eremuetan gertatzen diren pertsonen arteko harremanetan euskara erabiltzen du.		
2.3.1 Norbere zein besteen gorputzaren eta nortasunaren ezaugarri komunak eta bereizgarriak, ahalmenak eta mugak ezagutzen ditu eta errespetua adierazten du bereizkeria saihestuz.		
3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Grupo grande	
MATERIALA	Cartulina y revistas que contengan imágenes de personas	
AZALPENA		

- Vamos a observar las características físicas que nos hacen diferentes.
- Para empezar vamos a medirnos. En una pared cada alumno marcará su altura y escribirá su nombre. A continuación pesaremos a todos los alumnos/as y escribiremos en una lista los nombres de los niños/as y su peso.
- Para hacer esta actividad conviene aprender/repasar los números del 1 al 40-50.
- Cuando tengamos estos datos, compararemos a nuestros alumnos/as. Encaminaremos la conversación hacia la aceptación y respeto, para que los niños/as comprendan que incluso antes de nacer todos somos diferentes y todos tenemos cosas buenas que ofrecer.
- Cada alumno/a se dibujará a si mismo/a en un DIN-A4 y enseñará a sus compañeros/as su dibujo diciendo: *Mido centímetros peso kilos y me gustan mis*
- Haremos un collage que refleje las diferencias físicas entre las personas utilizando imágenes de revistas o fotos de nuestros alumnos. Al terminar podemos ponerle por título SOMOS DIFERENTES Y VIVIMOS BIEN JUNTOS/AS.

20. jarduera	VARIACIONES DEL CUENTO	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>1.11 Euskara ohiko komunikazio-eremu eta egoera gehienetan erabiltzea, euskararen normalizazio eta euskal kulturaren transmisio-prozesuetan aktiboki parte hartuz.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.8.8 Ikaskideekin batera testu jakin bat sortzea eta berrikustea helburu duten jardueretan parte hartzen du.</p> <p>1.11.1 Eskola-inguruko komunikazio-eremuetan gertatzen diren pertsonen arteko harremanetan euskara erabiltzen du.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Grupo grande	
MATERIALA	Variación del cuento inventada por el profesor/a o la variación del cuento propuesta en la guía	
AZALPENA		

- Los alumnos/as se sentarán mirando a la pizarra. El profesor/a les dirá que ha inventado un cuento muy parecido al que han estado trabajando. Contará la nueva versión a ser posible contando con la colaboración de los alumnos y alumnas. Los niños/as serán capaces de prever muchas frases, porque la estructura del cuento inventado por el profesor/a es la misma que la del cuento trabajado inicialmente.
- Mientras esté contando el cuento, ayudará a sus alumnos a darse cuenta de la estructura/guion del texto: **Comienzo - Nudo - Desenlace**

COMIENZO	NUDO	DESENLACE
¿Quién? ¿Como era? ¿Como le llamaban?	¿Qué le ocurrió? ¿A quién pidió ayuda?	¿Cómo se salvó?

- A continuación encontraréis una posible variación del cuento trabajado.

MANI

Hace algún tiempo, existió un niño que tenía las manos tan grandes como un koala gigante, por eso todos le llamaban Mani. Siempre estaba dispuesto a ayudar utilizando sus grandes manos.

–¡Mani!

–Sí mamá.

–Toma hijo, esta moneda y ve a comprar un paquete de garbanzos, dos lechugas, dos barras de pan, una caja de leche y 12 yogures. Ten mucho cuidado y no te metas las manos en ningún sitio.

–No te preocupes mamá, me las meteré en el bolsillo e iré cantando:

¡Talán, talán, talán!
la comida voy a comprar.
¡Talán, talán, talán!!
la comida voy a llevar.

En la tienda ocurría siempre lo mismo:

–Mirad, Mani con las manos en los bolsillos. Hola Mani ¿qué quieres?

–Quiero un paquete de garbanzos, dos lechugas, dos barras de pan, una caja de leche y 12 yogures.

–Aquí tienes. Adiós.

De vuelta a casa repetía una y otra vez su canción, y todo aquel que se cruzaba con Mani le saludaba dándole dos besos y no la mano.

¡Talán, talán, talán!
la comida voy a comprar.
¡Talán, talán, talán!!
la comida voy a llevar..

También en el campo, Mani ayudaba a su padre.

–Mani, lleva todas estas lechugas a casa.

–Sí papá. Las cogeré con mis manos y las llevaré.

Sus manos eran tan grandes que conseguía trasladar cosas de un lugar a otro muy rápido y mientras el pequeño hacia una de tantas tareas, su padre podía aprovechar el tiempo ocupándose de otra distinta.

Un buen día, quiso sacar una zanahoria de la huerta. Metió su mano por debajo de las hojas e hizo fuerza hacía arriba para sacarla del suelo. La zanahoria también era muy grande y su mano quedó atascada en las raíces.

–¡Noooooo! ¡Ah, mi mano!

Todos los vecinos del pueblo vinieron a ayudar a Mani. Se pusieron todos en fila, se agarraron por la cintura e hicieron fuerza hacía atrás. Aún así a Mani cada vez le dolía más la mano y no conseguían sacarla, pues se había enredado en las raíces de la zanahoria.

–¡Mani! ¿Qué hacemos?

–¡No lo sé! ¿Por qué no traéis a todos los burros del pueblo para que se coman la zanahoria gigante?.

Por fin, Mani había tenido una buena idea y cada vecino corrió a su casa en busca de su burro. Después de mucho ingerir, la mano de Mani salió entre las raíces. Los papás, mamás y los vecinos le abrazaron, locos de alegría, e inmediatamente se fueron todos a la cocina a merendar juntos mientras cantaban alegres y al unísono:

¡Talán, talán, talán!
Mani está libre ya.
¡Talán, talán, talán!!
nos vamos a merendar.

- Cuando el profesor/a haya terminado, pedirá a sus alumnos que inventen una nueva versión.
- Os proponemos que la llevéis a cabo en grupo grande. Para ello daremos a los alumnos/as un tiempo para pensar en silencio. El profesor recogerá por escrito en la pizarra la versión inventada de manera oral entre todos. Cuando esté terminado lo revisaremos y corregiremos.
- Dividiremos a los alumnos y alumnas en grupos pequeños y cada grupo será responsable de copiar de la pizarra una parte del cuento. Después el profesor juntará todas las partes, hará copias y las repartirá a sus alumnos para que puedan leerla con sus padres en casa.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

21. jarduera	OLERKI MISTERIOTSUA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea</i> eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.</p> <p>2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nor bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziarik erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)</p> <p>2.3.1 Norbere zein besteen gorputzaren eta nortasunaren ezaugarri komunak eta bereizgarriak, ahalmenak eta mugak ezagutzen ditu eta errespetua adierazten du bereizkeria saihestuz.</p>	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka eta talde handian
MATERIALA	Lan-koadernoko 33. orrialdea eta lan-koadernoko orriaren goiko aldearen (puzlearen fitxak) kopiak
AZALPENA	

Guztiak desberdinak garen ideien inguruan gorputzaren ezaugarri guztiekiko onarpena eta errespetuzko jarrerak bultzatuko ditugu. Elkar argialetzeko ETA ZER? Sailean gai horretan sakontzeko ipuinak aurkituko dituzue.

Juan Kruz Igerabidek idatzitako olerkian, norbere buruaren onarpenarekin zerikusia duen mezua daukagu. Hura irakurtzea izango da gure erronka.

- Irakasleak ikasleei argibideak irakurriko dizkie eta esanahiari erreparatuko diote “Zer egin behar dugu?”
- Beheko mezua osatzeko, goiko zatien edo piezen kopia emango die irakasleak ikasleei.
- Ikasleek zati horiek moztu eta beheko taulan behar bezala kokatuko dituzte, dagoeneko jarritako letrak eta laukien koloreetan arreta jarrita.
- Azkenik, guztiok elkarrekin Juan Kruz Igerabideren olerkia irakurriko dugu.
- Esanahiari erreparatuko diogu: “Zer dio olerkiak?”

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

22. jarduera	OLERKIA: NI BEZALAKOAK
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.
1.13	<i>Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea</i> , baita sentsibiltate estetikoak garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.
2.3	Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikus puntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.
1.13.1	Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.
2.3.1	Norbere zein besteen gorputzaren eta nortasunaren ezaugarri komunak eta bereizgarriak, ahalmenak eta mugak ezagutzen ditu eta errespetua adierazten du bereizkeria saihestuz.
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	
MATERIALA	Irakurgaiak 51. orrialdea
AZALPENA	
<p>Juan Kruz Igerabideren olerki eder horretan desberdinekiko maitasuna ikus dezakegu. Arraza, izaera, sexu.. desberdinekoak gara.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakasleak ilustrazioa eta testua behatzeko/irakurtzeko denbora emango die ikasleei. • Txanela.net-eko 4. unitateko 45. jardueran eta liburu digitalean, olerkia word formatuan aurkituko duzu. • Irakasleak olerkia irakurriko du. • Esanahiari erreparatuko diogu: <i>zer dio olerkiak?</i> Ezagutzen al duzue azal beltza, horia edo gorria duen pertsonarik? • Ipuina irakurri ondoren egin genuen collagea arraza ezberdineko pertsonen irudiekin osa dezakegu. 	
HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...	

23. jarduera	NOR DA NOR?	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta binaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 32. orrialdea	
AZALPENA		

Guztiok ez gara berdinak, eta horri esker bereizten gara bata bestearengandik. Ea haur horiek bereiziaz bakoitza nor den asmatzen duten.

Proposatuko dizuegun prozedura honen beharra daukazuen ala ez, taldearen irakurketa-mailaren arabera erabaki ezazue.

- Guztiek lan-koadernoa zabalik dutela, irakasleak orrialdearen goiko aldean dagoen agindua irakurriko du eta hurrei (antzeko irakurketa-maila dutela) binaka jartzeko adieraziko die.
- Irakasleak, esaldiak banan-banan irakurriko ditu eta hitz gakoa nabarmenduko du, indar bereziz intonatzuz, silabeatuz... Hitz gako hori bilatu (irakasleak beharren arabera behaketa bultzatuko du, soinua-letra erlazioa bideratuko du) eta inguratuko dute. Beharra ikusiz gero, hitz horiek arbelean idatzi, txalokatu, silabetan zatitu eta guztion artean irakurri berriro.
- Gero, inguratu ditugun hitzak arrasto bezala erabiliz, ikasleek esaldiak irakurriko dituzte, beheko haurren izenak ondorioztatu eta dagozkien tokian jarriko dituzte.
- Joko horrekin jarraitu nahi izanez gero, jostailu-dendetan aurkituko duzuen *Nor da nor?* mahai jokia, eskura dezakezue. Jokoa, besteak beste, logika eta aurpegiko atalak lantzeko oso egokia da.
- Txanela.net-eko 4. unitateko 48. jardueran eta liburu digitalean, fitxa hau formatu digitalean aurkituko duzue. Artxibo horretan, argazkia eta deskribapenak, gelako haurren argazkiak eta deskribapenekin ordezkari ditzakegu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

24. jarduera	OUR SENSES
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
To participate actively in oral activities.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
<ul style="list-style-type: none"> - Uses basic vocabulary appropriate to context. 1 - Transfers the language from the format to other contexts. 1 - Uses non linguistic resources to convey meaning. 1 - Shows interest on how the human body works and names and identifies the main parts of the body.(2.3.2) <p>1. Eleanitz project, Hocus and Lotus materials, teachers guide 2. Txanela proiektua, Ziklo bukaerako helburuak eta ebaluazio irizpideak dokumentua</p>	
METODOLOGIA	Big group, small group and in pairs
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	
MATERIALA	Book page 8. A teddy, a leaf, a ball, a feather, sugar, salt, an orange, cola-caio, a banana, a drum, a tambourine, a xylophone, a maraca...
AZALPENA	

In the previous activity, children have been working on parts of the human body. Now we are going through the functions of those parts, that is, through our senses.

In "The giant" (The adventures of H and L number 3) the pupils have been practising parts of the body and their functions. In this activity we are going to help children to transfer part of the language they learnt in the story to a new context.

Before the lesson decide who is going to do what and get all the material you need to carry out the activity.

- Shared reading of the book: Ask the pupils to look at page 8 and give them a few moments to look at it. We are going to invite the children to read the sentences, one at a time, and work out the meaning with the whole group.
 - *What is Reddy saying? Let's all read. What's Reddy doing? Oh I know he is singing a song we all know! Let's sing and dance the song. Head, shoulders, knees and toes, Knees and toes. Head, shoulders, knees and toes Knees and toes and eyes and ears and mouth and nose Head, shoulders, knees and toes*
- Elicit from the pupils the essential vocabulary they need for the activity they are going to do. Remembering parts of the story might be helpful to remember the essential vocabulary.
 - *Do you remember the story, Hocus is bouncing on the clouds and suddenly he heard a voice . Hocus was terrified. And he said: - What big eyes you've got! -All the better to see you with. (Hocus indicates own eyes and then points at Bogus) -What big ears you've got! -All the better to hear you with. (Hocus indicates own ears and then points at Bogus) -What a big nose you've got! -All the better to smell you with. (Hocus indicates own nose and then points at Bogus) What a big mouth you've got! -All the better to eat you with! (Hocus indicates own mouth and then points at Bogus)*
 - *Ears, what do you do with your ears? Eyes, what do you do with your eyes? Nose, what do you do with your nose? Mouth, what do you do with your mouth? Inside the mouth your tongue, what do you do with your tongue?*
 - *Now make them repeat: So we see with our eyes, we hear with our ears, we taste with our tongue and we smell with our nose These are called SENSES*
 - *Invite the children to read the sentences, one at a time, and work out the meaning with the whole group.*
- We are going to play a game/do an experiment using all our senses. Hide in a box all the material you need for this game, Blindfold 4/5 pupils, choose one thing and let them guess what it is after smelling, hearing, touching and tasting this thing.
 - *Smell this. What do you think it is? Don't say, don't say! Now touch it. What do you think it is? Don't say yet. Let everybody touch it. Now taste it. Now tell me what you think it is. It's an orange.*
 - *Repeat the game with different things and different groups.*
 - *What senses did we use to guess that they are?Yes, we can hear the crisps, smell the crisps, touch the crisps, taste the crisps and see the crisps.*
- Ask the pupils to look at the book again and give them a few moments to look at the table at the bottom. Analyse the symbols at the top: See, taste, hear, touch and smell and the pictures on the left:
 - *What is this? It's a traffic light. What senses do you use for the traffic light? Do we see it: Yes, it's red, we stop; It's green, we walk. So we draw a cross in See. Do we taste it? (licking gesture) No!!! Of course not. Do we hear it? Yes, sometimes we do, don't we? It makes a noise: cling,cling, cling... then we walk. So we draw a cross in Hear. Do we touch it? Yes, we can, but we don't know when to stop or to walk. Do we smell it? No, traffic lights don't smell! So, we see and we hear the traffic light, so we draw crosses there.*
 - *Let them think in pairs and draw the crosses. When they finish, draw the table on the board, listen to all the answers and discuss them with the whole group. Finally draw the conclusion: Which sense do we use the most? Seeing, we use our eyes all the time, so we have to be careful not to hurt them*
- You can finish the activity by asking your pupils what they like smelling, tasting, touching...

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

25. jarduera	HEZURDURA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nor bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzuz, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.	
2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.	
3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
2.3.2 Jakin-mina adierazten du giza gorputzaren funtzionamenduaren inguruan, halaber gai da atal nagusiak identifikatu eta izendatzeko.	
2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.	
3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	
MATERIALA	Liburuko 9. orrialdea, gorputzaren txokoko liburuak, hezurduraren panpina eta gurasoei erradiografiak eskatzeko gutuna
AZALPENA	

- Haurrei, hezurdura edukiko ez bagenu nola ibiliko ginatkeen imajinatzekeo eskatuko diegu. Ondoren, mugimenduen bidez adieraziko dute.
- Gero, haurrak hiruak banatuko ditugu eta txandaka, "hezurdurarik gabeko" haur bati, beste bi lagunaren artean mugimendua emateko proposamena luzatuko diegu, txotxongilo bat izango balitz bezala erabiliz eta mugimendua emanez.
- Poxen eta Urdintxoren arteko elkarrizketa irakurriko dugu.
- Irakasleak eta haurrek irakurri egingo du(te) behean azaltzen den agindua.
- Marrazkia egiten hasi aurretik haurrak binaka jarriko ditugu eta, txandaka lagunaren hezurdura ukituz, nolako izan daitekeen imajinatzekeo eskatuko diegu. Ondoren haurrak bere hezurdurari buruz zer nolako imajina duen ikusteko balio izango zaigun marrazki bat egiteko proposatuko diegu.
- Marrazkia egin ondoren berriz, gorputzaren txokoko liburuetan agertzen den hezurdura batekin alderatuko dugu, haurrek, lekuz kanpo zer margotu duten, bere lekuan ondo kokatuta margotu duten eta marraztu gabe utzi dituzten hezurrei beha diezaizoten.
- Ikastolako laborategitik ekarritako hezurduraren panpina aztertzen eta manipulatzeko hasiko gara gorputzaren hezurrei behatuz. Eskeletoa aurrean dugula, gure hezurren eta gorputz-atalen zerrenda egiten hasiko gara. (GAREZURRA, LEPAUZTAIA, BIZKARREZURRA, UKONDOA, ESKUMUTURRA, ALDAKA, IZTERREZURRA, BELAUNA, ORKATILA...). Horretarako, burezurretik hasi eta hatzekin ukituz, oinetako behatzekeo hezurretarako iritsiko gara.
- Ikasleak lurrean begiak itxita etzanda jartzeko esan eta irakasleak edo ikasle batek hezur baten izena esango du. Gainontzekeoak hezur hori dagoen gorputzaren atala ukituko dute.
- Hezurdura lantzen hasi garenez, gurasoei gutun bat bidaliko diegu Maddalen eta Ferminen izenean, etxean eduki dezaketen erradiografiak ikastolara bidaltzeko. Gutunaren adibidea eranskinetan aurkituko duzue.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

26. jarduera	MARRA BATZUK EGINEZ IRUDIMENA PIZTEN	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i> , aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i> .		
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea</i> .		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)		
1.5.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako apendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegi erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, talde txikian eta banaka.	
MATERIALA	Irakurgaiak 52-53 orrialdeak eta DIN-A4 papera edo arbel zuri bat haur bakoitzarentzat	
AZALPENA		

- Ikasleei orrialde horietan dauden marrazkiei arretaz behatzeko eskatuko diegu. Talde handian, ikusten dituzten gorputz-atalak eta zenbakiak izendatuko ditugu.
- Irakurtzen hasi aurretik, izenburuari so egingo diogu eta elkarrekin irakurriko dugu. Irakurriko dugunaren inguruko hipotesiak egin eta esateko eskatuko diegu
- Irakasleak ikasleei letra xehez idatzitako testua irakurriko die.
- Esanahiari erreparatuko diogu: *zer dio testuak?* Irakasleak irakurritako testuak proposatzen digun egoerari jarraituz, gelako haur batzuk argibideak irakurri (Fermin bezala) eta besteek (Jonek eta Mirenek bezala) horren arabera marrazkia egingo dute.
- Hasieran, talde osoak irakasleari irakurriko dio eta irakasleak marraztu egingo du arbelean. Ondoren, haurrak bi taldetan banatuko ditugu. Gela erdiak marrazkia egiteko argibideak irakurriko ditu eta beste erdiak entzundako argibideen arabera marrazkia egingo du. Ondoren, marrazkia egin dutenak irakurriko dute eta irakurri dutenak marraztuko dute. Zuen ikasleentzat testu osoa irakurtzea gehiegi bada, talde txikiak antolatu eta haur talde bakoitzari testuaren zati bat emanaz irakurriko dute. Testu osoaren irakurketa, testuaren zati bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin saioak egin edo irakurri ondoren egin daiteke.
- Testu osoa hiru aldiz entzun edo irakurri ondoren, hitz gakoak (zenbakiak eta gorputz-atalak) bilatzera jolas dezakegu. Haur bakoitzari hitz bat (SEI, LAU, BURUA, BEDERATZI, BELARRIA...) eskatu eta testuan barrena non dagoen bilatu eta aurkitu beharko luke. Ariketa hori, nahi baduzue, haurrak binaka jarrita ere egin dezakezue (saia zaitezte antzeko maila duten haurrak elkartzen). Galdetu hurrei nola konturatu diren eskatutako hitza zein den.
- Bukatzeko, zenbaki batzuek baliatuta gure aurpegia marraztuko dugu. Beste zenbaki batzuekin, eta irudimena erabiliz, marrazkiak edo formak ezberdinak egin ditzakegu mundua sortuz. Ea zenbat ateratzen zaizkigun. (Jolas honetarako zenbaki errazena zero da. Hortik hasi zaitezke.) Hona hemen adibide bat:
- Bukatzeko, gure inguruan zenbaki forma duten objektuak izendatzera jolas gaitzke. Adibidez, ahatea eta bi zenbakia, ilargia eta zero zenbakia, aulkia eta lau zenbakia...

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

3. JARDUERA SEKUENTZIA. Askari osasuntsua: proiektua planifikatu, gauzatu, komunikatu eta baloratu. Honetarako elikadura osasuntsua, elikagaien jatorria eta errezetaren idazketa landuko ditugu. Bukatzeko, heriotzaren inguruko hausnarketarako jarduerak proposatzen dizkizuegu.

27. jarduera	PROIEKTUA: HAMAIKETAKO EDO ASKARI OSASUNTSUA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</i>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikus puntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 10. orrialdea	
AZALPENA		

Gorputza eta elikagaien gaia landu bitartean, osasuntsuak diren era askotako jakiekin eta freskagarriekin hamaiketako edo askaria antolatuko dugu. Hamaiketako gela barruan nahiz kanpoan eta jende gehiagori zabalduz, gonbidapenak bidaliz, presta dezakezue. Horretarako, elikagaien piramideari behatu eta horren baitan erosketa zerrenda egin, erosketak egin, ardurak banatu, jakiren bat prestatu eta azkenik guztiok elkarrekin askari edo hamaiketako osasuntsua jango dugu.

- Proiektua garbi edukitzea eta lana burutzeko ideiak botatzea da gure gaurko lana. Proiektuaren garapeneko lehen urrats nagusia da. Hau da, hurrek zer egin behar duten jakin eta haren inguruan pentsatzen jartzeko lehen unea da. Aurrerago proiektua planifikatu, ekin, komunikatu eta balioetsiko dugu.
- Proiektuaren helburuak bi dira nagusiki:
 1. Ikastolan antolatuko dugun hamaiketakoaren edo askariaren menua erabakitzeko, elikagaien ezaugarriak ezagutu eta dieta orekatuaren garrantziaz jabetu,
 2. Elkarrekin egingo dugun otorduaren prestaketan eta antolaketan trebatu.
- Liburuak ireki, eman denbora orrialdea eta bere elementu guztiei (argazkiak, marrazkiak, ikonoak, globoak...) ondo behatzeko. Ondoren, gidatutako behaketa egingo dugu.
- Bonbillari beharazi eta zer adierazten duen galdetu. Esan ikasleei aurreko unitateetan bezala, proiektu bat egingo dugula. Gogora ekarriko dugu denboraren makina egiteko, dinosauroen garaiko maketa eraikitze edo lehen gizakiaren antzerkia prestatzeko eman genituen urratsak. Hau da, proiektuaren aurkezpen-orriari behatu eta antolaketarako ideia sortu (planifikatu), liburuan ikusitakoa edota ikasitakoa gure proiektuan erabili edo aplikatu (ekin), gure lana beste batzuei erakutsi (komunikatu) eta egindako lanari buruzko iritzia jaso (balioetsi).
- Ferminek ematen digun informazioa aztertuko dugu:
 - *Zer esaten ari zaigu Fermin? Esaten duen horretan hitzen bat ezagutzen al dugu? Behatu globoko 9. hitzari. (Irakasleak hitza arbelean idatziko du) Nola hasten da? Zer jartzen ote du? Zer esan nahi du? Hurrek ezin badute irakurri, irakasleak egingo du. Eskuinean badago beste globo bat. Irakurriko al dugu? Antolatzea zer den badakigu, baina zer ote da osasuntsua?*
- Globoen ondoren, irudiak aztertuko ditugu:
 - *Zuen ustez zertan ari dira argazki txikietako haurrak? Zertarako egiten dute hori? Nola sentitzen dira? Zuek nola sentitzen zarete eginkizun horren aurrean?*
- Galderari erantzunez, interesgarria litzateke denon artean askaria/hamaiketako aurreikustea eta hitz egitea nolako izango den, zer beharko dugun, zer egin beharko dugun... Oraingoan planifikazio-fasean, elikagaien inguruko informazioa jaso eta etxeko dieta aztertu dugu. Bestalde, hamaiketarako erosketa-zerrenda egingo dugu eta hamaiketakoan egin beharreko lanak banatuko ditugu. Bigarren fasean (ekin) irabiakia prestatu, errezeta idatzi eta hamaiketako gauzatuko dugu. Bukatzeko, egindakoa argazki baten bitartez komunikatu eta proiektua balioetsiko dugu.
 - *Beno, beno, uste dut orain ere asko pentsatu beharko dugula eta lan handia egin beharko dugula gure askaria goxoa eta osasuntsua izan dadin. Baina zuek artistak zarete horretan!*

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

28. jarduera	ZER JAKIN BEHAR DUGU ASKARI/HAMAIKETAKO OSASUNTSUA EGITEKO?	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</i>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntua, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Ikasleen galderak eta proposamenak idatziz jasotzeko paper zuria (1 m x75 cm ingurukoa)	
AZALPENA		

Jarduera honetan, beste aldagai bat sartu dugu. Alegia, unitatearen sekuentziak berak proiektuarekin duen mendekotasuna tarteko, ikasi beharrekoak lotura hertsia du burutu beharreko eginkizunarekin. Beraz, proiektua gauzatzeko, ustez, zer ikasi beharko dugun plazaratuko dugu jarduera honetan. Tresna horrek, ondorioz, bi zati izango ditu: bat, proiektua gauzatzeko jakin beharrekoak eta bigarrena ikasleen interesei erantzuteko, gaia hedatzeko eta curriculumaren beharrak asetzeko ikasleek ikasi edo jakin nahi dutena.

Lehenengo atalari dagokionez (*Zer ikasi behar dugu hamaiketako osasuntsua egiteko?*), egin beharrekoak planifikatzen hasi beharko dute. Hemen dituzue aurreikusi daitezkeen hainbat lan: elikagai mota aukeratu, erosketaz-zerrenda egin, elikagaien erosketa, eginkizunen banaketa, elikagaiak prestatu...

Erantzunak eta galderak idatziz jasoko ditugu ikasleen begi-bistan egongo den poster handi batean, nola hala ikasnorabidea antolatuz. Ikasnorabidearen funtzioa eta helburua ikasleek ikasten ari direnaz jabetzea da. Landuko dutena aldeztu aurretik ezagututa, zer, nola eta zertarako ikasiko duten, eta landu ostean, ikasitakoari beste zentzu bat emateko aukera izango dute. Beraz, joan-etorrian erabiliko dugun tresna izango da. Edozein une izan daiteke egokia ikasnorabidera jotzeko, egiten ari garenaz jabetzeko.

Ikasnorabidearen bigarren atala, hau da, ikasleek ikasi nahi/behar dutena, gaia jorratzen ari garen bitartean garatzeaz gain, unitatearen bukaerako kontzeptu-mapa eraikitzeke ardatz moduan erabiliko dugu. Bukaerako lan hori osatzeko haurrak bizpahiru lagunek osatutako taldeetan elkartzeko ditugunez, komeni da orain aurreikustea talde bakoitzak ikasnorabideko galdera bati erantzuna eman beharko diola. Horren ondorioz zuzena da, galdera kopurua eta talde kopurua bat izaten ahalegintzea. Galdera kopurua oso ugaria bada, irakaslearen lana izango da galdera horiek multzokatzea ideia nagusien arabera, eta xehetasunak galdera horien azpialat moduan hierarkizatzea.

- Liburuaren orrian azaltzen den bezala, biribilean eseriko gara eta ikasleei bi galdera hauek luzatuko dizkiegu:
 - *Zer ikasi behar dugu hamaiketako egiteko?*
 - *Zer ikasi nahi duzue elikagaiei eta gorputzari buruz?*
- Ikasleei denbora-tarte bat isilean pentsatzeko eman ondoren, beren ekarpenak idatziz jasoko ditugu. Lehen esan bezala, irakaslearen lana izango da galdera horiek multzokatzea ideia nagusiaren arabera eta xehetasunak galdera horien azpialat moduan hierarkizatzea. Unitatearen garapena zerbait moldatu beharko duzue haurrek planteatzen dizkiguten interesen arabera. Nola nahi ere, gidaren hasieran, egileok proposatzen dugun ibilbidearen edo sekuentzia tematikoaren eskema aurki dezakezue. Beraz, haurren ideiak horren arabera bideratu eta antolatu ditzakezue.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

29. jarduera	ABESTIA: GOXOKIAK JAN ETA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</p> <p>2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.3.3 Osasunarentzat elikadura orekatuak eta osasungarriak, higieanak, ariketa fisikoak eta atsedean eta oinarrizko segurtasun-neurriek duten garrantziaz jabetzen da.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 11. orrialdea eta abestien CDa (26. pista)	
AZALPENA		

Elikadura osasuntsuarekin zerikusia duen abestia ikasiko dugu. Abestiak dionez, Asierrek goxoki gehiegi jan ditu eta minez dago. Aukera polita da, litxarrerien inguruan ikasleekin hitz egiteko. Gorputza bete egiten dute eta gure gorputzak behar dituen mantengaiak dituzten elikagaiak jateko gogoak kendu.

- Lehenik eta behin CDa jarriko dugu, ikasleek abestia entzun dezaten.
- Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikarik gabe ikasleek hitzak esaldika errepikatuko dituzte. Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin. Esaldiak keinu jakin batekin lotuz, hitzak hobeto gogoratuko dituzte.
- Abestia ikasi ondoren, liburuan irakurriko dugu. Tartetxo bat eskainiko diegu irudiak eta testua begiratu/irakurri dezaten. Testua irakurtzen hasi aurretik, marrazkiek haurrak pentsatzen jartzeko ematen diguten aukera baliatuko dugu galderen bitartez: *Zer dira hor behean azaltzen direnak? Zertan ari dira xomorro gris horiek? Zuek ere horrelakoak izan al dituzue?*
- Ikasleei testuan arreta jartzen laguntzeko, abestia proiektatu edo arbelean idatz dezakezu.
- Kodearen inguruko behaketa bultza dezakegu:
 - Gure gaiarekin zerikusia duten hitz batzuk bilatu eta biribilduko ditugu: *gozokiak, hagina, aspirina, negarrez...*
 - *Nola dago Asier gozokiak jan dituelako? (MINEZ) Abestian ba al dago –EZ bukaera duen beste hitzik? Idatziko al dugu? Ikusiko al ditugu era berean bukatzen diren beste hitz batzuk?*

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

30. jarduera	ELIKAGAIEN PIRAMIDEA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedena eta segurtasun ohiturekin nor bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.	
4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzaren eta errespetu jarriaren aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
2.3.3 Osasunarentzat elikadura orekatuak eta osasungarriak, higie, ariketa fisikoak eta atsedena eta oinarriko segurtasun-neurriek duten garrantziak jabetzen da.	
4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian eta talde handian
MATERIALA	Talde bakoitzari emateko arbel zuria edo papera, liburuko 12. orrialdea eta hiztegi txartelak prestatzeko irudiak
AZALPENA	

Gure hamaiketarako/askarirako erosketa-zerrenda egin aurretik, elikagaien piramidea ezagutuko dugu. Hartara, hamaiketarako/askarirako elikagaiak zerrendatzeko orduan, aukeraketa orekatua egiteko irizpidea ezagutuko dugu. Elikagaien piramidea erabiliz, honako ideia hauek azpimarratu nahi ditugu:

1. Janari eta edari bakoitzak bere berezitasunak ditu eta horregatik elikagaiak hainbat multzotan banatzen dira.
2. Elikagai batzuk, egunero jan beharko ditugu, horiek osatzen baitute gure elikaduraren oinarria eta beste batzuk astero edo noizean behin baino ez ditugu jan beharko.

Gure helburua ez da haurrek sailkapena buruz ikastea, baizik eta hamaiketako/askari osasuntsua antolatzeko piramidea tresna bezala erabiltzea.

- Irakasleak ikasleei aurreko egunean **zer jan duten galdetuko die**. Irakasleak launaka jarriko dira galdera erantzuteko. Irakasleak talde bakoitzari arbel zuria edo papera emango dio. Errepikatzen diren janarien edo edarien izenak behin bakarrik idazteko eskatuko diegu.
- Talde txikiko elkarrizketa antolatzeke kide bakoitzari honako funtzio hauetako bat emango diegu:
 - Moderatzailea.* Talde txikian dauden bitartean, hitz egiteko txandak emango ditu.
 - Denbora-kontrolatzailea.* Irakasleak denbora muga bat jarriko du talde txikiko elkarrizketa egiteko eta ikasle horrek taldeari zenbat denbora pasa den edo geratzen den adierazi beharko dio. Adibidez, denbora erdia pasa denean eta 2 minutu geratzen direnean. Horretarako kronometroak beharko ditugu.
 - Esataria.* Taldean pentsatutakoa adierazi egingo diote talde handiari.
 - Idazkaria.* Taldean esandakoak idatzi egingo ditu.
- Komeni da ikasle bakoitzari bere funtzioa gogoraziko dion irudia ematea. Irudi horiek plastifikatu, goiko aldea zulatu eta soka jartzen badiegu, lepotik zintzilikatzeke balioko dute.
- Denborari dagokionez, 8-10 minutu nahikoa izango dela uste dugu. Irakasleak, bitartean, talde guztietatik pasa eta ikasleei beren funtzioa betetzen lagunduko die.
- Talde txikiko elkarrizketa bukatzean, ikasle guztiak bilduko ditugu biribilean. Talde bakoitzeko esatariak taldean bildutakoa irakurriko dio talde handiari.
- Irakasleak arbelean sei pisu dituen piramidea hutsik marratzuko du. Piramidearen eskuineko aldean, liburuan dagoen eran, bihotzak marratzuko ditu. Esatariak talde bakoitzean zerrendatu dituzten elikagaien izenak irakurtzen dituen bitartean, irakasleak piramidean dagokien tokian idatziko ditu. Idazten duen heinean, multzo bakoitzaren ezaugarriak era xume-xumean azalduko ditu.
 - *Elikagai guztiak ez dira berdinak, horregatik hainbat multzotan banatzen ditugu: Sagarra hemen idatziko dut, multzo hau fruta eta barazkien multzoa delako. Galletak hemen idatziko dut irinez eginda daudelako...*
- Dagoeneko elikagaien sailkapena ezagutzen dugu. Orain **piramidearen formaren esanahiari ekingo diegu**. Komeniko da ikasleei beraiei piramidearen formaren esanahia ondorioztatzeke aukera ematea, hasieratik azalpena eman ordez. Horretarako, hainbat galdera egingo dizkiegu eta etengabeko argitze-prozesua aurrera eramango dute, irakaslearen laguntzarekin. Egoera horretan ideia bera hainbat eratan azalduko da, baina galderak eginez eta hipotesiak trukaturaz, ideiak birformulatu eta zabaldu egingo dira behin eta berriro.
 - *Zergatik daukagu piramidearen beheko pisuetan, besteetan baino izen gehiago idazteko tokia? Agian, zerikusia izango du pisu berean dauden bihotz kopuruarekin? Gure gorputzak elikagai guztiak kopuru berean behar ditu? Zein jan behar dira maizkoak?*
- Arbelean guztiok elkarrekin eta ikasleek aurreko egunetan hartutako elikagaietan oinarrituta, piramidea ezagutu dugu. Orain ezagutza hori finkatzeko, **liburuko** piramidea aztertuko dugu. Liburua irekiko dugu 12. orrialdean, argibideak irakurri eta minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei piramideari lasai behatzeko. Irakasleek multzo bakoitzeko izenak irakurriko dituzte eta ikasle taldeak, irakaslearen laguntzarekin, multzoen izenen esanahia argitu/gogoratu/landu/ondorioztatu eta elikagaiak izendatuko ditu.
- Zure ikasleek elikagaiak izendatzeko zailtasunak badituzte, elikagaiak azaltzen diren hiztegi-txartelak prestatu eta hainbat egunetan hiztegi jokoak egin. Txartel horiek prestatzeko hainbat irudi, gida honen bukaeran aurkituko dituzu.

- Maddalenen galdera irakurri ondoren, ikasle taldea irakaslearen laguntzarekin piramidearen inguruan landutako ideiak bilduko ditu:
 1. Elikagaiak **multzotan banatzen** dira.
 2. Elikagai batzuk egunero jan behar dira (lehenengo hiru pisuak), beste batzuk astero (laugarren eta bosgarren pisuan daudenak) eta beste batzuk noizean behin baino ez.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

31. jarduera	DENETIK JAN BEHAR DUGU!
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.1	Ahozko azalpen simple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaietarako buruzkoak).
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.
2.3	Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisiko, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.1.4	Entzundako testu baten oinarritzko ideia batzuk gogoratzen ditu eta ahoz adierazten ditu haiei buruzko galdera zuzenean erantzunez.
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntukoak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko..
2.3.3	Osasunarentzat elikadura orekatuak eta osasungarriak, higie, ariketa fisikoak eta atsedean eta oinarritzko segurtasun-neurriek duten garrantziaz jabetzen da.
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Irakurgaiak 54
AZALPENA	

Oraingoan azpimarratu nahi dugun ideia zera da: gure gorputzak osasuntsu egoteko denetik behar du, elikagai batzuk indarra ematen digute (energetikoak), beste batzuk hazten laguntzen digute (eraikitzaileak) eta beste batzuk gure gorputza ondo funtzionatzeko (erregulatzaileak) beharrezkoak dira. Beraz, ez da nahikoa gustuko elikagaiekin elikatzea.

- Irakasleak ilustrazioa eta testua behatzeko/irakurtzeko denbora emango die ikasleei.
- Irakurtzen hasi aurretik, ikasleek izenburua irakurriko dute. Denetik hitzari erreparatuko diogu: *Zer da denetik jatea?* Egoera horretan ideia bera hainbat eratan azalduko da, baina galderak eginez eta hipotesiak trukatzeko, ideiak birformulatu eta zabaldu egingo dira behin eta berriro. Ikasleek erantzun zuzena ondorioztatuko ez balute, irudietan azaltzen diren elikagaien izenak, irakasleak arbelean marraztuko duen piramide batean koka ditzake, ikasleak ondorio honetara irits daitezten: *Denetik jatea, piramidean azaltzen diren multzoetako elikagaiak jatea da.*
- Irakasleak testua irakurri aurretik, ikasleei argituko die irakurketaren helburua zein den: *Jakin nahi dugu zergatik jan behar den denetik. Beraz, adi-adi entzun ea erantzuna entzuten dugun.*
- Esanahiari erreparatuko diogu: zer dio testuak?
 - *Elikagai bakoitzak funtzio/lan bat du gure gorputzean. Elikagai bakar batek ez du osasuntsu egoteko (hazteko, energia izateko eta gorputzak ondo funtzionatzeko) behar dena.*
- Edukia pertsonalizatuko dugu:
 - *Zuek denetik jaten al duzue? Zein dira jaten ez dituzuen elikagaiak? Jan beharko zenituztela uste duzue? Zergatik? Agian aste honetan zerbait berria dastatzen ausartuko al zarete?*

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

32. jarduera	BERTSOA OSATU	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</p> <p>2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atseden eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.3.3 Osasunarentzat elikadura orekatuak eta osasungarriak, higieanak, ariketa fisikoak eta atsedenak eta oinarrizko segurtasun-neurriek duten garrantziaz jabetzen da.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka edo binaka.	
MATERIALA	Lan-koadernoko 34. orrialdea.	
AZALPENA		

Janariaren aurrean izan behar dugun jarrerarekin jarraituz, lan-koadernoko bertsoan oin batzuk kendu ditugu. Oinak bi poltsatan azaltzen dira. Lehenengo poltsa goiko koplari dagokio, bigarrena erdikoari eta behekoa hirugarrenari. Koplak banan-banan lantzea proposatzen dizuegu.

- Irakasleak bertsozale.com web-orrian edo liburu digitalean, bertso doinutegian *Ama begira zazu* bilatuko du eta hurrei musika bi edo hiru aldiz entzuteko esango die.
- Ondoren, bertsoa osorik, aurkeztuko die (arbelean edo proiektatuta arbel digitalean).
- Irakasleak bertsoa abestuko du. Gero, berriz abestuko du, ahoskatzen ari den zatia eskuekin seinalatuz.
- Hurrekin batera, bitan edo hirutan abestuko du (nahi bada, zatikatuz).
- Esanahiari erreparatuko diogu: *Zer dio bertsoak? Nola bukatuko zenukete?*
- Orain, orrialdean eskuinaldeko poltsan dauden oinak aztertuko ditugu. Zer dute berdina? Grafia-fonema erlazioan jarriko dugu indarra. Berdin bukatzen direnak kolore batez margotuko ditugu. Adibidez IA bukaera dutenak gorritz eta ERA bukaera dutenak urdinez.
- Bertsoari poltsan dauden oinak jarriko dizkiogu. Kontraesanak sortzeko, hutsuneari ez dagokion oina kokatzean zer gertatzen den ikusiko dugu.
- Ikasleek, irakaslearen gidaritzapean, etengabeko argitze-prozesua aurrera eramango dute, ondorengo ondoriara iritsi arte:
 - *Bigarren bertso lerroaren bukaeran doan hitzak errima darama, beraz, hitz hori bezala bukatzen den hitza aukeratu behar dugu.*
- Orain geratzen zaizkigun bi hitzen (aukera, atzera) esanahiari erreparatuz, lan-koadernoan, banaka edo binaka, bertsoa osatuko dute.
- Bertsoaren bigarren eta hirugarren zatiekin, lehenengoarekin jarraitu ditugun urratsak errepikatuko ditugu: bertsoa aurkeztu, hurrekin batera abestu, esanahiari erreparatu, bigarren lerroaren amaieran doan hitza azpimarratu, poltsan dauden hitzak aztertu eta errima bera ez dutenak baztertu. Azkenik esanahiari erreparatuz, banaka edo binaka bertsoa osatu.
- Bukatzeko, talde handian mahaian eta janariaren aurrean daukagun jarreraz mintzatuko gara, bertsoan azalduko hiru aholkuen garrantzia azpimarratzeko. Beharbada, kartoi mehe handietan koptatu, eta apain ditzakegu koplak jangelan zintzilikatzeko. Gogoratu CD-ROMean idazketa-tailerra dugula eta, testuak idazteko txantilo politak aurki ditzakegula. Hori baliatuz, bertsoak, abestiak, zein olerkiak, ordenagailuz garbira pasatzeko aukera daukagu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

33. jarduera	IGARKIZUNAK: GAZTA, ANGURRIA, GAZTAINAK...	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.1 Ahozko azalpen simple eta kontestualizatuaren <i>esanahi orokorra identifikatzea</i> (ezagutzeekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaiei buruzkoak).</p> <p>1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) <i>ahozko aurkezpen sinpleak egitea</i> eskainitako jarraibideen laguntzaz.</p> <p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea</i>.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.1.4 Entzundako testu baten oinarrizko ideia batzuk gogoratzen ditu eta ahoz adierazten ditu haiei buruzko galdera zuzenei erantzunez.</p> <p>1.4.3 Era ulergarrian eta erraztasun nahikoarekin adierazten ditu ideiak.</p> <p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Irakurgaiak 55. orrialdea	
AZALPENA		

- Asmakizunetara jolastuko gara, jaki ezagunen izenak eta ezaugarriak gogoratu.
- Ikasleei orrialde horietan dauden marrazkiei arretaz begiratzeko eskatuko diegu. Denon artean ikusten dituzten elikagaiak izendatuko ditugu.
- Irakasleak deskribapen bat irakurri eta testuan azaltzen diren hitz gako batzuk ikusaraziko dizkie ikasleei eta biribiltzeko edo azpimarratzeko eskatuko die (adibidez: txokolate, biribil-biribila, berde-berdea, gorri-gorria, zuria edo horia, esnez...), irakurtzen ez dakitenei pistak emateko.
- Deskribapen bakoitzari beren ustez dagokion elikagaia aukeratzeko esango diegu. Ondoren, irakasleak deskribapena berriz irakurriko du aurreneko aukeraketa mantentzen duten edo ez erabakitzeko.
- Ikasle bati galdetuko diogu bere aukeraketaz. Ados ez dagoen beste bati zein aukeratu duen galdetuko diogu. Bi ikasle horien artean eztabaida sortzen saiatuko gara. Ikasle bakoitzak bere aukeraketarako arrazoiak eman beharko ditu. Erantzun egokia erabaki ondoren, prozedura berari jarraituko diogu gainerako testuekin.
- Orain hurrei dagokie ezagutzen dituzten elikagaien deskribapenak ahoz egitea. Ea besteek asmatzen duten zein elikagaiaz ari den bakoitza. Adibidez: "Zer ote da, zer, kanpotik gorria, berdea, marroia edo horia izan daitekeen jakia?" (sagarra)

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

34. jarduera	BODEGOIA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea. 3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
3.3.10 Espazioa, bizigabeak zein bizidunak irudikatzeko moduen behaketa egiten du. 3.4.2 Nahita egindako trazuaren eta nahita egin gabekoaren adierazpen-aukerak probatzen ditu.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, talde txikian eta banaka.	
MATERIALA	Kartoi mehe zuriak eta tenperak	
AZALPENA		

Askotan ikusiko genituen hainbat jakiekin (fruta askotan) margolariak egindako margolanak. "Bodegoia" izenez ezagutzen ditugu. Geuk ere gure bodegoiak margotuko ditugu.

- Honako helbide honetan artista famatuek egindako bodegoiak ikusi ahal izango dituzue:
http://www.harcourtschool.com/activity/art/still_life/fruit_f.html
- Objektuen zuzeneko behaketa egiteko, ikasle bakoitzak etxetik bi fruta pieza ekarriko ditu.
- Ikasleak talde txikietan jarriko ditugu (2-3 lagun) eta fruta horiek erabiliz (2-3 fruta pieza) eredu antolatuko dute.
- Ondoren, aurrean duten ereduaren behaketa bideratuko dugu.
 - Pieza hau bestearen aurrean/atzean dago. Zati hau ez da ikusten, kolorea bera da pieza osoan, baina tonuak aldatu egiten dira...*
- Kartoi mehe zuri bana emango diegu eta espazio ia osoa betetzera gonbidatuko ditugu.
- Aurrean duten ereduaren arazo nagusiak, lehendabizi, arkatzez markatuko dituzte.
- Egindako irudiarekin gustura daudenean, frutak tenperaz margotuko dituzte.
- Gelan edo ikastolako pasabideetan bodegoi guztiak erakusgai jarri.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

35. jarduera	OTORDUAK: MENUAK IDATZI
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko <i>informazio aurkitzea eta aukeratzea</i> , eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.	
1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i> , modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	
2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartzeko eta errespetatzeko, bereizkeriarik gabe.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.7.1 Erantzun zehatzeko baldintza erantzuteko informazioa aurkitzen du eskainitako testuetan. (2. maila)	
1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.	
1.8.8 Ikaskideekin batera testu jakin bat sortzea eta berrikustea helburu duten jardueretan parte hartzen du.	
2.3.3 Osasunarentzat elikadura orekatuak eta osasungarriak, higie, ariketa fisikoak eta atsedean eta oinarrizko segurtasun-neurriak duten garrantziaz jabetzen da.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka
MATERIALA	Azalpenean azaltzen den taularen kopia (ikasle bakoitzeko bat) eta gurasoei bidaltzeko oharra
AZALPENA	

- Otorduak egunean zehar nola banatzen ditugun eta, batez ere, elikadura osasuntsuak duen garrantzia landu ahal izateko, bezperako otorduetan jandakoa idatzeko eskatuko diegu haurrei.
- Gutxienez astebeteko menua aztertu beharko dugu era osasuntsuan elikatu ote diren ondorioztatzeko. Horretarako, irakasleak taula honen antzekoa prestatuko du.

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
GOSARIA					
HAMAIKETAKOA					
BAZKARIA					
ASKARIA					
AFARIA					

- Goizean eta eguerdian, ikastolara iritsi bezain pronto, irakasleak eta ikasleak egun horretan gosalduta eta bazkalduta idatziko dute. Askarian eta afarian jan dutena berriz, etxean beteko dute. Izan ere, adin honetako haurrei erraz ahazten zaie aurreko egunean jandakoa. Taula etxera eramateko orduan, egokia litzateke gurasoentzako oharra prestatzea. (Ikusi adibide bat eranskinetan)
- Astea bukatzen denean, piramidea aurrean dutela, taulan jasotako informazioa aztertu dugu honako irizpide hauekin:
 - Egunero jan al ditut zerealak, frutak edo barazkiak eta esnekiak?
 - Astean 3 edo 4 aldiz jan dut arraina, arrautzak eta haragia?
 - Astean 2 edo 3 aldiz jan ditut lekariak?
- Galdera guztien erantzuna baiezkoa bada, ikasleak etxera berak idatzitako ohartxo bat eraman dezake etxekoak zorionduz. Galdera horietako baten erantzuna ezezkoa bada, etxeko elikadura ohituraren bat aldatzea proposatzeko oharra idatzi eta eraman dezake. Adibidez:

Irati ikasleak idatzitakoa:

GURASO MAITEAK:

IKASTOLAN DENETIK JATEA GARRANTZITSUA DELA IKASI DUGU. GOSARIAN ZEREALAK JAN BEHAR DITUGULA USTE DUT. ZUEI ZER IRUDITZEN ZAIZUE?

MUXU BAT,

IRATI ETA MIREN (irakaslea)

Etxeko erantzuna:

KAIXO MIREN:

ERABAT ADOS GAUDE ZUEKIN! IRATIK ESAN DIGU GOIZEAN GOIZ ZEREALAK JATEA EGUNA INDARTSU HASTEKO BEHARREZKOA DELA. BERAZ, BIHARTIK AURRERA, GOSARIAN, OGI TXIGORTUA JANGO DUGU DENOK.

MILA ESKER

ALBERTO, EDURNE, IBAI ETA IRATI

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

36. jarduera	ELKARTASUN JOLASA: "JATETXE BATEAN GAUDELA" JOLAS GAITEZEN	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeari, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.</p> <p>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzaren eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>2.3.3 Osasunarentzat elikadura orekatuak eta osasungarriak, higie, ariketa fisikoak eta atsedean eta oinarrizko segurtasun-neurriek duten garrantziaz jabetzen da.</p> <p>3.4.8 Materialak manipulatu eta aztertuz gozatu du.</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Taldea txikian	
MATERIALA	Paperezko txanoak eta pajaritak, jostailuzko jakiak edo jakiak egiteko plastilina	
AZALPENA		

"Denetik jan behar dugu" ideiarekin jarraituz, ikasleak talde txikian elkartzeko, menu orekatua idatzi beharko dute. Ondoren, beraiek idatzitako menu horiek baliatuz, "jaketxe batean gaudela" jolastuko gara.

- Talde bakoitzak menu bat prestatuko du. Menu hori paper edo arbel zurian idatziko dute. Irakasleak gainbegiratu ondoren, kartoi mehe handi batean kopiatuko dute EGUNEKO MENUA izenburupean.
- Txandaka, batzuk sukaldariak, beste batzuk zerbitzariak eta beste batzuk bezeroak izango dira. Rolak bereizteko paperez egindako txanoak eta pajaritak egin ditzakegu sukaldarientzat eta zerbitzarientzat.
- Ondoren, jostailuzko edo plastikozko edo plastilinez egindako jakiak erabiliz, "jaketxe batean gaudela" jolastuko gara.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

37. jarduera	ZER JANGO DUGU? EROSKETA ZERRENDA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatu.</p> <p>2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeari, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzaren eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>2.3.3 Osasunarentzat elikadura orekatuak eta osasungarriak, higie, ariketa fisikoak eta atsedean eta oinarrizko segurtasun-neurriek duten garrantziaz jabetzen da.</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Taldea txikian, talde handian eta banaka.	
MATERIALA	Liburuko 13. orrialdea eta liburuko taularen kopiak (talde bakoitzeko bat)	
AZALPENA		

- Gure hamaiketarako menua aukeratu egingo dugu eta horren baitan, erosketazko zerrenda osatuko dugu. Hautatze-lan hori ikasleek taldean egingo dute. Talde bakoitzak bere proposamena egingo du. Helburua ahalik eta proposamen osasuntsuena egitea izango da. Horretarako, taularen ezkerreko zutabearen elikagaien izenak idatziko dituzte eta eskuinekoan berriz, elikagaiak zenbat bihotz dituen. Ikasleek helburua ahalik eta bihotz gehien lortzea izango da. Horretarako, piramidearen beheko multzoetako elikagaiak aukeratu dituzte edo litxarrerria asko. Horrela bada ere, utzi talde bakoitzari lana era autonomoan egiten. Izan ere, aurrerago, talde bakoitzaren proposamenak aztertzeko aukera izango dugu.

- Liburua irekiko dugu 13. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: globoa, taula eta behean azaltzen den bideoaren ikonoa.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, goian aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu, ondorioztatu egingo dute.
- Taldetan jarriko gara gure hamaiketarako menua aukeratzeko. Talde bakoitzari liburuko orrialde horretan azaltzen den taularen kopia emango diogu.
- Irakasleak ikasleei hamaiketakoaren egunerako menua pentsatuko dugula esango die. Talde bakoitzaren eginbearra ahalik eta hamaiketako osasuntsuena proposatzea izango da. Proposamen guztiak talde handian aztertuko dira eta talde bakoitzak egin duen proposamenetik, interesatzen zaizkigun ideiak jasoko ditugu, azken erosceta-zerrenda egiteko.
- Minutu batzuk isiltasunean egongo dira, eta egun horretarako erosi beharrekoak irudikatuko dituzte.
- Talde bakoitzean moderatzaile, idazkari, esatari eta denbora-kontrolatzaile bana izendatuko ditugu/dituzte. Moderatzaileak hitz egiteko txandak emango ditu. Denbora kontrolatzaileak taldeari zenbat denbora pasa den edo geratzen den adieraziko dio, adibidez, denbora erdia pasa denean eta 2 minutu geratzen direnean. Horretarako kronometroak beharko ditugu. Esatariak taldean pentsatutakoa irakurri egingo dio talde handiari eta idazkariak taldeko kideek proposatutakoa idatziz jasoko du. Denborari dagokionez, 10 minutu nahikoa izango dela uste dugu. Irakasleak, bitartean, talde guztietatik pasa eta ikasleei beren funtzioa betetzen lagunduko die.
- Taldeko lana bukatzean, ikasle guztiak bilduko ditugu biribilean. Multzo guztietako elikagaiak dituen ahalik eta zerrenda zabalena osatzea da gure helburua. Talde bakoitzeko esatariak taldean pentsatutakoa adieraziko dio talde handiari. Esatariak aurkeztutako proposamena elkarrekin aztertuko dugu.
 - *Zenbat bihotz lortu dituzte? Proposamena osasuntsua da? Multzo guztietako elikagaiak bildu dituzte? Zein dira gure hamaiketakoan jan ditzakegunak?*
- Proposamenetik interesatzen zaizkigun ideiak (elikagaiak) denok ikusteko moduan egongo den zerrenda berri batean jasoko ditu irakasleak. Informazio hori hamaiketako egiten dugun eguna arte gordetzea interesatzen zaigu.
- Beste egun batean erosi beharreko elikagaiak banatzea proposatzen dizuegu. Izan ere, irakasleak jakiak erosteko behar den haur kopurua era egokian erabaki beharko du. Hainbat elikagai denok erosteko modukoak izango dira eta beste batzuk berriz haur talde txiki batek edo banakakoek erosi beharrekoak izango dira. Beste aukera bat da talde bakoitzak multzo bateko elikagaiak erosteaz arduratzea. Hau da, talde batek zerealak, beste batek fruta, beste batek esnekiak eta azkenekoak fruitu lehorrak erostea. Irakasleak kontuan hartu behar du bodegoia eta irabiakia egiteko behar diren elikagaiak ikasleek ekarri beharko dituztela eta, beharbada, zerrendan erantsi daitezkeela.
- Norberak zer erosi behar duena erabakitzeko orduan, ikasle guztien izenen txartelak poltsa batean sar daitezke, elikagaiaren izena(k) irakurri, hainbat haurren izenak poltsatik atera eta ikasleen izenak idatzi egokitu zaion elikagaiaren lerro berean. Prozedura bera jarraituko da (elikagaia irakurri, izenak poltsatik atera, izenak paper handian idatzi) elikagai guztiak banatu arte.
- Bukatzeko, ikasle bakoitzak bere liburuan, berak erosi behar dituen elikagaiak eta horien ondoan zenbat bihotz dituen edo zein multzokoa den idatziko du. Liburuko orrialde horretan eskatzen den informazioa ikasle guztiek idatziz jasotzea, neketsua izateaz gain, zentzurik gabekoa ere izan daiteke. Azken finean, ikasle bakoitzak berak zer erosi/ekarri behar duen besterik ez du gogoratu behar. Beraz, zerrenda osatzeko egingo dugun prozesuaren bukaeran, ikasle bakoitzari ekarri/erosi behar duena idatziz jasotzea baino ez diogu eskatuko.
- Erosketa egiteko orduan, herriko azokara joan gaitezke elkarrekin. Horrela, ekoizleen eskutik zuzenean guregana iristen diren jokiek duten aparteko balioa azpimarratzeaz gain, salerosketak hainbat eduki (zenbakiak, eragiketak, ahozko komunikazioa, egoerari dagozkion giza arauak...) lantzeko ematen duen aukera baliatuko genuke. Bestela, haur bakoitzak bere etxera liburua eramanez, gurasoei zer erosi behar duen jakinarazteko.

Hona hemen adibide bat:

EROSKETA ZERRENDA	
ZER JANGO DUGUR	ZENBAT BIHOTZ DITUR
OGIA	
SAGAR 1	
PLATANO 1	
3 LITRO ESNE	

Ikasle batek jasotakoa

EROSKETA ZERRENDA	
ZER JANGO DUGUR	ZENBAT BIHOTZ DITUR
TXUPATXILSAK	1
TXIKLEAK	1
OGIA	6
URDARAZPIKOA	2
GEREZIAK	5

Talde txikiko proposamena

EROSKETA ZERRENDA	
ZER JANGO DUGUR	ZENBAT BIHOTZ DITUR
12 OGIA	
25 SAGAR, PLATANO ETA MANDARINA	
25 JOGURT	
6 LITRO ESNE	
50 INTXUR ETA 50 HUR	
KILO BAT AZUKRE	
2 KILO URDARAZPIKO	ETA GARZA

Irakasleak jasotakoa

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

38. jarduera	BIDEOA: NON EROSIKO DITUGU ELIKAGAIK?	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
1.4	Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) <i>ahozko aurkezpen sinpleak egitea</i> eskainitako jarraibideen laguntzaz.	
2.3	Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzak, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikusuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
1.1.4	Entzundako testu baten oinarritzko ideia batzuk gogoratzen ditu eta ahoz adierazten ditu haiei buruzko galdera zuzenei erantzunez.	
2.3.2	Jakin-mina adierazten du giza gorputzaren funtzionamenduaren inguruan, halaber gai da atal nagusiak identifikatu eta izendatzeko.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Birraitonaren makina DVDa	
AZALPENA		

DVDa, orrialde honetan agertzen den informazioa gure herrietako azoken berri ematea da. Jarduera hau osatzeko, herriko azoka bertatik bertara ikusteko irtenaldia egin dezakezue.

- Bideoa ikusi aurretik, ikasleei bideotik eskuratu nahi dugun informazioa jakinaraziko diegu, hau da, irakurketaren helburua adieraziko diegu.
 - Maddalenek erosketak egitera herriko azokara joateko proposatu digu. Zergatik izango ote da interesgarria herriko azokara joatea erosketak egitera? (Garaian garaiko elikagaiak daudelako, jakiak prezio egokia dutelako, ekoizleen eskutik zuzenean eskuratzen ditugulako, zaporea primerakoa dutelako...)*
- Entzun eta ikusiko dutena interpretatzen laguntzeko, ikasleak gaiari buruz dakiena azaleratzera eta hipotesiak egitera animatuko ditugu. Irakasleak hipotesi horiek idatziz jasoko ditu arbelean eta bideoa ikusi ondoren, gure aurreikuspena zuzendu edo osatuko dugu.
 - Zuek joan al zarete inoiz herriko azokara? Zer ikusi duzue han? Bideoan zein eta zer azalduko da? Zuen ustez zer ikusiko dugu? Zergatik ote da interesgarria herriko azokara joatea erosketak egitera?*
- Bideoa lehenengo aldiz ikusten dugunean, osorik ikusiko dugu. Bukatzean, ikasleei, bilatzen ari garen informazio hori entzun ote duten galdetuko diegu. Ikasleek iritzi berriren bat plazaratzen badute, hasieran egindako hipotesi zerrenda osatuko dugu.
- Bideoa bigarren aldiz ikusten dugunean, informazio interesgarria entzutean, ikasleei eskua altxatzeko eskatuko diegu. Orduan bideoa gelditu eta ikasleari entzundako ideia azaltzeko eskatuko diegu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

39. jarduera	ARDUREN BANAKETA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
<p>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzaren eta errespetu jarreko aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p> <p>4.3 Bizikidetzaren demokratikoaren funtsezko zenbait balio ezagutzea; batik bat, eskolan bete beharrekoak; eta, halaber, herritarrek bete beharreko oinarrizko arauak bete behar diren premiaz ohartzea.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
<p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia- fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p> <p>4.3.2 Ideiak ematen ditu eta elkarriketatuz baliatzen da barne-arauak adostasunez hobetzeko.</p>	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, taldeka eta banaka
MATERIALA	Liburuko 14. orrialdea eta orrialdeko taularen kopiak (talde bakoitzeko bat)
AZALPENA	

Hamaiketako egin aurretik, egun horretan egin beharko ditugun lanak aurreikustea eta taldeko kide guztien artean banatzea komeni zaigu. Horrela eginez gero, hamaiketako egingo dugun egunean denok lan pixka bat egin eta gozatzeko aukera izango dugu.

- Liburua irekiko dugu 14. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: *proiektua* eta *lagunartean* ikurrak, urtean aurpegiak, globoak eta taula.
- Berriz ere taldean jarriko gara egun horretan egin beharko ditugun lanak zerrendatzeko. Adibidez: mahaiak elkartu, aukiak mugitu, mahai-oihala jarri, jakiak plateretan jarri, fruta zuritu, fruta zatitu ogia zatitu, edalontziak banatu, ura ekarri, soberakinak bildu, platerak garbitu, edalontziak garbitu, erratza pasa, mahaiak bere tokian jarri...
- Irakasleak ikasleei hamaiketakoaren egunerako ardurak zerrendatuko ditugula esango die. Irakasleak bi taldeetan banatuko ditugu prozesua bi urratsetan banatuta dagoelako (jan aurrekoak eta jan ondorengoak). Talde bakoitzaren eginbeharra prozesuaren hainbat ardurak pentsatzea eta idaztea izango da. A taldeak jan aurrekoak, B taldeak jan ondorengoak.
- Minutu batzuk isiltasunean egongo dira eta egun horretan egin beharreko lanak irudikatuko dituzte. Talde batekoek jan aurrekoak eta beste taldeak jan ondorengoak.
- Talde bakoitzean moderatzaile, idazkari, esatari eta denbora-kontrolatzaile bana izendatuko ditugu/dituzte. Moderatzaileak hitz egiteko txandak emango ditu. Denbora kontrolatzaileak taldeari zenbat denbora pasa den edo geratzen den adieraziko dio, adibidez denbora erdia pasa denean eta 2 minutu geratzen direnean. Horretarako, kronometroak beharko ditugu. Esatariak taldean pentsatutakoa irakurri egingo dio talde handiari eta idazkariak taldeko kideek proposatutakoa idatziz jasoko du. Denborari dagokionez, 10 minutu nahikoa izango dela uste dugu. Irakasleak, bitartean, talde guztietatik pasa eta ikasleei beren funtzioa betetzen lagunduko die.
- Taldeko lana bukatzean, ikasle guztiak bilduko ditugu biribilean. Talde bakoitzeko esatariak taldean pentsatutakoa adieraziko dio talde handiari. Irakasleak, bitartean, esatariaren proposamena idatziz jasoko du talde osoak ikusteko moduko paperean eta ez arbelean, informazio hori hamaiketako egingo dugun eguna arte gordetzea interesatzen zaigu eta.
- Beste egun batean ardurak banatzea proposatzen dizuegu. Izan ere, irakasleak lan bakoitza egiteko behar den haur kopurua era egokian erabaki beharko du. Hainbat ardurak denok elkarrekin egiteko modukoak izango dira, eta beste batzuk berriz, talde txikian egitekoak.
- Ardurak banatzeko orduan, denek egin behar dituzten lanen ondoan, irakasleak paper handian, DENOK hitza idatziko du.
- Ondoren, ikasle guztien izenen txartelak poltsa batean sartuko ditu, ardurak irakurriko du, hainbat haurren izenak aterako ditu poltsatik eta ikasle bakoitzak bere izena idatziko du, egokitu zaion arduraren lerro berean. Prozedura berari jarraituko dio (ardura irakurri, izenak poltsatik atera, izenak paper handian idatzi) ardurak guztiak banatu arte.
- Bukatzeko, ikasle bakoitzak bere liburuan, berak egin behar dituen lanak eta lan horien ondoan DENOK edo bere izena idatziko du. Liburuko orrialde horretan eskatzen den informazioa ikasle guztiek idatziz jasotzea, neketsua izateaz gain, zentzurik gabekoa ere izan daiteke. Azken finean, ikasle bakoitzak berak zer egin behar duena besterik ez du gogoratu behar. Beraz, ardurak zerrendatzeko eta banatzeko taldeka egingo dugun prozesuaren bukaeran, ikasle bakoitzari egun horretan bete beharko dituen ardurak idatziz jasotzea baino ez diogu eskatuko.

Hona hemen adibide bat:

ZER EGIN BEHAR DA?	NORK EGINGO DU?
AULKIAK MUGITU	DEBOK
MAHAIK MUGITU	DEBOK
OIHALA JARRI	IKER ETA LEIRE
FRUTA ZURITU	UXUE, ANDONI ETA OIHAN
FRUTA ZATITU	IZAR, UBANE ETA IRATI
OGIA ZATITU	BARITZ, IRATI ETA UBANE
ESNEKIAK PRESTATU	HODEI, GOITZE MA IBAI
ZERRALAK PRESTATU	URTZI, MAREKI MA MAITANE
URA EKARRI	NEKEL MA ALAZNE
PLATERAK GARBITU	DEBOK
EDALONTZIAK GARBITU	DEBOK
SOBERAKIMAK BILDU	ANE, ANE MA ALAZNE
ERRATZA PASA	IKER ETA LEIRE

Irakasleak paper handian jasotakoa

ZER EGIN BEHAR DA?	NORK EGINGO DU?
AULKIAK MUGITU	DEBOK
MAHAIK MUGITU	DEBOK
PLATERAK GARBITU	DEBOK
EDALONTZIAK GARBITU	DEBOK
ERRATZA PASA	IKER ETA LEIRE
OIHALA JARRI	IKER ETA LEIRE

Iker ikasleak jasotakoa

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

40. jarduera	NONDIK DATOZ ELIKAGAIK?
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
	<p>1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i>, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
	<p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren erakitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p>
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, banaka eta binaka
MATERIALA	Lan-koadernoko 35-36 orrialdeak
AZALPENA	

Gorputza zaintzeko elikadura zaindu behar dugula, etengabe aipatzen ari gara. Baina... nondik datoz elikagaiak? Oraingoan elikagaien jatorriari buruzko hausnarketa txiki bat egingo dugu. Lan-koadernoko 35. eta 36. orrialdeak elikagaien jatorriari buruzko hausnarketan lagungarri gertatuko zaizkigu. Lehenengoan, elikagaiak naturatik datozela azpimarratuko dugu. Bigarrenean aldiz, elikagaiak jatorriaren arabera sailkatuko ditugu.

- Lan-koadernoa irekiko dugu 35. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, hitzak, hitzak idazteko kutxak eta irudiak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, goian aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu, ondorioztatu egingo dituzte.

- Ikasleak banaka hitzak dagozkien lekuan idatziko dituzte.
- Bukatzean, binaka egiaztatuko dute egindako lana, bai izendapenaren ikuspuntutik bai bakoitzaren idazkeraren aldetik.
- Irakaslea, bitartean, taldez talde ibiliko da zalantzak argitzen eta egindako lana gainbegiratzen.
- Prozedura bera jarraituko dugu hurrengo orrialdea lantzerakoan: orriari behatu, elementuen behaketa bideratu, esanahia argitu, banaka idatzi eta binaka egiaztatu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

41. jarduera	SAN BLASEKO OPILAREN ERREZETA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)	<p>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i>, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i>.</p> <p>1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren <i>testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea</i>.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	<p>1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako apendizaiia-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegiei erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.</p> <p>1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarritzko ezaugarriak hautemanetz.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Irakurgaiak 56. orrialdea	
AZALPENA		

Ohiko argibide-testua dugu errezeta. Ezaugarrien artean, bi zati nagusi dituela nabarmenduko dugu. Osagaietara dagokiena batetik, eta prozedura bestetik.

- Liburua irekiko dugu 56. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko.
- *Zer ikusten dugu orrialde horretan? (ERREZETA) Zertarako balio du? Non aurki ditzakegu horrelakoak?*
- Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: izenburua, osagaiak eta egiteko modua edo prozedura.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, goian aipatutako elementuak (izenburua, osagaiak eta prozedura) banan-banan irakurri eta esanahia argitu, landu, ondorioztatu egingo dituzte.
- Denboraz justu samar ibil gaitzkeenez, San Blas eguneko opila ikastolan egin beharrean, eguraldi txarreko asteburu batean familian elkarlanean gustura pasatzeko aukera eskaini diezaiekegu ikasleei. Horretarako, CD-ROMean, errezeta etxera eraman dezakete ikasleek, hurrek irakurtzeko moduan, letra larriz, editatu eta kopia bana eginda.
- Gure aldetik, ikastolan, opilak egiten ariko bagina bezala egingo dugu. Irakasleak osagaiak irakurriko ditu eta mahai gainean jarriko balitu bezala egingo du. Hurrek beste hainbeste egingo dute.
- Ondoren, irakasleak prozedura (lehenik, zenbaki bidez, eta ondoren, denbora-antolatzaileak erabiliz) irakurtzen duen bitartean, keinuak eta mugimenduak egingo ditu ikasleek errepika ditzaten.
- Jakina, jan ere egingo dugu, eta, gainera, oso goxoa egongo da.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

42. jarduera	ERREZETA EDO ERREZETA BILDUMA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i>, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrekerantz hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.8.3 Testua egoki aurkezten du: kaligrafia irakurgarri eta eraginkorra, emandako marjinak eta marrak, idazpuruak...</p> <p>1.8.8 Ikaskideekin batera testu jakin bat sortzea eta berrikustea helburu duten jardueretan parte hartzen du.</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p> <p>4.1.8 Laneko materialak arretaz erabiltzen ditu eta jasotzen ditu.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian, talde handian eta banaka	
MATERIALA	Material osagarrian dagoen errezetak idazteko fitxak, gurasoei bidaltzeko oharra (eranskinetan begiratu) irabiakia prestatzeko osagaiak, tresnak eta ontziak, etiketak egiteko kartoi mehe zatiak eta argazki-makina	
AZALPENA		

Elikagaiekin bueltaka gabiltzanez, errezeta idaztearekin zerkusia duten bi proposamen egingo dizkizuegu. Zuen esku geratuko da beraz, bata, bestea edo biak aurrera ateratzea.

- Material osagarrian aurkituko dituzuen hiru orrialdeak hartu eta gurasoei zuzendutako oharra batekin etxera bidaliko ditugu. Etxetik ekarritako errezeta guztiekin GELAKO ERREZETA BILDUMA osatu, fotokopiatu eta haur bakoitzari banatuko diogu etxera eraman dezan.
- Haur bakoitzak hiru errezeta idaztea gehiegi izan daitekeenez, gela hiru multzotan banatzea proposatzen dizuegu, hau da, haur batzuk lehenengo platera, beste batzuk bigarrena eta beste batzuk postrearen errezeta idaztea proposatzen dizuegu.
- Agian komeniko da ikasleek zein errezeta idatziko duten alde aurretik jakitea, bestela hainbat errezeta errepika daitezke.

Bigarren proposamena gure hamaiketako osasuntsuarekin lotuta dago. Hau da, hamaiketako egiteko ekarriko dugun janaria busti eta irensten lagunduko diguten edariei tokia egin behar diegu. Freskagarri osasuntsua prestatzeko lana martxan jarriko dugu. Lehengai osasuntsuak (frutak, barazkiak eta ura) konbinatuz egindako edariak prestatzea komeni zaigu, aho-sabairako gozoak direnak eta gure ikasle askorentzat zeharo ezezagunak. Aukera polita daukagu freskagarri komertzialen inguruan ikasleekin hitz egiteko. Freskagarri horiek, kaloria ugari izaten dituzte eta gorputzak beharrezko dituen mantenugai gutxi (batzuk batere ez). Horiek eta litxarrerria komertzial ugari ere, bete egiten dute, eta gure gorputzak behar dituen mantenugaiak dituzten elikagaiak jateko gogoak kendu.

Erraz prestatzen den errezeta proposatzen dizuegu:

FRUTA ETA JOGURT IRABIAKIA

Osagaiak: 4 jogurt natural, bi udare, bi platan, 3 laranja, limoi bat, 40 gramo azukre eta intxaurreak.

Egiteko modua: 1. Udareak eta platanak zuritu eta zatitu. 2. Laranja eta limoiarekin zuku egin. 3. Fruta zatiak eta zuku irabiatu. 4. Irabiatutako fruta eta zuku jogurtarekin nahastu. 5. Azukrea bota. 6. Irabiakia ontzietan jarri, gainetik intxaurre zatiekin apaindu.

- Irakasleak, ikasleak sukaldaria eraman aurretik, beharrezkoak diren tresnak eta ontziak eskuratuko ditu. Bestalde, udareak alde aurretik zuritzea eta intxaurre kraskatzea egokia izango da.
- Irabiakia prestatzen duzuen bitartean, errezeta idazteko lagungarri izan daitezkeen hainbat argazki egin ditzakezue.
- Prozedurak sei urrats dituzenez, ikasleak seinaka hartuko ditugu irabiakia prestatzeko. Besteek, bitartean, hamaiketakoaren eguneko janari eta edari bakoitzari jarriko diogun etiketatxo prestatzen ariko dira. Etiketa horietan, janariaren izena eta piramideari begiratzat zenbat bihotz dituen idatzi, marraztu, margotu, apaindu...
- Irabiakia hozkailuan sartuko ditugu, hamaiketakoan edateko prest. Ez ahaztu, erabilitakoa txukun-txukun bere tokian utzi eta gela zein ontziak garbitzeko denbora guztiz beharrezkoa dela.
- Beste egun batean, egindako irabiakiaren errezeta idatziko dugu. Horretarako, lagungarriak izango dira prozesuan ateratako argazkiak.
- Testuaren ezaugarriak, hau da, helburua eta egitura talde handian aztertuko ditugu. Ondoren, idatzi behar duten testuaren ahozko planifikazioari ekingo diogu. Idatz dezakegunaz hitz egingo dugu, testua arrazoituz eta proposatzen dutenaren egokitasunaz hitz eginez.
- Arbelean zuzentze, adoste... lana egin ondoren, testua berrirakurri egingo dugu. Bakoitzak bere orrian kopiatzeko eskatuko diegu. Ekoizpen-lana aurretik egin dagoenez, hau izan daiteke kopia proposatzeko ordua, hau da, letraren txukuntasunean arreta jartzeko ordua.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

43. jarduera	PROIEKTUA GAUZATU: HAMAIKETAKO EDO ASKARI OSASUNTSUA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzaren eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>2.5.1 Gelako kideen arteko harremanetan parte hartzen du.</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p> <p>4.1.5 Adostasunak lortzeko elkarriketa erabiltzen du.</p> <p>4.1.7 Lan-erritmo egokia izaten laguntzen du, eta saiatzeko da iraunkortasunez erritmoari eusten.</p> <p>4.1.8 Laneko materialak arretaz erabiltzen ditu eta jasotzen ditu.</p> <p>4.1.10 Ahal duen neurrian laguntzen die gainerakoei.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, txikia eta banaka	
MATERIALA	Mahaiak, mahai oihala, ontziak, elikagaiak, hozkailuan dagoen irabiakia, elikagaien etiketak, etiketak, erratza, ontziak eta eskuak garbitzeko xaboia, argazki-makina	
AZALPENA		

Unitate honetan proposatutako proiektua hamaiketako edo askari ederra prestatzea da, osasuntsuak diren era askotako jaki eta freskagarriekin. Hamaiketako gela barruan nahiz kanpoan presta dezakezue. Hamaiketako edo askaria egiteko bi ordu beharrezkoak izango direla aurreikusten dugu. Izan ere, ugariak dira egin beharreko lanak eta ahal den neurrian, lan guztia ikasleei era autonomoan egiten utziko diegu. Horretarako, pazientzia eta denbora behar izaten dira.

Ikasleek gela prestatu, elikagaiak ontzietan jarri, hamaiketako egin eta erabilitakoa jaso eta txukunduko dute. Irakasleak berriz, ekintza planaren jarraipena egin, beharrezkoa bada desbideratzeak zuzendu eta ikasleen behaketa egingo du. Izan ere, une horiek oso aproposak dira bakoitzaren ekimena, lan-erritmoa, erantzukizuna, gatazkei aurre egiteko gaitasuna, lankidetzaren parte hartzea... aztertzeko.

- Gela prestatzen hasi aurretik, norberak bere lana zein den dakiela ziurtatuko dugu. Hartara, denok lan pixka bat egin eta gozatzeko aukera izango dugu. Taldean adostutako arduren banaketak aginduko dio bakoitzari zer egin. Ikasle guztiek liburuko 14. orrialdea ireki eta taulan jasotako informazioa (arduren banaketa) irakurriko dute. Ondoren, irakasleak akta moduko paper handian jaso zituen ardura guztien zerrenda irakurri eta ikasleek eskua jasoko dute beraiek egin behar duten lana entzutean.
- Gela prest dagoenean, proiektuaren aurkezpen-orrian ikusi genuen bezala, denok eskuak garbitzera joango gara. Ondoren, norberak bere lanari ekingo dio.
- Prestatu dugun askaria edo hamaiketako jateko, dotore-dotore jantzi gaitezke. Gelan kutxa handi bat edukiko bagenu edo bestela etxetik ekar daitezke zapiak, gorbatak, ileordeak... Haur bakoitzak kutxatik zerbait hartu beharko luke eta horrekin bere burua apaindu. Argazki-makina eramaten baduzue, gerora barre pixka bat egiteko aukera izango duzue.
- Dena prest dagoenean, zutik edo aulkietan eserita, zerbait abestu edo jolasen bat egin daiteke, jaten hasi aurretik.
- Ez ahaztu jan ondoren dena txukun-txukun bere tokian utzi eta gela zein ontziak garbitzeko denbora guztiz beharrezkoa dela.
- Ondo pasa eta on egin!

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

44. jarduera	PROIEKTUAREN KOMUNIKAZIOA ETA BALORAZIOA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i>, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
1.8	Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i>, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	
2.3	Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nor bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeari, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoa, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.	
4.4	Hainbat testuingurutan, proposamen jakin baten arabera, prozesuan egindako ikasbideaz jabetzen da.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.8.1	Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.	
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikusuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
1.3.2	Berak esandakoari buruzko galderei erantzuten die (azalpen zehatza, beste informazioak...).	
2.3.4	Emozioak eta sentimenduak (amorrua, beldurra, poza, tristura, asperdura...) identifikatzen ditu, eta aurrera egiten saiatzen da bizikidetzarako arazo diren horien kontrolean.	
4.4.2	Aprendizaia prozesuaren hainbat uneetan egindako lanak era gidatuan eta elkarlanean alderatuz, aurrerapena balioesteko gai da.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, binaka eta banaka	
MATERIALA	Hamaiketakoaren eguneko argazkia, erosketa-zerrenda, material osagarria, liburuko 15. eta 24. orrialdeak.	
AZALPENA		

Azkeneko orrialde horretan proiektuaren balorazioa eta komunikazioa egingo dugu.

- Orrialde horiei ekin aurretik, hamaiketakoaren eguneko argazkia prest edukiko dugu. Lehenengo, egindako argazkia itsatsiko dugu.
- Sintesi-jarduera da, hau da, egindako lana balioesteko proposatzen den jarduera. Hiru alderdi dira unitate honetan balioestekoak:
 1. Hamaiketako edo askaria egin genuen egunean jan genuena: *Nola jan zenuten? Denetik jan zenuten edo zuen gustukoa bakarrik? Zuen gustuko elikagaiak askotarikoak dira edo multzo bakarrekoak? Ausartu al zineten zerbait lehen aldiz dastatzen?*
 2. Hamaiketako edo askaria bera: gogoia, gozamina, zailtasunak, ongi egindakoak, hobetu beharrekoak...
 3. Proiektuaren inguruko lanketak egunerokotasuneko ohituretan izan duen eragina: *Orain lehen baino osasuntsuago jaten al duzu?*

Lehenengo alderdia aztertzeko material osagarrian dugun piramidea erabiliko dugu. Irakasleak jaso zuen akta moduko erosketa-zerrenda aurrean dugula, ikasle bakoitzak jan zituenak piramidean kokatuko dira.

- Ikasle bakoitzak bere material osagarritik piramidea duen orria askatu egingo du.
- Irakasleak arbelean material osagarrian dagoen bezalako piramidea marraztuko du.
- Guztion artean pisu bakoitzean kokatu beharreko elikagaiak gogora ekarriko ditugu.
- Irakasleak gela osorako idatzi zuen erosketa-zerrendan idatzitako elikagaien izenak ordenan (zerealak, frutak eta barazkiak, esnekiak...) irakurriko ditu. Aldi berean, ikasle guztiek eta irakasleak berak, jan zituen elikagaien izenak piramidean idatziko ditu.
- Piramidea osatu ondoren, irakasleak piramidea aztertzeko hainbat galdera kopiatuko ditu arbelean; adibidez:
 - *Multzo guztietatik zerbait jan al zenuen? Zuen gustuko elikagaiak askotarikoak dira edo multzo bakarrekoak? Ausartu al zineten zerbait lehen aldiz dastatzen?*
- Lehenbizi, irakaslearen piramidea aztertuko dugu goiko galderak erabiliz. Ondoren, ikasleak binaka elkarren piramideak aztertuko dituzte gidoi bera erabiliz.

Sintesi jardueraren **bigarren atalean** proiektua bera ebaluatuko dugu. Alde batetik, gogoia eta gozamina eta bestetik hobetu beharrekoak.

- Liburuko azken orria irekiko dugu eta lehen galdera irakurriko dugu eta esanahia argituko dugu. Minutu batzuk bakarka pentsatzeko aukera eman ondoren, erronda bat irekiko dugu, bakoitzak, labur, zer pentsatu duen esateko aukera eskainiz. Bukatzeko, pentsatutakoa liburuan idatziko dute; adibidez:

PRIMERAN PASA DUT. IRABIAKIA EGITEA GUSTATU ZAIT.

- Atal honekin bukatu aurretik, ondo egindakoak eta hobetu beharrekoen inguruko hausnarketaxoa bultzatuko ditugu. Agian, akta moduko paper batean jasotzea interesgarria izan daiteke, hurrengo proiektuei begira.

Hausnartu beharreko **azken atalak** eguneroko bizitzarekin lotura hertsia du. Astebeteko menua aztertu genuenean, familia bakoitzaren elikadura-ohituren inguruko ondorio batzuk atera genituen. Ondoren, familiakoei elikadura hobetzeko proposamena egin genien edo hobetzeko alderdirik ez bazegoen etxekoak zoriondu genituen. Gure ikasleen elikadura ohiturak neurri handi batean etxekoaren ardura denez, garrantzitsua iruditu zaigu orduan hartutako konpromisoa betetzen ari diren edo ez jakitea.

- Azkenik, liburuko azken orria irekiko dugu eta goiko laukiko laugarren galdera irakurri eta esanahia argituko dugu. Minutu batzuk bakarka pentsatzeko aukera eman ondoren, erronda bat ireki dezakegu, bakoitzak, labur, zer pentsatu duen esateko aukera eskainiz. Bukatzeko, pentsatutakoa liburuan idatziko dute; adibidez:
 - BAI, ORAIN NIRE ETXEAN ASTEAN BITAN LEKARIAK JATEN DITUGU.
 - EZ, ORAINDIK EZ DUT ARRAINA DASTATU.
- Erantzuna ezezkoa bada, haurrak animatuko ditugu, orain behintzat zer aldatu behar duten badakitela, eta oraindik ohitura hori aldatzeko denbora badagoela esanez.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

45. jarduera	BERRIA: HERIOTZA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.1 <i>Ahozko azalpen sinple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaii buruzkoak).</i>	
1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren <i>testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.</i>	
4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.1.4 Entzundako testu baten oinarritzko ideia batzuk gogoratzen ditu eta ahoz adierazten ditu haiei buruzko galdera zuzenei erantzunez.	
1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarritzko ezaugarriak hautemanenez.	
4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Irakurgaiak 57. orrialdea
AZALPENA	

Orrialde horretan agertzen den testuaren bidez, haurren artean hausnarketa bultzatuko dugu. Gure helburua haurrek diotena entzutea, bideratzea eta kontraesanak sortzea da, gure iritzia geroxeago eman baitezakegu. Egoera hori, giza justiziaren ikuspuntutik eta baita gure inguruko kontsumoaren gehiegikeriaren aldetik enfokatzeko proposatzen dugu, baita gehiegikeria eta urritasuna osasunaren ikuspuntutik aztertzea ere.

Beraz, berria aztertuko dugu, bai mezuari dagokionean, baita egiturari dagokionean ere. Berriak aztertzerakoan izenburua, azpi-izenburua, argazkiak, argazkiaren oina eta berria behatuko ditugu eta bakoitzaren ezaugarriak ondorioztatzen saiatuko gara.

- Irakasleak *Irakurgaiak* liburuan aurkituko duen berria irakurriko dio taldeari. Haurrei esan berri bat irakurriko diezuela eta erakutsi orrialdea: *Ba al dakizue zer den hau? Zertarako dira berriak?*
- Beharazi goian izenburua dagoela, gero argazkia, ondoren azpi-izenburua eta azkenik berriaren mamia: *Non aurki ditzakegu horrelakoak? Telebistan ere berriak ematen al dituzte? Adibidez...*
- Esan orain berriaren izenburua irakurriko diezuela.
 - *Inork ba al daki zer den gosea ase gabe ohera joatea? Zuei gertatu al zaizue inoiz? Nola sentitu zarete?*
 - *Zergatik egongo ote dira munduan 800 bat milioi pertsona ohera gosez joaten direnak?*
 - *Ba al dakizue zenbat den 800 bat milioi pertsona? (Europa osoko populazioa baino gehiago)*
- Orain argazkiari behatuko diogu:
 - *Haur horiek gosez bizi direla iruditzen al zaizue? Hala bada, zergatik daukate sabela hain handituta? (Elikadura egokia ez denean, gorputzak ez du ondo funtzionatzen eta haur horiek gaixotu egiten dira. Gibelak ondo funtzionatzen ez duenean, urdaila likidoz betetzen da. Gaixotasun horri ascitis deitzen zaio.)*
- Irakurri orain berria (titulua berriz, azpititulua eta berria bera azkenik). Jardueraren helburua, besteak beste, ahozko azalpenaren esanahi orokorra identifikatzea da. Beraz, berria paragrafoka irakurriko dugu eta ea ikasleak oinarritzko ideiak gogoratzeko gai diren ikusiko dugu.
- Arretaz entzuten laguntzeko, erne egoteko esango diegu haurrei, paragrafo bakoitzeko gezur bat esango baitugu. Ikasleak hiru taldetan jarriko ditugu eta paragrafo bat irakurtzen dugun bakoitzeko beraien artean hitz egiteko edo eztabaidatzeko tarte bat eskainiko diegu. Talde bakoitzeko hitz egiteko txanda emango duen moderatzailea eta esataria aukeratzea komeni da. Eztabaidarako denbora bukatu denean, esatariak taldean erabakitakoa esango dio talde handiari "Gure ustez gezurra da.....". Beste taldeak ados badaude, testuarekin aurrera egingo dugu, bestela taldeen arteko eztabaida eta iritziak arrazoitzea bultzatuko ditugu. Gezurra antzeman ondoren, berriari azaltzen den bezala irakurriko dugu, eta paragrafoaren esanahia argitu, landu, edo eztabaidatu egingo dugu. Gezurak honako hauek izan daitezke: *Gosea desagerrarazteko ez da ahaleginik egiten. Lau egunetik behin pertsona bat goseak hiltzen da munduko bazter batean. Munduan ez da ekoizten herritarrok elikatzeko adina janari.*
- Bukatu aurretik, ikasleak konponbideak aurkitzera bultzatuko ditugu: *Zer egin genezake arazo horri aurre egiteko? Imajina dezagun X ekintza hasi dugula. Konponduko al da arazoa?*

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

46. jarduera	HERIOTZAREN INGURUKO HAUSNARKETA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.
2.3	Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nor bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzuz, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikus puntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.
2.3.4	Emozioak eta sentimenduak (amorrue, beldurra, poza, tristura, asperdura...) identifikatzen ditu, eta aurrera egiten saiatzen da bizikidetzarako arazo diren horien kontrolean.
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian
MATERIALA	Irakurgaiak 57. orrialdea
AZALPENA	

Heriotzaren gaiaren inguruan haurren artean kezka edo gehiago jakin nahia sumatzen baduzue, gai horretan aditua den Maria Antonia Plaxatsek, gaiari buruzko ondorengo argibideak eman dizkigu:

Gure hezitzaile lanean gure ikasleekin lortu eta landu beharreko helburuez mintzo garenean, heriotzaren gaia aintzat hartu beharko genuke.

Hiru urtetik aurrera haurrak joko sinbolikoa erabiltzen du eta horren bidez beste gauza askoren artean heriotza irudikatzen du joko horretan. Joko gisa erabiltzen du eta zalantzarik gabe oraindik ez du itzulezintasunaren kontzientzia garatu. Haurrak bere burua ahalguztiduna ikusten du eta ahalmen horren bidez behin eta berriro piztu dezake hildakoa. Magia erabiliz, galeraren ideiarri aurre egiteko baliabideak indartzen dituzte eta atxikimendu hau izango da gerora galerak edo desatxikimenduak ziurtasunez onartzen lagunduko diona.

Ez da berria, haurren apendizaiaren oinarrian behaketa eta imitazioa dagoela esatea. Bada, hori ulertzen badugu, badakigu neurri handi batean gure esku dagoela heriotzaren integrazioa haurrengan. Gure beldurrak proiektatzen badizkiegu, bereak diren mekanismoak sortzeko aukera kentzen diegu, propioak dituzten baliabideak alegia.

Gogoan dut bost urteko haur baten amak esan zidana. Haurrak, larritasun handiz, ama hilko ote zen galdetu zion amari berari. Amak baietz erantzun zionean, negarrez hasi eta hiltzerik ez zuela nahi esaten zion. Kasua aipatzen badut, zera adierazteko da: haurra laguntza eske zebilela berarentzat oso gogorra zen gertakizun bat bereganatzeko. Hori berehala ez dela gertatuko esatea, bere larritasuna eta kezka ulertua dela transmititzea, gaia saihestuz ez ixtea... Haurrari lagunduko dioten estrategia batzuk dira.

Zailtasunak, geure burua gai ikusten ez dugunean etortzen dira. Ez dugu gure burua gai ikusten gu geuk heriotzaren inguruan ditugun larritasunei eta kezkei erantzuna aurkitu ez diegunean. Orduan, haurrei transmititzen diegu galeraren ukazioa dela larritasuna saihesteko baliagarria den mekanismoa.

Nola jokatu orduan?


- Entzun beti haurren galderak. Gure beldurrak direla medio ez moztu beren adierazpena.
- Natura etengabe aldatu egiten da, garai berri bati ekiteko. Beraz, naturari erreparatuz, galeraren errealitatea integra dezaketen metaforak erabiliz azaldu dezakegu heriotza zer den; adibidez: urtaroak edo itsasoko olatuak.
- Saiatu gezurrak saihesten eta sufrimendua eragozteko asmoz ez sortu itxaropen faltsurik.
- Haurrak galdetzen duen punturaino informatu beti.
- Hildakoarekin haserre egonik ere, gertatutakoa, inola ere, ez dela bere errua jakinarazi.
- Emozioen adierazpena erraztu: ipuinen bidez, marrazkien bidez, musiken bidez...
- Heriotzaren aurrean, dolu erritualetan parte hartzea ez eragotzi, nahi dutenean behintzat eta euren modura egiten utzi: lore bat, marrazki bat...
- Agurra antolatu, gutun bidez, marrazki bidez...

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

47. jarduera	ENTZUNALDIA: OLATU EZJAKINA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i>, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i>. 3.1 Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea. 3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako apendizaiia-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegi erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu. 3.1.6 Ingurumeneko soinuak aurkitzeko jakin-mina du, eta hainbat estilo eta kulturatako musika-lanak entzuten gozatzen du. 3.1.9 Entzuketetan eta beste hainbat musika-emanalditan izan beharreko jokabideak ezagutzen eta errespetatzen ditu. 3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka edo binaka	
MATERIALA	Jardueren CDa (19. pista) eta jarduera honen azalpenean aurkituko duzun <i>Olatu ezjakina</i> ipuina.	
AZALPENA		

Entzun behar dugun musika hau oso ezaguna egingo zaizue, Bacarisseren *Gitarra eta orkestrarako concertinoa* da. Heriotzaren inguruko hausnarketa egin dugula baliatuta, musika horrekin hemen agertzen den *Olatu ezjakina* ipuina irakurri eta irudikatuko dugu.

- Konpositorearen biografia irakurri eta "Gure konpositoreen txokoa"n jarri.
- Hurrekin landu aurretik, ipuina eta musikaren tempoa neurtzeko hiruzpalau aldiz saioak egitea komeniko litzateke.
- Dena prest duzuenean, hurrei lasai etzateko eskatuko diegu eta guk irakurri behar diegun ipuina eta musika entzunez, beraien "filma" osatzeko, begiak itxita irudikatze eskatuko diegu.
- Ondoren, ipuinaren marrazkia egiteko eskatuko diegu, hiruhileko bukaeran etxera eramango duten entzunaldien karpetatxoan sartzeko.
- Beste aukera bat da ipuinaren egoerak irudikatzea marrazkien bitartez. Horretarako, honako prozedura honi jarraituko diogu:
 1. Irakasleak aurreikusi behar du zenbat diren irudikatze moduko egoerak eta horren baitan ikasleak banaka edo binaka jarri.
 2. Talde bakoitzari irudikatu behar duen testua edo ipuinaren zatia idatzita eman. (Laukia ikusi)
 3. Hurrek dagokien ipuin zatiaren marrazkia egingo dute.
 4. Marrazki horiek guztiak eskaneatu.
 5. Eskaneatutako irudiak ordenatu eta Power Point edo Windows Media Player erabiliz, ipuinaren inguruko aurkezpena prestatu.
 6. Ikastolako web-orrian jarri edo ikasle bakoitzari etxetik pendrive bat ekartzeko eskatu eta kopia bana egin.



OLATU EZJAKINA

Mixel Murua

Bazen behin olatu txiki bat itsas zabalean oso pozik bizi zena. Tiobiboan bezala ibiltzen zen olatu txikia ur azalean gora eta behera; orain gora, orain behera, orain gora, orain behera...

Olatu txikiak olatu lagun asko zituen, eta, guztiak errenkadan jarrita, bata bestearen atzean joaten ziren itsasoko zelai mugagabeen, orain mendiak, orain sakanak eratuz.

Olatu batzuek, zaharrenek eta baldarrenek, mantso eta makal ibiltzea atsegin zuten, baleak bezala. Beste zenbait, gure olatu txikia tarteko, bihurriak eta jostariak ziren, eta horiei saltoka eta brinkoka gustatzen zitzairen ibiltzea, izurdeen antzera.

Halaxe bizi ziren olatuak itsaso zabalean.

Behin, ordea, itsaslasterrek eta haizeak itsasertzerantz bultzatu zituen olatuak. Gure olatu txikiak ez zuen sekula halakorik ikusi, eta liluratuta geratu zen han aurrean bistatzen zituen harkaitzei eta hondartzei begira.

Lehen hain urrutian ikusten zuen hondartza hura gero eta hurbilago zuten. Eta kaoiak hurbildu zitzaizkien jostari.

Bat-batean, ordea, ai ama!, aurreko olatu bat abiadura handitu eta, inoiz ez bezala puztuz, hondarraren kontra lehertu zen, apar artean, bortitz: BROUMM!

Eta berdin egin zuen haren atzekoak, BROUMM! eta ondorengoak, BROUMM!, eta baita hurrengoak ere, BROUMM!, BROUMM!, BROUMM!

Olatu txikiak dar-dar egin zuen izuturik.

Lehertu ondoren, olatua ur ertzeraino heldu eta hil egiten zen indarrak ahiturik. Hondartzan olatuaren lerro bat geratzen zen markaturik, eta lerro huraxe zen haren izatearen lekuko bakar. Gero, itsasoak irentsi egiten baitzuen olatua izan zena. Baina orain olatua ez zen olatu; ur multzo soila zen, puzteko eta tiobiboan gora eta behera ibiltzeko gauza ez zena.

Gero eta hurbilago zuten hondartza, gero eta hurbilago. Eta gero eta beldurtuago zegoen olatu txikia, gero eta izutuago...

Hartan, altxatu zituen begiak, eta... han non ikusten duen bere aurreko olatu laguna kaioekin jolasean, kontentuz beterik.

—Baina zertan habil txolin burugabea! —kargu hartu zion estu eta larri gure olatu txikiak lagunari—. Ez haiz konturatzen hondartza horretara goazela zuzenean eta betiko galduko garela? Ez haiz konturatzen ez dugula inoiz gehiago elkar ikusiko? Ezjakina halakoa!

Eta orduan bere lagunak erantzun zion:

—Ezjakina heu, adiskide maitea, oraindik ez baihaiz jabetu gu ez garela inoiz desagertuko. Gu beti egongo gaitun elkarrekin, gu guztiok baikara... **ITSASOA!**

BROUMM!

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

4. JARDUERA SEKUENTZIA. Gorputza barrutik eta ohitura osasuntsuak.

48. jarduera	OLERKIA: GORPUTZAREN BARNEALDEA EZAGUTZEN	
ZIKLOKO HELBURUA(K)	<p>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i>, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</p> <p>1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i>, modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atseden eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.</p> <p>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	<p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikusuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>1.8.3 Testua egoki aurkezten du: kaligrafia irakurgarri eta eraginkorra, emandako marjinak eta marrak, idazpuruak...</p> <p>2.3.2 Jakin-mina adierazten du giza gorputzaren funtzionamenduaren inguruan, halaber gai da atal nagusiak identifikatu eta izendatzeko.</p> <p>3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Gelako material arrunta	
AZALPENA		

Bapo-bapo jan eta gero, jan ondorengoak aztertuko ditugu. Orain arte elikagaiak aztertu ditugu. Orain elikagai horiek gorputzean barrena egiten duten ibilbideaz (digestioa) arituko gara.

Sekuentziaren zati honek ez dio erantzuten curriculumaren beharrei, baizik ikasle askok gorputzaren barruan gertatzen denaren inguruan duten berezko jakin-minari. Beraz digestioa zertan datzan era xume-xumean lantzeko unea da eta ez gara digestio-organoak eta prozesua sakonki irakasten ari.

Haurrek digestioari buruz dituzten ideiak entzuteko talde handiko elkarrizketa bideratuko dugu. Prozesu hori martxan jartzeko Joxan Ormazabalaren olerkia baliatuko dugu.

AHOAN SARRERA
ETA IPURDIAN IRTEERA
GURE GORPUTZA BARRUTIK
EZ AL DU KOBAZULO ILUN,
LUZE, BUSTI BATEN TANKERA?

- Irakasleak, olerkia arbelean idatzi ondoren, testua irakurriko die ikasleei. Arbelean kopiatu beharrean, testua proiektatu dezakezue edo arbel digitalean (liburu digitala) ikusi.
- Arbelean idatzi ondoren, irakasleak olerkia irakurri egingo die ikasleei. Ondoren, denon artean irakurriko dugu.
- Irakasleak aurre-ezagutzak aktibatzeke eta detektatzeko elkarrizketa/hausnarketa bideratuko du galdera irekien bitartez:
 - Zer esaten digu olerkiak? Zuen ustez zer gertatzen da jaten dugunean? Janaria nora joaten dela uste duzue? Desagertu egiten da? Zuzenean komun zulotik botatzen dugu? Gure hanka barruko giharrek ogitartekoa irentsi al dezake? Nola iristen zaio bada energia?

Gogoratu une hau aurre-ezagutzak martxan jarri eta ikasleek dakitena partekatzeko unea dela. Egoera honetan hipotesiak trukatzeko dituzte eta ezagutzak birformulatu egiten dira, beraz, hizkuntza ulertzeko eta ekoizteko gaitasuna garatzen da. Oro har, irakasleak badaki ikasleek zer esan dezaketenean eta nora eraman nahi dituen, baina ikasleak berak hasi behar du bere hitzak argitzen. Irakaslearen lana ez da erantzun guztiak ematea edo ebaluatzea, baizik eta elkarrizketa bideratzea, ikasleek ideiak biltzea, ordenatzea, ikasleek ekarpenak ulergarriago egiten laguntzea eta ekarpenen balioa agerian uztea.

- Haurrek, orri zuri batean edo koaderno batean olerkia kopia dezakete, eta marrazki batez ilustratu.
- Olerkiak aukera ematen digu, kodearen behaketa zehatza egiteko, errimak behatuz, berdina bukatzen diren hitzen zerrendak eginez edo hitz zehatzak bilatuz.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

49. jarduera	DIGESTIOA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.2	Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i> , aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i> .	
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
1.5	Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea</i> eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i> .	
2.3	Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoa, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.	
4.1	Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzaren eta errespetu jarriaren aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.2.2	Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako apendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegi erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.	
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikus puntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
1.5.1	Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.	
2.3.2	Jakin-mina adierazten du giza gorputzaren funtzionamenduaren inguruan, halaber gai da atal nagusiak identifikatu eta izendatzeko.	
4.1.1	Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, talde txikian	
MATERIALA	Liburuko 16-17 orrialdeak eta Birraitonaren makina DVDA	
AZALPENA		

Orrialde honetan eta ondorengoetan digestioaz edo digestio-aparatuaz arituko gara. Hainbat jarduera proposatuko zaizkizue.

- Talde handian liburuko orrialdearen **behaketa** bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: globoak, testua duten kuxkak, irudiak eta bideoaren ikonoa.
- Irudien inguruko **elkarrizketaren** bidez, ikasleek dakitena partekatzen jarraituko dugu. Irudietan nahiko argi ikusiko dute janaria formaz aldatu, hainbat tututan barrena joan eta berriz atera egiten dela. Baina oraindik ikasleek ideiak egiaztatu eta erantzun gabeko hainbat galdera ditugu:
 - *Nola iristen dira elikagaiak gorputzeko atal guzietara?*
 - *Zer gertatu da hirugarren iruditik laugarrenera? Zergatik aldatu da kolorez janaria?*
 - *Nola dute izena hor azaltzen diren organoek?*
- Orain beren ideiak egiaztatu eta informazio gehiago eskuratu nahi ote duten galdetuko diegu. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, alde batetik bideoa ikusi eta bestetik testuak irakurriko ditugu.
- Lehenengo aldiz bideoa denok elkarrekin ikusiko dugu, baina bigarren eta hirugarren alditan gela lau taldetan banatuko dugu. Izan ere, testuak entzutean informazioa denbora errealean prozesatu behar dugu; beraz, entzun beharreko testua ezin da oso luzea izan.
- Talde bakoitza digestioan adituak izango da. Fase horretan zer gertatzen den eta parte hartzen duten organoen izenak zein diren entzun behar dute: aho fasean, urdail fasea eta heste fasea. Azkenekoa bi zatitan banatuko dugu, heste meharrean gertatzen dena eta heste lodian gertatzen dena.

Aurreko unitatean egin genuen bezala, *lan kooperatiborako puzzlea* teknika aplikatzea proposatzen dizuegu. Jarduera horren bidez, elkartzunez lan egiteko dauden tekniketako bat aurkeztu, eta martxan jartzea proposatzen dizuegu. Garrantzitsua deritzogu, lana ondo burutzeko, pauso guztiak adierazi bezala jarraitzeari.

1. Ikasleak launaka jarriko ditugu, prozesua lau urratsetan banatuta dagoelako. Jatorrizko taldeak izango dira.
2. Talde bakoitzeko kideei zenbaki bat emango diegu, batetik laura edo kasu honetan digestio fase bat: ahoa, urdaila, heste meharra eta heste lodia.
3. Ikasleak A, B, C eta D talde berrietan jarriko ditugu, ikasle bakoitzak duen zenbakiaren edo digestio prozesuaren arabera. Hau da, 1 zenbakia duten guztiak elkarrekin A taldean, 2 zenbakia duten guztiak elkarrekin B taldean, 3 zenbakia duten guztiak elkarrekin C taldean eta 4 zenbakia duten guztiak elkarrekin D taldean.
4. Talde bakoitzaren eginbeharra prozesuaren urratsa ahalik eta ondoen deskribatzea izango da. Ikasleek duten paper zaharrean edo arbel zurian dagokion prozesuaren ezaugarri nagusiak deskribatzeko hitz gakoak idatziko ditu: A taldeak lehenengo urratsa, B taldeak bigarrena, C taldeak hirugarrena eta D taldeak laugarrena.

Adibidez: Ahoa: murtxikatu, listuarekin nahastu, bola

Urdaila: ahia

Heste meharra: elikagaiak xurgatu, odolak gorputzean banatu.


Heste lodia: ura xurgatu eta kanporatu.

Hitz gakoak idatzi dituzten paperak gordetzea komeni da. Izan ere, hurrengo jardueran, taldekatze eta eduki bera erabiliz, prozesua idatzi beharko dute.

5. A, B, C eta D taldeetako kide guztiek egokitu zaien prozesuaren urratsa paper zatian edo arbelean idatzita dutenean, beren jatorrizko taldeetara itzuliko dira. Horrela, prozesu osoa ezagutzen duten lagunak elkartuko dira jatorrizko taldeetan.
6. Kide bakoitzak besteei, beren fasea azaldu egingo die.

Teknika horren bidez lan eginda, denen parte hartzea ziurtatzeaz gain, prozesuaren mementoren batean denen ideiak azalduko dira eta hori garrantzitsua da norbanakoentzat. Horrez gain, entzuketara aktiboa eta adierazpeneko gaitasunak landuko dituzte ikasleek: besteen iritziak entzun eta ulertu, norberarenak azaldu, aurreko taldean adostutakoa hurrengo taldeari adierazi, etab.

Hona hemen, taldekatzeen adibide grafikoa:



- Orain bai, liburuan dauden testuei ekingo diegu. Ikasleek irakaslearen laguntzarekin testuak banan-banan irakurri, esanahia argitu, landu edo ondorioztatu egingo dute. Ondoren, testuaren hitz gakoak erabaki eta biribildu, eta azkenik banaka edo binaka testuak eta irudiak lotuko dituzte.
- Bukatu aurretik hasierako hipotesiak eta ikasitakoa egiaztatzeko unea izango da, zenbat ikasi dugun aipatuz.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

50. jarduera	PROZESUA BERRIDATZI
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
	<p>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nor bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.</p> <p>4.4 Hainbat testuingurutan, proposamen jakin baten arabera, prozesuan egindako ikasbideaz jabetzen da.</p>
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
	<p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia- fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>2.3.2 Jakin-mina adierazten du giza gorputzaren funtzionamenduaren inguruan, halaber gai da atal nagusiak identifikatu eta izendatzeko.</p> <p>4.4.1 Prozesuan landutako ideiak, hainbat tresnen bidez era gidatuan biltzeko gai da.</p>
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Lan kooperatiboko <i>Puzzlea</i> izeneko teknikaren arabera taldekatzea.
MATERIALA	Lan-koadernoko 39. orrialdea
AZALPENA	

Lan-koadernoko fitxa horretan eskatzen den testu osoa idaztea lehen mailako ikasleentzat lan neketsua izan daitekeenez, *lan kooperatiborako puzzlea* teknika aplikatzea proposatzen dizuegu. Aurreko jardueran erabilitako eduki eta taldekatze bertsuak direnez, ikasleek aurrekoan egindakoa errepikatu beharko lukete. Aurrekoan ahoz eta oraingoan idatziz egingo dute. Hala ere, aditu taldeetan elkartzen direnean, taldeko kide guztiek egokitu zaien urratsa idatziz jaso dutela ziurtatu behar dugu, beren jatorrizko taldeetara itzuli aurretik. Izan ere, jatorrizko taldeetan egokitu zaien urratsaren azalpena taldeko kideei diktatuko diete. Teknika hori aplikatu ahal izango duzue, baldin eta ikasle gehienek alfabetikoki idazten badute. Bestela, itzarotea gomendatzen dizuegu.

- Idazten hasi aurretik, komeniko litzateke, aurreko jardueran egindako lana gogoratzea talde handian, bai prozeduraren aldetik baita edukien aldetik ere.

Jarduera honen bidez, elkartasunez lan egiteko dauden tekniketako bat martxan jartzea proposatzen dizuegu. Garrantzitsua deritzogu, lana ondo burutzeko, pauso guztiak adierazi bezala jarraitzeari.

1. Ikasleak launaka jarriko ditugu, prozesua lau urratsetan banatuta dagoelako. Jatorrizko taldeak izango dira.
2. Talde bakoitzeko kideei zenbaki bat emango diegu, batetik laura.
3. Ikasleak A, B, C eta D talde berrietan jarriko ditugu, ikasle bakoitzak duen zenbakiaren arabera. Hau da, 1 zenbakia duten guztiak elkarrekin A taldean, 2 zenbakia duten guztiak elkarrekin B taldean, 3 zenbakia duten guztiak elkarrekin C taldean eta 4 zenbakia duten guztiak elkarrekin D taldean.
4. Talde bakoitzaren eginbeharra prozesuaren urrats bat lan-koadernoan idaztea izango da. A taldeak lehenengo urratsa, B taldeak bigarrena, C taldeak hirugarrena eta D taldeak laugarrena.
5. A, B, C eta D taldeetako kide guztiek egokitu zaien prozesuaren urratsa koadernoan idatzita dutenean, beren jatorrizko taldeetara itzuliko dira. Horrela, testu osoaren zatiak idatzita dituzten lagunak elkartuko dira jatorrizko taldeetan.
6. Kide bakoitzak besteei, beren testua diktatu egingo die eta besteek testua idatziko duten beren lan-koadernoetan.

Teknika horren bidez lan eginez, denen parte hartzea ziurtatzeaz gain, prozesuaren mementoren batean denen ideiak azalduko dira eta hori garrantzitsua da norbanakoentzat. Horrez gain, entzuketa aktiboa eta adierazpeneko gaitasunak landuko dituzte ikasleek: besteen iritzia entzun eta ulertu, norberarenak azaldu, aurreko taldean adostutakoa hurrengo taldeari adierazi, etab.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

51. jarduera	ABESTIA: GORPUTZA BARRUTIK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibiltate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.</p> <p>2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziarik erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.3.2 Jakin-mina adierazten du giza gorputzaren funtzionamenduaren inguruan, halaber gai da atal nagusiak identifikatu eta izendatzeko.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 21. orrialdea, abestien CDa (25. pista)	
AZALPENA		

Gorputzeko beharrei erantzuteko digestio-aparatuak ez ezik hainbat organok eta aparatuk ere era koordinatuan lana egiten dute. Horretaz jabetzen asteko, bost urteko gelan ikasitako organoen inguruko abestia gogoratzeko une egokia izan daiteke.

- Lehenik eta behin CDa jarriko dugu, ikasleek abestia entzuteko.
- Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi/abestu nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikarik gabe ikasleek hitzak esaldika errepikatuko dituzte. Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin. Esaldiak keinu jakin batekin lotuz, hitzak hobeto gogoratuko dituzte.
- Abestia ikasi ondoren, liburuan irakurriko dugu. Tartetxo bat eskainiko diegu ilustrazioak eta testua begiratu/irakurri dezaten. Ondoren, kodearen inguruko behaketa bultza dezakegu:
 - Gure gaiarekin zerikusia duten hitz batzuk bilatu eta biribilduko ditugu: *birikak, bihotza, urdaila, zainak, hezurak...*
 - Zenbat aldiz azaltzen da GORPUTZA hitza testuan? Ba al da abestian G letrarekin hasten den beste hitzik? Ezagutzen al duzue TZA bukaera duen beste hitzik? (ARKATZA, ARRAUTZA, ARANTZA, ARRANTZA, HARITZA...) Ikasleei bururatzen ez bazaizkie definizio errazen bidez lagunduko diegu; adibidez: Nola du izena idazteko erabiltzen dugun tresnak? Zer erruten dute oiloek?

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

52. jarduera	HITZ GURUTZATUAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea</i> eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.</p> <p>2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nor bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentzieko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)</p> <p>2.3.2 Jakin-mina adierazten du giza gorputzaren funtzionamenduaren inguruan, halaber gai da atal nagusiak identifikatu eta izendatzeko.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, binaka eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 37. orrialdea	
AZALPENA		

Definizioak irakurri eta dagokion organoarekin erlazioan ondoren, hitz gurutzatuak osatuko ditugu.

- Irakasleak agindua irakurriko du. Ariketa horri zergatik deitzen zaion "hitz gurutzatuak" galdetuko diegu ikasleei. Erantzun zuzena ez badakite, ariketa bukatu ondoren talde handian ondorioztatzen saiatuko gara.
- Lanean hasteko, orrialdean barreiatuta ditugun izenak goiko koadroan dauden "definizioekin" erlazioan jarri beharko ditugu. Beraz, hitzetatik edota definizioetatik has gaitzke. Hitzetatik hasiz gero, lehenbizi, organoen izenak beheko biribiletan idatzita daudela esango diegu. Bakarka, izenak irakurtzen saiatuko dira. Kodeari behatzeaz gain, zerekin lotuko lituzketen galdetu ikasleei: nolabait eurek sortuko dute "definizio" moduko bat. Lauko talde bakoitzari hitz bat eman eta pentsa dezatela; adibidez: birrikak arnasarekin lot daitezke.
- Gero, talde handian, lan-koadernoko definizioak irakurriko ditugu, hitz gakoak biribilduz.
- Lehenbizi banaka, eta gero ondoko lagunarekin egiaztatuz, biribiletan irakurritako definizioari dagokion hitza aurkituko dute. Izenaren ondoan zenbakia idatziko dute. Definizio bakoitzari hitz bat atxikiko diogu, beheko hitzen ondoan dagokion definizioaren zenbakia jarrita.
- Prozeduraren aurreko urratsei jarraituko diegu bost definizioekin.
- Azkenik, zenbakiei erreparatu, hitz bakoitza dagokion tokian idatziko dute, bakarka.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

53. jarduera	GURE GORPUTZA MAKINA PERFEKTUA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i>, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i>.</p> <p>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i>, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</p> <p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea</i> eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.</p> <p>2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nor bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako apendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegiei erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.</p> <p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikusuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)</p> <p>2.3.2 Jakin-mina adierazten du giza gorputzaren funtzionamenduaren inguruan, halaber gai da atal nagusiak identifikatu eta izendatzeko.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, talde txikian eta berriz talde handian	
MATERIALA	Liburuko 18-19 orrialdeak	
AZALPENA		

Giza gorputza sistema bat da eta halaber, elkarri loturik eta koordinaturik lan egiten duten organo eta aparatuz osaturik dago. Jabetze-prozesuan laguntzeko, gure gorputza makina batekin erlazionatzen saiatuko gara. Bi orrialde horiek lantzen ikasleak ideia garrantzitsu bat barneratzen has daitezke saiatuko gara. Hau da, gizakiaren nutrizio beharrei erantzuteko hainbat aparatuk koordinaturik egiten duela lan: digestio-aparatua (mantenugaiak eskuratzeko), arnas aparatua (karbono dioxidoa kanporatu eta oxigenoa eskuratzeko), zirkulazio-aparatua (gorputzean zehar mantenugaiak, oxigenoa, hondakinak eta karbono dioxidoa garraiatzeko) eta iraitz aparatua (bestelako hondakinak kanporatzeko). Beste aparatuek, mugitzeko beharrei (lokomozioa) eta ugalketari, hau da espeziaren bizirauteko premiari (ugalaparatua) erantzuten diote.

Sekuentziaren zati horrek ez dio erantzuten curriculumaren beharrei, baizik ikasle askok gorputzaren barruan gertatzen denaren inguruan duten berezko jakin-minari. Beraz gorputza osatzen duten aparatuek era xume-xumean lantzeko unea da.

- Talde handian liburuko orrialdearen **behaketa** bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: galdera ikurra, azalpen testuak eta irudiak.
- Ikasleei tartetxo bat emango diegu biribil berdearen barruan dagoen testua irakurtzeko eta **elkarrizketa** bideratuko du galdera irekien bitartez:
 - *Gure gorputza makina bat al da? Zer da makina bat? Adibideren bat esango al didazue? Makina bat dela uste duzuenok esango al diguzue zertan diren berdinak makinak eta gure gorputza? Gure gorputza makina bat ez dela uste duzuenok esango al diguzue zertan bereizten diren makina bat eta gure gorputza? Beno, beno... agian gure zalantzak argitzeko liburua irakurtzen jarraitu beharko dugu.*

Egoera horretan, elkarrizketan, ikasleek hipotesiak trukatzeko dituzte eta ezagutzak birformulatu egiten dira, beraz, hizkuntza ulertzeko eta ekoizteko gaitasuna garatzen da. Oro har, irakasleak badaki ikasleek zer esan dezaketenean eta nora eraman nahi dituen, baina ikasleak berak ikasi behar du bere hitzak argitzen. Irakaslearen lana ez da erantzun guztiak ematea edo ebaluatzea, baizik eta elkarrizketa bideratzea, ikasleen ideiak biltzea, ordenatzea, ikasleen ekarpenak ulergarriago egiten laguntzea eta ekarpenen balioa agerian uztea. Irakasleak erantzuna ez jakitearen plantak egiten ditu eta haurrek irakasleak erantzuna badakiela jakin arren, jakingo ez balu bezala elkarrizketan parte hartzen du. Egoera horretan, ikasleak irakasleak beren hitzak aintzat hartzen dituela konturatzen denean, ez du gaizki egiteko edo esateko beldurrik, jariokortasun handiz beren ideiak azaltzen ditu. Horrela, helduok laguntzen diegu haurrei beren teoriak garatzen.

- Ikasleei iruditzen azaltzen dena zer izan daitekeen pentsatzeko eskatuko diegu. Ondoren, beren iritzia partekatzeko txanda irekiko dugu.
- Ondoren ikasleei galdetuko diegu ea nola lor dezakegun irudiari buruzko informazio gehiago. Testua irakurtzea proposatuko dutelakoan, gela erdiak irakurle-lanak eta beste erdiak ikertze-lana egingo du. Hau da, gela erdiak ahots altuan irakurriko du eta beste erdiak entzun egingo du irakurritakoa ulertzeko. Ikertzaileei zer entzun behar duten esango diegu alde zurretatik: makinaren zein zatiri buruz ari garen (aparatuen izena) eta zertan lan egiten duen (aparatuen funtzioa).
- Bi orrialdeak goian proposatutako eran aztertzea gure ikasleentzat luze xamarra izan daitekeenez, lehenengo adibidea elkarrekin egin ondoren, gela sei taldetan banatuko dugu. Talde bakoitzean talde handian egindako prozesua errepikatu beharko lukete. Hau da, bi lagunek irakurri eta beste biek entzun aparatuen izena eta bere funtzioa zein den aurkitzeko. Aurkitu ondoren, hitz horiek azpimarratu beharko dituzte.

- Bukatzean, talde handian, talde txikian hausnartutakoa azalduko dugu. Talde-lan horretan orrialde horretako testuak ere irakurriko ditugu ozenki, aipatutakoarekin erlazio zuzenak bilatu nahian.
- Hasieran aipatutako ideiarekin bukatuko dugu. Alegia, gure gorputza makina perfektua da eta makinak bezala elkarlana era koordinatuan egiten duten zatiez osatuta dago. Konparazio horretan lagungarri izan daiteke autoa eta gure gorputza konparatzea.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

54. jarduera	OLERKIA: GURE GORPUTZA EZ DAGO HUTSA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
	<p>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i>, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</p> <p>1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i>, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>1.13 <i>Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea</i>, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</p> <p>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</p>
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
	<p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>1.8.3 Testua egoki aurkezten du: kaligrafia irakurgarri eta eraginkorra, emandako marjinak eta marrak, idazpuruak...</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.</p>
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka
MATERIALA	Gelako ohiko materiala.
AZALPENA	

- Gorputzaren alderdi fisiologikoarekin soilik lotuta ez dagoen sentitzeko eta pentsatzeko gaitasunari buruzko olerkia irakurri eta aztertuko dugu talde handian.

*Gure gorputza ez dago hutsa.
Baditu hesteak,
gibela, bihotza.
Badugu ikusmena, entzumena,
usaimena...*

*Pentsatu eta pentsatu
irudimena askatu.
Maitatu eta maitatu
bihotzak alaitu.
Joxan Ormazabal*

*Baina guk daukagun
gauzarik ederrena
pentsatzeko eta maitatzeko ahalmena.*

- Txanela.net-eko 4. unitateko 50. jardueran eta liburu digitalean olerkia word formatuan aurkituko duzu.
- Irakasleak, olerkia arbelean idatzi ondoren, testua irakurriko die ikasleei. Arbelean kopiatu beharrean, testua proiektu dezakezue edo arbel digitalean (liburu digitala) ikusi.
- Arbelean idatzi ondoren, irakasleak olerkia irakurri egingo die ikasleei. Ondoren, denon artean irakurriko dugu.
- Hausnarketa bultzatuko du talde handian tankera honetako galderak eginez:
 - *Zuek pentsatzen eta maitatzen al duzue? Zergatik esaten digu olerkiak guk daukagun gauzarik ederrena dela?*
 - *Nola askatzen da irudimena pentsatuz eta pentsatuz?...*
- Haurrek, orri zuri batean edo koaderno batean olerkia kopia dezakete, eta maitatzen edo pentsatzen dutena marrazki batez ilustratu.
- Olerkiak aukera ematen digu, kodearen behaketa zehatza egiteko, errimak behatuz, berdin bukatzen diren hitzen zerrendak eginez edo hitz zehatzak bilatuz.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

55. jarduera	PUZKERRAK
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea</i> eta <i>esanahia zehatz eta azkar interpretatzea</i> .	
1.13 <i>Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea</i> , baita sentsibilitate estetikoaren garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.	
2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedena eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziarik erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)	
1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.	
2.3.3 Osasunarentzat elikadura orekatuak eta osasungarriak, higie, ariketa fisikoak eta atsedena eta oinarrizko segurtasun-neurriak duten garrantziaz jabetzen da.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian
MATERIALA	Liburuko 20. orrialdea eta etxeko ohiturak aztertze galdetegi (ikus eranskinak)
AZALPENA	

Digestioaren azken urratsari ekingo diogu oraingoan. Lehen mailako haurrek eta baita txikiagoak ere, kaka, puzkerra eta abarren inguruan interesa agertzen dute. Garapenaren interes arrunta denez, gai horiei buruz hitz egiteko eta barre egiteko uneak eskaini behar dizkiegu.

- Talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: globoak, olerkia, klipa, argibideak eta idazteko marrak.
- Ikasleei tartetxo bat emango diegu Maddalenen dioena irakurtzeko eta elkarriketa bideratuko dugu galdera irekien bitartez:
 - *Zuek puzkerrak botatzen al dituzue? Zuen ustez nola sortzen dira puzkerrak gure gorputzean? Osasuntsua al da puzkerrak botatzea? Zergatik?*
- Olerkia irakurri aurretik ikasleak prestatu behar ditugu aurre-egutzak aktibatzen eta zailtasunei aurre egiteko. Ilustrazioak arretaz begiratzeko eskatuko diegu eta olerkiaren gaia zein izango ote den galdetuko diegu. Erantzuna puzkerra izango da zalantzarik gabe. Irakasleak hitz hori arbelean idatziko du.
- Testuan aurkituko dituzten hainbat hitz ezagunak izan daitezten, ondorengo galderak egingo ditugu eta erantzunak arbelean idatziko ditugu:
 - *Korrokadek zer nolako zarata egiten dute? (KORROK) Eta puzkerrek? (PRA) Zer ateratzen da ipurditik edo ahotik? (HAIZEA ETA USAINA)*
- Ikasleei isilik eta bakarka testua behatzeko/irakurtzeko aukera emango diegu. Irakurtzen hasi aurretik helburua ez dela informazio zehatza aurkitzea, baizik eta testuaren zentzuaz jabetzea, olerkiak zer esaten digun ulertzea.
- Ondoren, irakasleak irakurriko die olerkia eta haurrak animatuko ditu berarekin batera irakurtzeko, ezagutzen edo gogoratzen dituzten hitzak. Gelako irakurle on batek/batzuk ere testua irakur dezakete, besteek entzuteko.
- Irakurri ondoren, olerkiak aukera ematen digu, kodearen behaketa zehatza egiteko, errime behatuz, berdin bukatzen diren hitzen zerrendak eginez edo hitz zehatzak bilatuz.
- Beren sormena erabiltzeko aukera emango diegu bukatu aurretik. Irakasleak klipean dagoen puzkerraren definizioa irakurriko die eta gero talde txikietan, definizio berriak asmatzeko tarte bat emango diegu. Ondoren, definizio horiek talde osoarekin partekatuko dituzte.
- Haizeak botatzeaz gain, badira osasuntsuak diren beste hainbat ohitura ere. Horiek bai dira gure zikloko edukia, beraz beharbada egokia litzateke jarduera honen azkeneko zatia luze eta lasai jarduteko aukera duzuen egunerako uztea. Bestalde, ohitura osasuntsuak bultzatzea, neurri handi batean, etxeko esku dagoenez, egokia deritzogu ikasleekin gai horren inguruan elkarriketa egin aurretik, galdetegi motz bat etxera eramatea eta familiakoekin erantzutea. Galdetegi gidaren bukaeran aurkituko duzue. Etxera eraman aurretik ikasleekin batera etxerako lana zertan den argitu, galderak irakurri eta hitz gakoak biribildu.
- Galdetegi gelara ekartzean, esaldiak banan-banan irakurri ohitura bakoitzaren garrantziaz eta zergatiak jabetzeko eta ikasleekin hitz egingo dugu. Ez da beharrezkoa izango ikasle bakoitzari banan-banan galdera guztiak egitea. Izan ere, gure ikasleen adineko haurren ohiturak, neurri handi batean, gurasoen esku daude eta haurrak memento txarra pasa dezake, baldin eta ikastolak bultzatzen dituen ohiturak eta bere familian dituztenak oso ezberdinak badira.
- Haur bakoitzak bere liburuan betetzen ez dituen ohitura osasuntsu pare bat idatziko ditu, ondoren gurasoekin irakurri eta horiek aldatzen saiatzeko.
- Nahi izanez gero, ikasleek ohartxo bat idatzi dezakete gurasoentzat. Galdera guztien erantzuna baiezkota bada, etxekoak zorientzeko edo etxeko ohituraren bat aldatzeko proposatuz. Adibidez:

GURASO MAITEAK:
 IKASTOLAN JAN ONDOREN HORTZAK GARBITZEA GARRANTZITSUA DELA IKASI DUGU. GAURTIK AURRERA NIK ERE GARBITUKO DITU. LAGUNDUKO AL DIDAZUE GOGORATZEN?
 MUXU BAT, IKER

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

56. jarduera	IPUINA: MARIPUZKER ETA MIRENPINPIRIN	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.1	Ahozko azalpen sinple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaiei buruzkoak).	
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i>, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
1.5	Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea</i> eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.	
1.13	<i>Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea</i>, baita sentsibilitate estetikoak garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.1.1	Azalpena arretaz entzuten du.	
1.1.4	Entzundako testu baten oinarriko ideia batzuk gogoratzen ditu eta ahoz adierazten ditu haiei buruzko galdera zuzenei erantzunez.	
1.3.2	Berak esandakoari buruzko galderari erantzuten die (azalpen zehatza, beste informazioak...).	
1.5.1	Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)	
1.13.1	Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Irakurgaiak 58-61 orrialdeak eta gidaren bukaeran dagoen ipuinaren bertsio luzea.	

AZALPENA

Mitxel Muruak idatzitako ipuina irakasleak ikasleei irakurriko die. Ipuina lau zatitan banatu dugu eta zati bakoitzarekin lotuta, ikasleei hainbat galdera egitea proposatzen dizuegu, gertatuko denaren inguruko hipotesiak egin ditzaten. Galdera horiek, jakina, irakasleak ikasleen interes eta erantzunen arabera, egokitu, baztertu edo berriak asmatu beharko ditu.

Irakaslea aulki batean eseriko da, gelako liburutegiaren aurrean, eta ikasle guztiak berari begira lurrean eseriko dira.

IRAKURTZEN HASI AURRETIK

- Ipuina irakurtzen hasi aurretik, izenburuari erreparatuko diogu: *Ba al dakizue nor diren Maripuzker eta Mirenpinpirin? Zergatik jarriko zioten Mari izenaren atzetik puzker eta Miren izenaren atzetik pinpirin? Zer uste duzue gerta daitekeela Maripuzker eta Mirenpinpirinen artean?* Ikasleen hipotesiak entzun ondoren, irakaslea ipuina lasai eta ozenki, taldeari irakurtzen hasiko zaio.

IRAKURRI BITARTEAN (Testu osoa gida honen eranskinetan aurkituko duzu)

58. orrialdea

- Lehenengo zatia irakurri ondoren, ikasleei irakurritakoaren inguruan hipotesiak egiteko, hainbat galdera egingo dizkiegu: *Zuei horrelakorik gertatu al zaizue inoiz? Nola sentitu zarete? Zertarako uste duzue galdetu diola kapitainak neskari ea zer egiten duen munduko ipurdian?*

59. orrialdea

- Hurrengo zatia irakurri ondoren berriro zuzenduko gara haurrengana: *Zer egin zuen kapitainak Mari Puzker lotsa-lotsa eginda zegoela konturatzean? Uste al duzue ondo jokatu zuela? Zer uste duzue gertatuko dela orain?*

60. orrialdea

- Azkeneko zatiari ekin aurretik, gerta daitekeenari buruz galdetuko diegu: *Zer iruditzen zaizu Miren Pinpirinek izan duen ideia dirua lortzeko? Lortuko ote du dirua? Zer esango dio kapitainak?*

61. orrialdea

- Zer esan nahi du indarka puzkerrak kanporatzeak? Zuek egiten al duzue horrelakorik? Noiz? Mirenpinpirinen ipurdian dagoen puzker hori inoiz aterako dela uste duzue? Noiz?*

IRAKURRI ONDOREN

- Beste egun batean, talde handiko irakurketa egingo dugu. Ikasle bakoitzak bere liburua aurrean duela, ilustrazioari behatzeko denbora tarte-bat emango diegu. Gero, testuaren gaineko hipotesiak egiteko eskatuko diegu eta, irakurketari ekin aurretik, horietako batzuk entzungo ditugu. Ondoren, denok elkarrekin testua irakurriko dugu. Irakurketa horretan pertsonaiak eta narratzailearen hitzak bana daitezke gelako ikasleen artean. Hau da, gelakideen mailaren arabera, bosnakako taldea(k) antolatu eta haur bakoitzari rol bat emanez (narratzailea, Maripuzker, Mirenpinpirin, kapitaina eta puzkerrak) irakurriko dute talde txikian. Irakurketa pertsonaia bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin edo norberak etxean saioak egin edo irakurri ondoren egin daiteke.
- Bukatzeke, kodearen gaineko hausnarketa egiteko jolas moduko galderak egingo dizkiegu ikasleei; adibidez: *Zenbat aldiz azaltzen da protagonistaren izena? Ba al dago letra berarekin hasten den beste hitzik? Zein da zati honetan dagoen hitz luzeena? Eta motzena?... Lantze hori egin ondoren, ikasleek liburua etxera eramango dute ipuina gurasoei irakurtzeko edo kontatzeko.*

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

57. jarduera	HORTZAK ZAINTEKO HAINBAT AHOLKU	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i>, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeari, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetean aurrerapenak eginez.</p> <p>2.3.3 Osasunarentzat elikadura orekatuak eta osasungarriak, higieak, ariketa fisikoak eta atsedean eta oinarrizko segurtasun-neurriek duten garrantziaz jabetzen da.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta binaka	
MATERIALA	Lan-koaderno 38. orrialdea	
AZALPENA		

Ohitura osasuntsuekin jarraituz, hortzak zaintzeko aholkuak irakurtzeko, aitonaren tailerrean bezala, hitzak ordenatuko ditugu.

- Talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, irudiak, hitzak dituzten txartelak, idazteko marrak...
- Ondoren, irakasleak irakurriko ditu argibideak eta haurrak animatuko ditu berarekin batera irakurtzeko ezagutzen dituzten hitzak. Gelako irakurle on batek/batzuk ere testua irakur dezake(te), besteek entzun dezaten.
- Ikasleak marrazkietan ikusten dutena behatzera eta azaltzera animatuko ditugu: *Zuen ustez zer gertatzen ari da irudietan?* Prozesu baten adierazpenaz ari garenez, denbora-antolatzaileen erabilera bultzatzea komeni da.
- Berrir irakasleak irakurriko ditu argibideak eta haurrak animatuko ditu berarekin batera irakurtzeko ezagutzen dituzten hitzak. Gelako irakurle on batek/batzuk ere testua irakur dezake(te), besteek entzun dezaten.
- Ikasleek zenbakiak erabil ditzakete hitzak ordenatzeko. Horrela, adibidez, lehenengo esaldiaren lehenengo hitzaren gainean 1 zenbakia idatziko dute eta azkeneko hitzaren gainean 5 zenbakia. Lanean hasi aurretik, puntuaren erabilera gogoratuko dugu. Hau da, ikasleei gogoratuko diegu ideia/esaldi bat bukatzen denean, bukatu dela adierazteko puntua erabiltzen dugula. Azalpenaren ondoren, ikasleek erraz jarriko diote esaldiaren azken hitzari dagokion zenbakia.
- Ikasleen irakurketa-mailaren arabera, ariketa hau bi eratan egin daiteke:
 1. Irakasleak irakurri dezake esaldia eta ikasleei binaka zenbakiak jartzeko eskatu. Bitartean, talde osoarekin, ariketa aurrera eramateko estrategiak partekatuko ditugu; adibidez: arrastoen (indizioen) bidezko hitzen aukeraketa.
 2. Irakasleak hitzak dituzten txarteltxoak presta ditzake eta bikote bakoitzari txartelak eman ordena ditzan. Hitzak dituzten txarteltxoak mahaiaren gainean ordena egokian jartzen dituztenean, lan-koadernoan kopiatuko dituzte.
- Esaldiak adierazten duen informazioari buruzko hausnarketatxoa egingo dugu talde handiarekin, hurrengo esaldiari ekin aurretik.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

58. jarduera	ZORRIAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko <i>informazio aurkitzea eta aukeratzea</i> , eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.		
2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nor bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.7.1 Erantzun zehatzeko baldere erantzuteko informazioa aurkitzen du eskaintako testuetan. (2. maila)		
2.3.3 Osasunarentzat elikadura orekatuak eta osasungarriak, higie, ariketa fisikoak eta atsedean eta oinarrizko segurtasun-neurriak duten garrantziaz jabetzen da.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, banaka	
MATERIALA	Irakurgaiak 62. orrialdea	
AZALPENA		

Batzuetan buruan zorriak izaten ditugu. Zer egin dezakegu horrelakoetan? Irakurgaietan agertzen den testua irakurri ondoren, hurrekin elkarrizketa bat bultzatuko dugu horren inguruan.

- Testua irakurri aurretik ikasleak prestatu behar ditugu aurre-ezagutzak aktibatze eta zailtasunei aurre egiteko. Izenburua irakurri eta ilustrazioei behatu ondoren, testuaren inguruko hipotesiak egingo ditugu:
 - *Zer esango ote digu testuak? Zuek zer dakizue zorriei buruz? Zer da hor behean azaltzen den zomorroa? Zergatik dauka marra bat bere gainean? Zer esan nahi du marra horrek?*
- Testuan aurkituko dituzten hainbat hitz ezagunak izan daitezten, zorriei buruz dituzten aurre-ezagutzak adierazi bitartean, hitz horiek arbelean idatziko ditugu; adibidez: ILEA, BURUA, ARRAUTZAK...
- Irakasleak letra xehez idatzitako testua irakurriko die ikasleei: *Zuei ere egunero begiratzen al dizuete ea zorririk bat ote duzuen? Ba al dakizue zergatik den garrantzitsua egunero lan hori egitea? Goazen bada, zorriak gure buruetan nola bizi diren irakurtzera!*
- Ikasleek letra larriz idatzitako testua irakurriko dute informazio zehatza aurkitzeko. Hala ere, lehen irakurketa, ideia nagusiak edo, oro har, testua ulertzeko egiten dena, irakasleak egitea komeni da. Irakasleak irakurtzen duenean, ikasleei berarekin batera irakurtzera gonbidatuko ditu.
- Ikasleek irakurtzen hasi aurretik, irakurketaren helburua informazio zehatza aurkitzea dela esango diegu. Ikasleak lau taldetan banatuko ditugu. Talde bakoitzak letra larriz idatzitako testuaren zati bat irakurriko du eta honako galdera hauen erantzuna aurkitu beharko du eta erantzuna adierazten du(t)en hitza edo hitz pareak azpimarratu:
 - Zetarako egoten dira zorriak gure ile artean?*
 - Noiz erruten ditu emeak arrautzak?*
 - Non erruten ditu emeak arrautzak?*
 - Zer egiten dute zorriek handitzean?*
- Aurkitu duten informazio hori, talde handiarekin partekatuko dute. Besteek ere, galderen erantzuna adierazten duten hitzak azpimarratuko dituzte.
- Ikasleek testua etxera eraman dezakete gurasoekin batera azpimarratutako informazioa berriz irakurtzeko. Izan ere, garbiketarekin zerikusia duen, egunero zorriak ba ote dauden begiratzeko eta kentzeko ohitura, etxeko esku dago.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

5. JARDUERA SEKUENTZIA. Landutakoa berrikusi eta baloratu.

59. jarduera	KOMIKIA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea</i> eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i> .	
1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren <i>testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea</i> .	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)	
1.6.3 Hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia egoki interpretatzen du.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta binaka
MATERIALA	Liburua 22. orrialdea, opari kaxa bat eta liburu bat
AZALPENA	

- Komikia Txanela proiektuaren lehen zikloaren istorioari, ardatzari, lotura emango dion elementua da. Horregatik, beti bezala, aurreko komikian zer gertatu den gogora ekarriko dugu.
 - *Gogoratzen al zarete nola bukatu zen azkeneko komikia? Bidaiarik egin al zuten gure laguntxoek? Zer uste duzue gertatuko dela orrialde honetan?*
- Irakurtzen hasi aurretik, izenburuari so egingo diogu eta gertatuko denaren inguruko hipotesiak egiteko eta esateko eskatuko diegu ikasleei.
- Irudiak eta testua lasai behatzeko aukera eskaini ondoren, partekatu ideiak.
 - *Zer dugu orri hauetan? (Komikia). Zer egin du Maddalenek? Zuen ustez nola sentitzen da Fermin? Zuei gertatu al zaizue inoiz horrelakorik?*
- Haurrei banaka komikia ikusteko/irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu. Ondoren, binetaz bineta, hizkuntza idatziaren baliabide eta marrazkien xehetasunetara joz, talde handian egingo dugu irakurketa.
- Haurren irakurketa-mailan aldeak egongo direnez, hasiera batean, taldean behatu eta irakaslearen laguntzarekin (edo irakasleak) irakurri egingo du(gu).
 - *Maddalenek oparitutako liburuan zer ikusi/irakurri dute? Zer esan dio Ferminek Maddaleni liburuko irudiak ikusi dituenengan? Zergatik?*
- Gelakideen mailaren arabera, binakako taldea(k) antolatu eta haur bakoitzari rol bat emanez (Maddalen eta Fermin) berriz irakur daiteke. Baita ere, binaka saioak egin ondoren, hau da, pertsonaia bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin saioak egin ondoren, egin daiteke irakurketa.
- Bukatzeko, Fermin sendatu denez, beste bidaiaren bat egingo ote duten galdetuko diegu haurrei. Hurrengo komikia irakurtzerakoan gogora ekarriko ditugu emandako erantzunak.
- Ondoren, liburua irakurri gabe, ikasleei komikia antzezteko aukera emango diegu. Bi ikasle beharko ditugu oraingoan Maddalen eta Fermin antzezteko. Taldeak izenburua eta narratzailearen hitzak irakurriko ditu.
- Hizkuntza-maila ona duten ikasleak aukeratuko ditugu lehenengo edo beren burua boluntario aurkezten dutenak. Antzezpena aberasteko opari kaxa bat eta liburua erabil dezakezue. Istorioaren hariari jarraitzen dioten bitartean ez da beharrezkoa izango ikasleek liburuan azaltzen den testu bera errepikatzea. Testuaz gogoratzen ez badira, edo aukera berriak bururatzen ez bazaizkie, taldeari laguntza eskatuko diogu. Jarraitu komikia antzezten ikasleen interesak irauten duen bitartean.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

60. jarduera	ZER DAKIZU ORAIN GORPUTZARI ETA ELIKADURARI BURUZ?	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
1.8	Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i> , modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	
1.5	Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea</i> .	
4.4	Hainbat testuingurutan, proposamen jakin baten arabera, prozesuan egindako ikasbideaz jabetzen da.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
1.8.1	Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.	
1.5.1	Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentzietatik erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. (1. maila)	
4.4.1	Prozesuan landutako ideiak, hainbat tresnen bidez era gidatuan biltzeko gai da.	
4.4.2	Aprendizaia prozesuaren hainbat uneetan egindako lanak era gidatuan eta elkarlanean alderatuz, aurrerapena balioesteko gai da.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian,	
MATERIALA	Liburuko 23. orrialdea	
AZALPENA		

- Kontzeptu-mapa erabiliz gaiaren sintesi bat egitea proposatzen dizuegu. Hala ere, gure helburua ez da haur bakoitzak gorputzari buruz zenbat ikasi duen neurtzea, baizik eta unitatean zehar landutakoa era eskematikoan adierazita ikustea, kontzeptu-maparen osaketan parte hartzea eta ikaskuntza-prozesuaren balorazio positiboa egitea.
- “Zer ikasi nahi dugu?” izenburuko jardueran, ikasnorabidea osatu genuen. Ikasleek egin zituzten galderak baliatuko ditugu kontzeptu-mapa egiteko.
- Irakasleak ikasnorabidean dauden galderak banan-banan irakurriko ditu. Ikasleen lana arretaz entzutea eta hitz gakoa identifikatzea izango da. Irakasleak hitz gako hori azpimarratu edo biribildu egingo du.
- Kontzeptu-mapak osatutako ikasnorabidearen arabera, atal gehiago edo gutxiagoa eduki ditzake eta baita atal bakoitzetik gai berriak deribatu ere.
- Galdera kopuruaren arabera ikasleak talde txikian (2-4 kide) jarriko dira. Erantzungo duten galdera aukeratuko dute, hitz gakoaren irakurketa baliatuz. Galderaren erantzuna irakasleak alde aurretik prestatutako paper zurian edo post-it batean idatziko dute. Talde bakoitzak edo batzuetan bi taldek, galdera bati erantzuteko ardura izango dute. Horretarako, gelan ditugun informazio-iturriei ondo begiratzeko eta ikasitakoa gogora ekartzeko eskatuko diegu.
- Irakasleak arbelean kontzeptu-mapa osatzeko biribilak marraztuko ditu edo alfonbraren gainean koloretako uztaiak jarriko ditu. Uztaiak erabiltzeak prozesu erabat abstraktua irudikatzen laguntzen du.
- Ikasnorabidea osatzen zuten galderak moztu eta uztaien arteko loturak egiteko erabiliko ditugu.
- Erantzun guztiak idatzita daudenean, irakasleak kontzeptu mapan azaltzen den galdera irakurriko du eta ikasleek beren post-it-ean edo paper zatian idatzi dutena irakurriko diote talde osoari. Azkenik, erantzuna dagokion uztaiaren barruan itsatsiko dute. Pauso horiek galdera guztiekin egingo ditugu.
- Jarduera bukatzerakoan, irakasleak DIN-A3 batean mapa kopiatu eta post-it-ak edo paper zatiak ordenaturik jarriko ditu. Ondoren, ikasle bakoitzarentzat kopia bat egingo du, ikasleek, erditik tolesturik, liburuan itsasteko.
- Liburua itxi aurretik, hasierako kontzeptu-maparekin alderatzeko eskatuko diegu, zenbat ikasi duten aipatuz.
- Beste egun batean, elkarrekin irakurriko dugu. Irakasleak loturak edo galderak irakurriko ditu eta ikasleek berriz, beraiek idatzitako testuak. Kontzeptu-mapa berrian, informazioa biltzeko formaren berezko ezaugarriak aipatuko dira (gaia erdian, kontzeptuak letra larriz, loturak xehez...).

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

61. jarduera	EGINDAKOA BERRIKUSTEN	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
1.8	Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i> , modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	
2.3	Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari buruzkoak; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzak, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuek, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
1.8.1	Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.	
2.3.4	Emozioak eta sentimenduak (amorrua, beldurra, poza, tristura, asperdura...) identifikatzen ditu, eta aurrera egiten saiatzen da bizikidetzarako arazo diren horien kontrolean.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Liburua 24. orrialdea	
AZALPENA		

Azkeneko orrialde honetan proiektuaren balorazioa egingo dugu. Ikasleek hamaiketako edo askaria egiteko prozesua eta askaria edo hamaiketako bera balioetsiko zuten egin bezain pronto. Orain alderdi kontzeptualari ekingo diogu, norberari gehien interesatu zaiona azalduz.

- Liburuko goiko koadroko hirugarren galdera aztertuko dugu guztion artean.
- Idatzi aurretik, ikasitakoak labur gogoratuko ditugu liburuko hainbat orrialderi begiratuz, eta orduan egindakoa labur gogoratuz:
 - 7. orrialdea: *Gorputza kanpotik*
 - 8. orrialdea: *Zentzumenak*
 - 9. orrialdea: *Hezurdura*
 - 12. orrialdea: *Elikagaien piramidea*
 - 16.-17. orrialdeak: *Digestioa*
 - 18.-19. orrialdeak: *Aparatuak*
- Erantzuna idazteko denbora-tartea eskainiko diegu iritzia beren erara idatziz. Erantzunak partekatzeko erronda bat irekiko dugu, bakoitzak, labur, zer adierazi duen esateko aukera eskainiz.
- Etxekoek ere badute iritzia idazteko tokia. Azkeneko atalaren (ETXEKOEN IRITZIA) behaketa egingo dugu orain. Euskaraz ez dakiten gurasoak baditugu gelan bi galderak ondo argituko ditugu haurrek etxekoei zeregina adieraz diezaieten. Garrantzitsua da, baita ere, etxekoen erantzuna haurrak oso ondo ezagutzea berak egin beharko baitu (hainbat hizkuntzen kasuan) itzultzaile-lana.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

ERANSKINAK

EUSKAL HERRIKO NEGUKO JAIEN INGURUKO JARDUERAK

Neguko ospakizunak lantzeko ikastola bakoitzak baditu bere modua eta ohiturak. Halere, guk honako hauek proposatzen dizkizuegu:

SAN BLAS

- San Blas egunaren inguruan dakitenari buruz hitz egiten hasiko gara. Haur Hezkuntzan ikasitako esaera zaharrak eta egindako jarduerak gogoratuko ditugu:

San Blas, ito arte arnas

San Blas, bedeinkatutako haria saman ipini, eta eztlak blast!

- Esaera zaharrak entzunez eta errepikatuz, gure kultur altxorren atal hori poliki-poliki ezagutuko dugu. Ez dugu espero adin hauetan esanahiaz erabat jabetzea, baina bai testuinguru jakin batean entzunez, poliki-poliki interpretazioak egiten hastea.
- **San Blas haria.** egun honetako beste ohitura bat, hari bat lepoko gisa jartzea eta bederatzi egunetan jarrita edukitzea da. Hori eginez gero, urte guztia katarrorik gabe pasatuko dugula esan ohi da.
- **San Blas opila.** Dударik gabe San Blas eguneko ohituren artean zabalduena opila jatearena da.

SANTA AGEDA

- **Santa Agedako abesbatza.** Ikastola bakoitzean duzuen ohiturari jarraituz, Santa Ageda bezperan abestu behar ditugun abestiak prestatuko ditugu.
- **Santa Agedako makilak apaindu.** Ohikoena ez bada ere, zenbaitetan Santa Agedako makilak apaindu egiten dira. Guk ere gauza bera egin dezakegu. Goiko ertzean kolorezko paperak erabiliz (edota zerrenda zuriak geuk margotuz) txirikorda moduan jarri eta makila dotoreekin irtengo gara abestera.
- **Olerkiak.** Olerkitxo hauek irakurriko dizkiegu haurrei. Zuek irakurri beharrean, nahi baduzue arbelean idatzi eta guztion artean irakurri

*Santa Ageda bezpera,
urruti dago mizpira;
gau ilunean argi egiten
haurren begien distira.*

Juan Kruz Igerabide

*Bertsoak kantatu,
makilak dantzatu.
Hori zein egunetan
egiten dugun asmatu.*

(Santa Ageda bezperan)

Joxan Ormazabal

INAUTERIAK

- **Bideoa.** *Inauteriak Euskal Herrian.* Inauterietako bideoa ikusiko dugu, nahi izanez gero, inauteriei dagokion atala, lehenik osotasunean ikusiz, eta ondoren atalez atal. Atalak honako hauek dira: Inauteriak ospatzeko erak, Euskal inauterietako pertsonaia ezagunak eta Lantzeko inauteriak.
- **Pertsonaiak.** Markitos, Joaldunak, Miel Otxin etab. ezagutzen ditugu. Guztiak desberdinak dira. Beren jantzia dela eta bereizten ditugu, baina desberdinak dira, baita euren ibiltzeko eragatik ere. Denon artean erabakiko dugu pertsonaia bakoitzaren ibiltzeko era nolakoa den eta guztiok elkarrekin imitatuko dugu. Hori ondo ikasi ondoren joko bat egingo dugu. Gela bi zatitan banatuko dugu. Batzuk jolastuko dute eta beste batzuk begira egongo dira. Gero alderantziz egingo dugu. Jokoaren zuzendariak (irakaslea edo haur bat izan daiteke) izen bat aipatuko du: Ziripot! Eta jolasten ari diren haurrak Ziripot bezala ibiliko dira. Ondoren, beste izen bat aipatuko du etab. Jokalari batek mugimenduak gaizki egiten baditu, eseri egingo da.
- **Joaldunen zintzarriak.** Etxetik lantzeko poteak ekarriko ditugu horretarako (batzuk besteak baino aproposagoak dira). Barruan ezkila-mihi modura, burdinazko piezatxoak edota lekaleak sar ditzakegu. Poteak zulatu eta soka batez elkartu azkenik, gerrian kokatzeko.
- **Joaldunen, Kotilungorrien eta Miel Otxinen txanoak.** Kartoi mehe handiak erabiliz, buruan ipintzeko kapela dotoreak egingo ditugu. Begiratu liburuan eta bideoan nolako ereduak ditugun, eta saia gaitezen imitatzen.
- **Zakuak erabiliz Ziripot eraiki.** Zakuak lortu eta egunkari paperez edota oihal zaharrez beteta, gorputzaren forma emango diogu. Maindire zahar baten pusketa hartu eta egunkariko paperez betetako plastikozko poltsa bati buru forma eman ondoren, maindire puskarekin bildu eta lepo aldea soka batez heldu eta gorputzarekin josi. Kapela besterik ez zaigu falta gure Ziripot osatzeko. Nahi izanez gero, aurpegia pixka bat margotu.
- *Lan-koadernoa 2, 4. orrialdea.* Inauteriak non eta nola ospatzen diren aipatzeko fitxa.
- *Lan-koadernoa 2, 5. orrialdea.* Inauterietako pertsonaia bakoitzari izena jartzeko fitxa.
- *Lan-koadernoa 2, 6. orrialdea.* Euskal Herriko inauterietako pertsonaien izenak aurkitzeko letra-zopa.
- *Irakurgaiak 63-64.* Inauteriei buruzko hitz-jokoak eta asmakizunak
- *Inauterietan zer?* Honez gero, ikastolako inauterietarako egitaraua prest izango duzue, arbelean guztion artean adostu eta idatzi, azkenean norberak berea kopia dezan. Nahi baduzue, idatzitako testuan bi mailatako informazioa bereiz dezakezue (azpimarratuz, letra larriz nabarmenduz, kolorea erabiliz): derrigorrezkoa eta osagarria. Horren aurrean, haurrek garrantzizko jotzen dutena aukera dezakete beren kopiatzeko.

7 . JARDUERA: GORPUTZA ETA ELIKADURAREN TXOKOA

Kaixo gure laguntzaile zintzo eta leialok!

Azken egunetan behar baino gehiegi jan eta Fermin ohean daukagu gaixorik. Hori dela eta, gure gorputza gehiago ezagutzen saiatuko gara hura sendatu bitartean; bide batez, osasuntsu egoteko hainbat ohitura ere ezagutuko dugu. Eta jakina, janariaz ere hitz egingo dugu, eta bukaeran askaritxo bat egin eta errezeta bat osatuko dugu. Oraingoz, gorputzari eta janariei, beno hobeto esanda gorputzari eta "elikagaiei" buruzko informazioa, marrazkiak, afixak, irudiak... beharko ditugu. Beraz, etxetik gai horien inguruan bidal dezakezuena biziki eskertuko genizueke.

Bestarik gabe eta zuen laguntza paregabea eskertuz, ez adiorik.

Maddalen

Estimados colaboradores!

Fermín ha comido más de la cuenta y ahora está enfermo. Debido a esto, no hemos podido realizar ningún viaje, pero aprovecharemos la excusa para conocer mejor nuestro cuerpo y de paso hablaremos sobre algunos hábitos aconsejables para mantenernos saludables. Y por supuesto hablaremos sobre la alimentación, prepararemos una meriendita y escribiremos una receta. Por el momento, necesitaríamos la documentación de que dispongáis sobre los temas mencionados.

Agradeciéndoos de antemano vuestra colaboración. Se despide.

Maddalen.

25 JARDUERA: HEZURDURA

Guraso maiteak,

Azken bolada honetan gelan gure gorputza lantzen ari garenez, mesedetxo bat eskatu nahi dizuegu. Etxean erradiografiak baldin badituzue, eskertuko genizueke zuen hurrei ematea ikastolara ekartzeko. Zertarako nahi ditugun erradiografiak? Bada, gure hezurdura nolako den ikusteko, jakina! Gainera, etxean zuen hurrekin komenta dezakezue erradiografia horiek zergatik atera zenituzten (hezurren bat puskatu zenutelako, bizkarrezurrean mina sentitzen zenutelako...) eta ikusten diren hezurak zein diren.

Bestalde, bidalitako erradiografiak etxera berriro bueltatzea nahi baduzue, ez ahaztu zuen seme-alabaren izena bakoitzean idaztea, ados?

Gure eskaerari erantzun ona emango diezuelakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena

Maddalen eta Fermin

Oharra: hurrek ekarritako erradiografia guztiak taldean ikusi eta bertan agertzen denari buruz hitz egin ondoren, txoko zurian kokatuko ditugu.

Querida familia:

Durante estos días, estamos estudiando nuestro cuerpo y cómo cuidarlo y para ello queremos pedir vuestra colaboración. Si tuvierais en casa alguna radiografía que no necesitarais os agradeceríamos que la enviarais a la ikastola por medio de vuest@s niñ@s. Pensamos que os imaginaréis para qué queremos las radiografías. Pues sí. Para analizar nuestro esqueleto. Además, también podéis comentar en casa la causa de hacer dichas "fotos" y demás.

Si tenéis interés en recuperar las radiografías, poned el nombre en las mismas, puesto que de lo contrario supondremos que podemos conservarlas. ¿De acuerdo?

Pensamos que como siempre responderéis espléndidamente y nos despedimos hasta la próxima.

Gracias.

Maddalen y Fermín

30. JARDUERA:ELIKAGAIEN PIRAMIDEA





35. JARDUERA: OTORDUAK, MENUA IDATZI

Kaixo Familia:

Esku artean dugun unitate didaktiko honetan, *Gorputza zain dezagun*, besteak beste, gure gorputza osasuntsu egoteko denetik jateak duen garrantzia azpimarratzen ari gara. Elikagai bakoitzak bere berezitasunak dituen, ez da nahikoa gure gustuko elikagaiekin soilik elikatzea, oso garrantzitsua da denetik jatea.

Gai horren aurrean, elikaduraren aurrean, familiaren eta ikastolaren arteko elkarlana oso garrantzitsua dela uste dugu, eta oraingoan ariketa bat egiteko zuen laguntza eskatzera gatoz.

Datozen egunetan, zuen seme-alabek astebeteko dieta aztertuko dute. Horretarako, etxera eramango duten fitxan, egunero, askarian eta afarian zer jan duten idatzi beharko dute. Fitxa berean, hurrengo egunean gosarian eta bazkarian hartutakoa gelan idatziko dute, beraz fitxa karpetan txukun-txukun ikastolara ekarri behar dutela gogoratzen lagundu beharko diezue.

Proposatutakoa gure elkarlana indartzeko baliagarria izango delakoan, eta zuen laguntza aldeztuz, agurtzen zaituztegu.

Hurrengora arte.

Irakasleak

¿Qué tal familia?

En la unidad didáctica que estamos trabajando actualmente, *Gorputza zain dezagun*, queremos resaltar la importancia de la dieta equilibrada, la importancia de comer de todo, a la hora de cuidar nuestro cuerpo. Como no existe ningún alimento completo en si mismo, debemos incorporar alimentos de todos los grupos en cantidades adecuadas para así asegurarnos una buena alimentación y estado de salud.

En este tema, la salud y la alimentación, tal y como hemos hecho en otras ocasiones, os pedimos vuestra colaboración en el siguiente ejercicio.

En los próximos días vuestros hijos van a analizar la dieta de una semana. Para ello llevarán a casa una ficha en la que deberán escribir qué han merendado y cenado cada día. En la misma ficha escribirán en clase lo que han desayunado y comido, por lo tanto, os pedimos que recordéis a vuestros hijos que deben traer esa ficha a la ikastola todos los días.

Agradeciendo de antemano vuestra colaboración. Se despiden,

L@s profesor@s

42. JARDUERA: ERREZETA EDO ERREZETA BILDUMA

Kaixo familia,

Berriro hemen gaituzue zuen laguntza eske. Zer egin behar duzuen oraingo honetan? Oso erraza! Zuen semeak edo alabak ohartxo honekin batera daraman orritxo horretan, zuen familiakoei gehien gustatzen zaizuen errezeta idaztea. Idatzi zuen semeak edo alabak idatziko du, jakina, baina zuen laguntza ezinbestekoa denez, bere ondoan egongo zaretela espero dugu. Bai, ezta? Ohar honekin batera lan honetan lagungarri suerta dakizuen adibide bat ere bidaltzen dizuegu.

Gelan, zuek bidalitako errezeta guztiekin ERREZETA BILDUMA osatuko dugu eta bildumaren kopia bidaliko dizuegu, zuek etxean janariren bat prestatzeko lagungarri gerta dakizuen.

Agur eta jan jogur,
Maddalen eta Fermin

Hola familia,

Nos ponemos en contacto con vosotros una vez más para pedirnos vuestra colaboración. ¿Qué tenéis que hacer esta vez? Muy fácil!

En la ficha que vuestr@ hij@ ha llevado a casa, tenéis que escribir la receta favorita de vuestra familia. Escribir, escribirá vuestr@ hij@ por supuesto, pero como vuestra ayuda es esencial, esperamos que estaréis cerca para colaborar en lo que el o ella necesite. Para ayudaros en este trabajito, os enviamos el ejemplo de una receta escrita por un alumno.

En clase juntaremos todas las recetas para hacer un recetario y os enviaremos a cada casa una copia, que esperamos que utilicéis para elaborar algún plato.

Agur eta jan jogur,
Maddalen eta Fermin

51. JARDUERA: OHITURA OSASUNTSUAK

- ETXEKOEKIN ESALDIAK **IRAKURRI, HITZ EGIN** ETA **IDATZI BAI EDO EZ.**

EGUNERO GOXOKIAK JATEN DITUT.	
ZORRIAK EDUKIZ GERO, BURUA ZAINZTEN DUT.	
JAIEGUNETAN, BESAULKIAN ETZANDA EGUN OSOAN TELEBISTA IKUSTEN DUT.	
EGUNERO JOLASTEN DUT.	
EGUNERO HAMAR ORDU LO EGITEN DUT.	
JAN AURRETIK ESQUAK GARBITZEN DITUT.	
JAN ONDOREN HORTZAK GARBITZEN DITUT.	

Maripuzker eta Mirenpinpirin

Behin bazen neska alai bat puzker asko botatzen zituena. Maripuzker deitzen zioten denek. Behin, festa batean dantzan ari zela, puzker handi batek ihes egin zion Maripuzkerri:

—Prrrrroumm!

Jende guztia berari begira jarri zen, eta Maripuzkerrek esan zuen:

—Hau lotsa! Nahiago nuke munduko ipurdian banengo!

Eta esan orduko munduko ipurdian zegoen. Han izaki gorri batzuk bizi ziren: puzkerrak. Puzkerren kapitainak galdetu zion neskari:

—Zer egiten duzu zuk hemen?

Eta Maripuzkerrek, negarrez:

—Ba, dantzan ari nintzela puzker batek ihes egin dit eta, lotsa-lotsa eginda, esan dut: nahiago nuke munduko ipurdian banengo! Eta hementxe nago.

Orduan, puzkerren kapitaina sutan jarri zen.

—Nork lotsarazi du neska gajo hau? Nor izan da?

Puzker musugorri potolo batek eskua altxatu zuen dena kikilduta.

—Ni izan naiz. Nik ez nuen nahi, kapitaina, baina ezin nuen gehiago, irten ezean, barruan lehertuko nintzen...

—Tira, tira! Hori ere ez... —esan zuen kapitainak—. Baina jendaurrean ez dadila berriro gertatu.

Kapitainak Maripuzkerri barkamena eskatu zion, eta urrezko txanpon bat emanda etxera bidali zuen kriskitinak bezain pozik.

Auzoan bazen Mirenpinpirin izeneko neska txolin bat, eta Maripuzkerrek herrian dena kontatu zuenean pentsatu zuen:

—Puzker bat egiteagatik dirua eman diotela puzkerti horri? Nik ere berdin egingo dut.

Joan zen Mirenpinpirin dantzara, eta puzker bat botatzen ahalegindu zen, indarka, baina ahaleginak eginagatik ez zitzaion batere ateratzen. Azkenean, bota zuen bat, baina oso txikia...

—Pliff! —egin zuen putzak.

Inor ez zen konturatu putza bota zuenik, baina Mirenpinpirinek:

—Hau lotsa! Nahiago nuke munduko ipurdian banengo!

Eta munduko ipurdira joan zen.

—Zer egiten duzu zuk hemen? —galdetu zion puzkerren kapitainak.

Ba, dantzan ari nintzela, puzker batek ihes egin dit, eta...

—Zuri ere bai? —garrasi egin zuen kapitainak—. Nor izan da oraingoan?

Puzker txiki-txiki batek eskua altxatu zuen.

—Neu, jauna. Ni oso puzker ttattarra naiz, bistan denez, eta ez nuen irten nahi, baina berak indarka kanporatu nau.

—Nola? —esan zuen sutan kapitainak—. Guri adarra jotzera etorri al zara? Ba, igarriko diozu.

Eta, ondoren, kapitainak puzkerrari:

—Putza! Sar zaitez neska horren ipurdiko zuloan, eta ez irten handik potolo-potolo egin arte.

Putzak kapitainaren esana bete zuen, eta halaxe bidali zuten Mirenpinpirin etxera.

Handik aurrera, Mirenpinpirin ipurdia estu-estu eginda ibili zen, eta ez zion inori barrerik egin puzker bat botatzeagatik, ongi baitzekien berari puzker handi bat aterako zitzaiola gutxien uste zuenean.

Mitxel Murua, *Maripuzker*, Batela bilduma. Elkar argitaletxea